

berria

Igandea



Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Dena berri, dena berdin

2 Logoa ez ezik, izaera juridikoa ere aldatu nahi diote Lanbideri, eta zuzenbide pribatuko bilakatu. Sindikatuentzat ez da irtenbidea.

Artea. Nafarroako elizetako margolanak aztergai
Bertsolaritza. Jone Uria, Bizkaiko bigarren finalista **23**

'Nazioa gara'

Jendetza bildu du
EH Bilduk Bilbon,
Madrili
nazio aitortza
aldarrikatzeko

EUSKAL HERRIA • 6

«Gaza jadanik
ez da Gaza



GAZAKO
EGUNEROKOA (6)

MUNDUA • 14-15

Koro Zumalabe Goenaga

«Kolegioan,
masifikazioa zen
shock handiena»

ELKARRIZKETA • 38-39

**black
friday**

**Km0
baserría**

Zaporea
Sabor
OOO

Prezio bereziak online dendan
baserriakm0.eus



Izaera pribatuko erakunde publiko gisa jarri zen martxan Lanbide, baina erakunde autonomo bilakatu zen sortu eta urtebetera. Irudian, Lanbideren bulego bat, artxiboko irudi batean. LUIS JAUREGIALTZO / FOKU

Aitor Biain Gasteiz

Itxura baino gehiago aldatzeko bidean da Lanbide. EAeko enplegu zerbitzu publikoaren izaera aldatzea proposatu du Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak, eta Eusko Legebiltzarrean onartzekotan diren Enplegu Legea baliatu nahi du horretarako. Erakunde autonomo izateari utzi, eta zuzenbide pribatuko erakunde bihurtuko da, enplegu erakundea eraberritzeko estrategiari lotuta.

Hastapenetara itzuliko litzateke erakundea hala. Izan ere, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa jarri zen martxan zerbitzua 2010ean, Confebasken eta UGT eta CCOO sindikatuen oniritziarekin. Patxi Lopez lehendakari zela jaso zuen Eusko Jaurlaritzak enplegu politika aktiboaren esumenena, EAJK Espainiako

ATERKI PUBLIKOTIK ALDENTZEN

Lanbide enplegu zerbitzu publikoari izaera juridikoa aldatu nahi dio Eusko Jaurlaritzak: erakunde autonomo dena zuzenbide pribatuko erakunde bihurtzea. Oposizioak uste du horrek Eusko Legebiltzarren kontrolari ihes egitea erraztuko duela, eta pribatizazioari atak zabalduko dizkiola.

Gobernuaren aurrekontuak baxestu ondotik, eta haren bitartez sortu zen Lanbide erakunde gisa.

Erabaki hark hasieratik sortu zuen desadostasuna, ordea, eta handik urtebetera Lanbideren izaera aldatzea onartu zuen Eusko Legebiltzarren gehiengoak, PPrek ekimenez. Nolanahi ere, eztabaida hura ez zen guztiz amaitu, hamabi urteren ondoren, orduko hartan mahaiaren gainean jarri ziren argudioak alderdien ahotan segitzen baitute oraindik.

Sozialisten hitzetan antzeman daiteke hori. Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburua bere garaian Gemma Zabaleta Lan eta Gizarte Politikako sailburuak erabilitako argudio berberekin aritu baita Lanbideren eraldaketa justifikatzen. Mendiaren hitzetan, figura berriari esker, «arinagoa eta malguagoa» izango da Lanbide enplegu zerbitzuak ematen, eta dinamismo eta espezializazio



LABek eta ELAk protestak egin dituzte asteotan Lanbideren izaera aldatzearen aurka. JAIZKI FONTANEDA / FOKU

profesional handiagoa izango du. Iritzi dio modu horrek barne kudeaketa antolatua izaten lagunduko duela, baita dagokion eginkizunak hobeto betetzen.

Alderdien zalantzak

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren figura ezaguna da administrazioari lotutako beste erakunde batzuetan: besteak beste, EITBK, Osakidetzak eta Energiaren Euskal Erakundeak dute izaera juridiko bera. Figura horrek ez die kontrol publiko eta parlamentarioari izkin egitea eragozten erakundeei, baina askatasun handiagoa ematen die aurrekontuak zehaztu eta langileak kontratatzeko orduan. Hala nabarmendu zuten alderdiek 2011n, Lanbide erakunde autonomiaduna izatea onetsi zutenean.

Horien artean zen orduan oposizioan zegoen EAJ. Ordea, aldatketaren alde azaldu dira jeltzaleak orain. Jon Aiertza legebiltzarkideak arrazoitu du garaia aldatu egin direla, eta testuinguruak berak ekarri duela izaera aldatzeko beharra: «Lanbide merkatuaren beharretara egokitzeko gaitasun handiagoa eskatzen du, euskal gizarteari bere zerbitzua emateko. Funtsezkoa da erantzun arin eta maiguak emateko gaitasuna izatea».

Aiertzak gogorarazi du aldaketa hori zertan oinarritzen den: Lanbide Hobetuzen planean, 2030erako enpleguaren euskal estrategian, eta aurreko legealdian Lanbide modu integrarean modernizatze eta eraberritze-ko egindako lanetan. «Horiek guztiak Lanbideren izaera juridikoa aldatzearen alde egiten

dute», azpimarratu du. Eta berretsi du Lanbideren publikotasuna eta kontrola bermatuta dudelako, besteak beste legean bertan ere jasota daudelako baldintza horiek, hala zioen azalpenetan, nola zenbait artikulutan.

EH Bilduren iritziz, ordea, aldatzea «atzerapauso bat» da, eta ez dago behar bezala justifikatuta. «Ez dugu ulertzen zergatik garai hartan izaera juridikorik hobere- na zenak orain ez duen balio», gaitzetsi du Pazis Garcia legebiltzarkideak. Eta ohartarazi du ez dagoela enplegu erakundearen izaera aldatzea babesten duen txostenik.

Lan eta Enplegu Sailak argudiatu du «arinagoa eta maiguagoa» izango dela Lanbide izaera pribatuko erakunde gisa

«Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzeko ez du behar giza baliabideen kudeaketa, Jaurilaritzak argudiatu bezala; are gehiago, konplikatu egin dakiok, bi araubide juridikotako langileak izango baititu», adierazi du Garcia.

Halaber, nabarmendu du Ekonomia eta Ogasun Saila ere izaera aldatzearen aurka dagoela. Kontrol Ekonomiko Bulegoak ez baitu «behar bezala oinarritutako arrazoirik» ikusten horretarako. «Duela urtebete onartu zuten Eusko Legebiltzarrak Enplegu Publikoaren Legea. Orduan esan ziguten XXI. mendeko legea zela hura, baina orain lege horretatik aldentu nahi dute, behar den eraginkortasunarekin lan egitea otopatzen duelako. Harrigarria da,

eta nahiko inkoherentea», salatu du Garcia.

Elkarrekin Podemos-IU ere ez dago konforme Lanbide izaera pribatuko erakunde publiko bihurtzarekin. Jon Hernandez legebiltzarkideak adierazi du ulertzen duela Jaurilaritzak egiten duen diagnostikoa, baina ez dator bat hari aurre egiteko moduarekin: «Lanbide ez zaizkio behar adina baliabide eman, eta horrek arazoak sortu ditu. Eta uste dugu irtenbide hau adabaki bat baino ez dela: gauzak lehenago egin behar ziren».

Hernandezek azpimarratu du izaera aldatu baino lehen badagoela «Lanbide hobetzeko marjina». Are, legea «bideonean» dola nabarmendu du, baina iritzi dio erakunde autonomo gisa ere ezarritako helburuak lortzeko modua badagoela. «Enplegu zerbitzu publiko duin eta indartsu bat izatea da helburua, bere eginkizunak betetzeko gai dena». Hala ere, negoziatzeko tarte txiki- kidea izan dutela salatu du Hernandezek, Jaurilaritzak legea onartzeko «presa» duelako.

Sindikatuak ere kontra

LAB eta ELA sindikatuek ere gogor kritikatu dituzte Jaurilaritzaren asmoak. Haien iritziz, izaera aldatzeak alde batera utziko lituzke funtzio publikoko «ia kontrol eta berme guztiak», langileen kontratazioari dagokionez. Eta garrantzitsua da kontrolrik ezak enplegu programei eta prestakuntzaren azpikontratazioari eragingo diela, «pribatizazioari atea are gehiago irekiz». Bada, Lanbide arautzen duen testu zatia legetik kentzeko eskatu dute, eta izaera ez aldatzeko.

Lanbideko administrazio kontseiluan sartzeko bidean egon liteke Konfekoop. Lege berriak aipamena egiten dio aukera horri estreinakoz, baina idatzitakoak ez du guztiz bermaten.

Kooperatibak aulki baten bila

A. B.

Konfekoop kooperatiben elkarteak urteak daramatza Lanbideren zuzendaritza organoan leku bat merezi duela aldarrikatzen, eta hori lortzeko bide eman dezake Enplegu Legeak. Izan ere, testuak lehen aldiz jasotzen du kooperatibek administrazio kontseiluan ordezkaritza bat izateko duten aukerari buruzko aipamena.

Zehazki, legean jasota dago «lankidetzak akordioak» sustatuko direla parte hartze hori gauzatzeko, betiere gaur egungo mahaiaren osaketa errespetatuta. Enplegu politika aktiboak ezabaidatzen diren mahai horrek hiru hanka ditu gaur egun: Jaurilaritza, sindikatuak eta enpresariak. Bosna ordezkaritza bakoitzak eta patronalaren ondoan egon nahi dute kooperatibek, bost aulkietako bat eskuratuta.

Confebask ez dago hori onartzeko prest, ordea. Eta eginahalak eta bi egin dituen enplegu erakundearen Konfekoopen sarbidea eragozteko. 2019an egindako esku hartzea da nabarmenena: patronalak gutun bat igorri zion Eusko Legebiltzarrari kooperatibei Lanbiden lekua ote dagokien argitu zezala eskatzeko. Hori egin artean Kooperatiben Legearen eztabaidari ez ekitea galdegin zion.

Izan ere, testu hartan estreinakoz jasotzen zen Konfekoopen urteetako eskaera, baina ez zuten onartu azkenean. Bada, Enplegu Legearen tramitazioan ere aipamena legetik erretiratze eskatu du Confebaskek beste behin.

«Oraindik garaiz»

Eskaerak eskaera eta presioak presio, iduri du legeak bidea libre izango duela oraingoan. Baina azken urratsa egiteko eskatu du Konfekoop: kanpaina bat abiatu du haien eskaera bermatu dadila eskatzeko. Izan ere, konfederazioak uste du ezen, legeak Lanbiden sartzeko atea zabaltzeko aukera ematen badu ere, ez duela guztiz

bermatzen. «Garrantzitsua da hau argi jasotzea, gure presentzia hirugarrenen borondatearen menpe egon ez dadin», adierazi dio Rosa Lavin Konfekoopeko presidentek BERRIARI.

Lavinek nabarmendu du legeak «aho batez» aitortzen duela kooperatibek enpleguan eta ekonomia-aren garapenean egiten duten ekarpenaren garrantzia. Eta berretsi du ez duela Confebasken lekua hartu nahi; haren alboan egotea baino ez, kooperatiben «ahotsa» ere entzun dadin: «Ekarpenak egin nahi ditugu, eta zuzenean egin nahi ditugu. Inork ezin gaitu ordezkatu».

Horregatik, Eusko Legebiltzarraren ordezkaritza duten talde politikoei legean «argi eta garbi» adierazteko eskatu die Lavinek: «Oraindik garaiz daude hori aldatzeko». Izan ere, ohartarazi du zaila izango dela gero ezer aldatzea.

Hori bera uste du EH Bilduk ere. Pazis Garciaeren arabera, aipamenak ez du «inondik inora» Lanbiden sartzeari bermaten. Eta uste du Jaurilaritzak «erantzukizuna gainetik kentzeko» balioko duela soilik. Gogorarazi du erabakia «hautu politikotik» dela, Nafar Lansarean badaudelako.

Bat dator Jon Hernandez ere. Enplegu erakundearen sarbidea bermatzeko prest dago EP-IU; «beti egon da», baldin eta enpresari gisa bada, eta ez langileen ordezkaritza moduan. Dena den, iruditzen zaio Confebasken, Konfekoopen eta beste enpresa ordezkaritza batzuen artean konpondu beharreko gataska bat dela.

EAJko Jon Aiertzak, aldiz, uste du legean jasotako formula bala- koa dela Konfekoopen presentzia bermatzeko: «Formula egokia aurkitu dugu, eta aurrerapauso handia da aurreko egoerarekin alderatuta». Aiertzak argi du kooperatibek Lanbideko zuzendaritza ordezkaritza izan behar du- tela, eta gogorarazi du enpresa eredu horrek «pisu handia» duela EAEko ekonomian.

Enplegua sustatzeko lanak egin ezinean dabilta Lanbideko bulegoetan, eta ordezkariak uste dute asko apaldu dela zerbitzuaren kalitatea, DSBEaren kudeaketak hartzen duelako lan denborarik gehiena bulegoetan.

Orientazio lanetarako astirik gabe

ñaut Matauko Rada Donostia

Eusko Jaur-laritzak enplegu arloan politika aktiboak egiteko eskumena du soilik, eta Lanbide da horren arduraduna, 2011. urteko urtarilaren lehenean bulegoak ireki zituenetik. «Orientazioa, formakuntza eta prospekzioa» dira Lanbideren eginkizun nagusiak, Nagore Ripalda ELAko delegatuaren arabera. Baina ez dute astirik. «Langileek ez dute denborarik orientazioa egiteko».

Ripaldaren ustez, DSBE diru sarrerak bermatzeko errentan dago gako. Izan ere, azken urteetan Lanbideren eskuetan egon da haren kudeaketa, eta langileei denbora gehiegi eskatzen die. Orientazioak itxaron dezake, baina DSBEa ahalik eta azkarren kudeatu behar da. «Gure agenda DSBERako hitzorduek betetzen dute, eta ahal dugunean orientazioa egiten dugu. Lanbide orain ez da enplegu zerbitzu bat, baizik DSBEa kudeatzen duen zerbitzu bat», adierazi du.

Mattin Etxabide Lanbideko LABeko ordezkariak uste du orokorragoa dela Lanbideko arazoa. «Bulego askotan atzerapen handia daukate, eta hori baliabide faltagatik gertatzen da, baina baita funtzionamendu eta lidergo faltagatik ere».

Orientazioa, pribatizatua

Lan bila daudenak edo lanez aldatu nahi dutenak orientatzea da Lanbideren eginkizun nagusia; enplegu politika aktiboak egitea, azken finean. Bada, zerbitzu hori ondo emateko ezintasuna dela

eta, Lanbidek urteak daramatza zerbitzu horiek entitate kolaboratzaileen esku uzten.

Ripaldak azaldu du Lanbideko teknikari gehienak orientatzaileak direla, eta asmo horrekin sartu zirela bertan lan egitera, baina ez dutela horretarako denborarik. «Eskualde bakoitzean entitate ezberdinak daude, eta dirua ematen diete guk orientatu ezin dugun jendea artatu dezaten. Eta gu, berriz, egin nahi dugun lan hori egin gabe geratzen gara».

EAJ eta PSE-EE Eusko Legebiltzarrean onartzeak diren enplegu legeak, gainera, arazo hori betikotuko duela ziur da Etxabide. «Aurreikusten da Lanbideren aurrekontua handitu egingo dela



aipatutako lidergo faltagatik, kanpoko entitateen bidez egingo da lan hori. Lanbideko langileek barne-barnean sufritzen dute arazo hori: «Hemen daramadan denboran harritu nauen gauza bat da langileek zer-nolako inplikazioa duten Lanbiderekin. Haren parte sentitzen dira, eta Eusko Jaur-laritzako beste sail batzuetan ez da ikusten hori».

Proba pilotuak

Etxe barruko egiturazko arazo horiek konpontzeko asmoz, Lanbidek funtzionamendu berri bat diseinatzeko kontratatu zuen Deloitte aholkularitza multinazionala iaz, 1,3 milioi euro ingururen truke. Ripaldak azaldu duen moduan, bulegoetako teknikariak bitan banatuko dituzte: batzuk espresuki DSBEaren kudeaketaz arduratuko dira, eta besteek enpleguarekin zerikusia duten zereginak hartuko dituzte, enprekin harremana izatea eta

orientazioa, adibidez. Bulego batzuetan proba pilotuak egiten ari dira, Lasarte-Oriakoan (Gipuzkoa) eta Donostiako Antigua auzokoan, esaterako.

Etxabide eta Ripalda ados daude itxura ona duela funtzionamendu berriak, baina probak gaizki ateratzen ari direla adierazi dute biek ala biek. ELAko ordezkariak dio arazo asko daudela, baina arduradunak ez direla horren jarraipena egiten ari.

Etxabidek ere «primeran» ikusten du lanaren banaketa hori, baina uste du ez direla jarraipenik egiten ari: «Gizarte langileekin ez dago inongo koordinaziorik eta kohesiorik, eta, askotan, Lanbideko langilearen borondatearen esku geratzen da. Ez dago modu antolatu edo formal bat». Arazo horiei aurre egiteko esku hartzea falta dela uste du: «Normala da arazoak egotea; plan pilotuak honretarako dira, gabeziak identifikatzeko, baina gabezia horietarako neurriak hartzea eta erantzunak ematea falta da».

Ripaldaren arabera, ziurrenik urtarilean hasiko dira bulego

guztietan funtzionamendu berriarekin, nahiz eta probak ondo ez atera.

Bulego falta

Lanbideko bulegoetako langileak lanez lepo daude, Ripaldaren esanetan. Une oro lan ezberdinak egiten dituztela dio: «Hori eromena da. Jende asko gaixotzen ari da, eta baja hartzen ari da. Eta hartzen ez dutenak sufritzen ari dira. Hortaz, giroa oso txarra da orain-txe». Eta ez du uste Deloittekin diseinatutako aldatzea horrek eragin handirik izango duenik.

Bulegoetan, baina, ez dira langile gehiago sartzen, nahiz eta lan guztia egitera ezin iritsi ibili. Bulego gehiago behar direla uste du Ripaldak, eta Irun (Gipuzkoa) ja iri du adibide. Izan ere, Irungo Lanbideren bulegoan udalerriko posta kode guztietako biztanleak hartzen dituzte, baita Hondarribikoak ere. 80.000 pertsona dira guztira. «Gainezka» daude langileak.

Herriaren ezaugarrien arabera, gainera, asko aldatzen da DSBEaren eskarien kopurua. Irunen, ba-



Jende asko gaixotzen eta baja hartzen ari da. Eta hartzen ez dutenak sufritzen ari dira. Hortaz, giroa oso txarra da»

Nagore Ripalda
Lanbideko ELAko delegatua

«Normala da arazoak egotea; plan pilotuak horretarako dira, baina gabezia horietarako neurriak hartzea falta da»

Mattin Etxabide
Lanbideko LABeko delegatua

Europako funtsekin, eta uste dugu negozio aukera handia sortuko dela hor; Lanbide indartu beharrean, administrazioaren apustua izango da orientazioa eta beste zerbitzu batzuk kanpora ateratzea».

Etxabideren ustez, Lanbideren orientazio zerbitzua «indartze» aukera dago, baina, aurrez

Gasteizko Txagorritxu
auzoko bulegoa, artxiboko
irudi batean. J.H./EFE



Berri Otxoak-eko kideek urte hasieran Lanbideren Barakaldoko bulegoan egindako protesta. BERRI OTXOAK

Orain arte poliziek egin izan dituzte ikuskapenak DSBEaren hartzaileen etxean, legez kanpokoak denak, gizarte eragileek salatu dutenez. 2022ko abenduko legearekin, Lanbidek egingo ditu ikuskapen horiek.

DSBEaren ikuskapena, Poliziatik Lanbidera

I. Matauko Rada

Urte hasieran, gizarte eragile batzuek salatu zuten Ertzaintza DSBE diru sarre-
rak bermatzeko errentaren hartzaile batzuen etxean sartzen ari zela, ikuskapen batzuk egiteko. DSBEaren lege berria oraindik ez zegoen indarrean orduan, eta ikuskapen horiek legearen aurkakotzat jo zituzten Berri Otxoak-ek, Argilan-ESK-k, Deba Baitarako Kontseilu Sozialistak eta beste hainbat eragilek. Izan ere, aurreko legeak ez zuen ezer esaten hartzaileen ikuskapenari buruz; abenduaren 22ko 14/2022 legeak, ordea, bai.

Lege berriaren IV. tituluak arautzen du Lanbideren «ikuskapen eginkizuna». 94. artikulua dio Lanbideko ikuskatzaile berriak DSBEaren hartzaileen etxean sartu ahalko direla, bizikidetzaren unitateen egiaztapenak eta bestelakoak egiteko. Iñaki Uribarri Argilan-ESK-ko ekonomistak adierazi du 25-29 kideko ikuskatzaile talde bat sortuko dela, «Lanbideko polizia», haren hitzetan. Orain arte udaltzainek eta ertzainek «legearen kontra» egin dutena egingo dute.

Ikuskatzaile talde hori, baina, oraindik ez da sortu. Izan ere, Uribarri esan moduan, legea indarrean sartu eta gehenez bi hilabetera onartu behar zuten DSBEa irizpidetako duen araudia, baina oraindik ez dute onartu, nahiz eta legea martxoaren amaieran indarrean sartu zen. Sara Buesa Lanbideko Prestazio eta Inklusio zuzendariak SER kateari iraillean adierazi zion urrian onartuko zutela araudi berria, baina hori ez da jazo oraindik.

«Berme gehiagoko legea»

Orain arte, poliziek DSBEaren hartzaileen etxeetan egindako inspektzioetan «nahi zutena egiten zuten», Uribarriaren arabera. Hala, lege berriaren Elkarrekin Podemosek lortutako akordio batzuei esker, «berme gehiago» izango dituzte hartzaileek ikuskapen horietan: «Hemendik aurrera itxura txukuna eman behar dute, dokumentazioa eraman, ikuskapenak egitea ahalbidetzen dien txartel bat erakutsi, zer egin behar duten esan... ezingo dira sartu Ertzaintza sartzen moduan».

Hala ere, bazterkeria egoeran dagoen jendearekin lan egiten duten eragileak ez daude ziur berme



«Hemendik aurrera, itxura txukuna eman behar dute; ezingo dira sartu Ertzaintza sartzen zen moduan»

Iñaki Uribarri
Argilan-ESKko ekonomista

horiek beteko diren edo ez, Lanbiderekin bermeek «balio dutena balio dutelako», Uribarriaren esanetan. Uribarri bera, baina, baikor dago: «Ez badugu ondo egiten, gure errua izango da, legea gure alde baitago». Uste du funtsezkoa izango dela jendeak garbi izatea zeintzuk diren bere eskubideak.

Horretarako, Argilan-ESK-
eskuorri batzuk egingo ditu DSBEaren hartzaileei emateko, Lanbideko ikuskatzaileei une oro oroitartzeko zer esaten duen legeak. «Ikuskatzaile gorpuztutako hori Lanbideko polizia izango da, baina jendeak kasu egiten badigu eta ez badira izutzen, berme gehiago izango dituzte», azaldu du.

Lege berriak, baina, oraindik ere alde txar asko dituela uste du

Uribarri, berme horiek ezbaian jartzen dituztenak. Izan ere, elkarrekin bizi diren lagun batzuen harremana «ezkon-harreman baten analogoa» izango dela ondorioztatuko dute bi kasu hauek: seme-alabarrik badute komunean, edo azken lau urteetan gutxienez bi urtez elkarrekin bizi izan badira. Beraz, bakoitzak bere DSBEa jasotzen duten bi pisukidek bi urte baino gehiago badaramatzate etxe berean bizitzen, ezkon harreman moduko bat dutela ondorioztatuko ahalgo dute, eta DSBE bat ez baizik bi kobratzea leporatu.

«Shock terapia»

DSBEaren kudeaketa Lanbidek hartu zuen arte, herri bakoitzeko udaltzaiek egiten zituzten ikuskapenak errentaren hartzaileen etxeetan, zerbitzu sozialen eta foru aldundien esku baitzuten eskumena. Kudeaketaren ardura Lanbidek hartu zuenean, Ertzaintza hasi zen ikuskatze horiek egiten, eta Uribarri uste du horrekin jendea are gehiago beldurtu zuela, «nahiz eta poliziak kaleko jantzi joan».

2023aren hasieran aldatu ziren gauzak. Hainbat gizarte eragilek salatu zuten Ertzaintzaren ikuskatze horiek areagotu egin zirela, eta, legez kanpokoak zirela salatzear gain, adierazi zuten erabaki batzuk irizti subjektiboekin hartzen ari zirela. Orduan, Berri Otxoak taldeko kide Sheila Fernandezekin hitz egin zuen BERRIAK, eta adierazi zion hainbat errenta behin-behinean bertan behera uzten ari zirela aurreiritzietan oinarrituta.

Fernandezek emandako adibide batzuen arabera, emakume bati errenta kendu zioten esekitokian gizonaren arropa lehortzen izateagatik. Emakumeak bere arropa zela adierazi zion ertzainei, baina haiek iradoki zuten bertan gizon bat bizi zela, eta bizikidetzaren unitateari buruz gaur esan zuela. Beste bati errenta kendu zioten ikuskapena egin zuten unean lagun batzuk zeudelako bertan kafea hartzen, eta harekin bizi zirela ondorioztatuz zuten agenteek.

Ertzaintzak gezurtatu egin zuen ikuskatze horiek egiten ari zela. Uribarri adierazitakoaren arabera, ikuskapenen areagotze hori laster amaitzen da, eta DSBEaren hartzaileen etxean sartzeari utzi zioten. Ekonomialariaren iritziz, «shock terapia» moduko bat egiten saiatu ziren horrekin, etorkizuneko Lanbideko ikuskatzaileek egingo dituzten ikuskatzeak begi hobez ikusteko.

tez besteko errenta txikiko udal-
erri askotan gertatzen den mo-
duan, baztertuta dauden familia
asko daude, eta errenta eskariak
handiagoak dira, beraz: «Irunen
DSBE mordo dago».

Gainera, hilabetero bulegoen
zerrenda kaleratzen da, bakoitzak
zenbat lan egiten duen ikusteko
eta ondoren kontuak eskatzeko.
«Kanpoan jendeak ez daki gu ho-
rrela gaudenik», adierazi du Ri-
paldak, atsekabez.

Bulego eta pertsonal falta ez
ezik, lantokiek gaur egun dituz-
ten baldintzak ere zalantzan jarri
ditu Etxabidek. «Bulego askotan,
arretarako baldintzak ez dira oso
egokiak: jende pila, mahaiak bata
bestearen ondoan... Orientazio
saio batean pertsona batekin kon-
fiantzazko esparru minimo bat
lortzeko baldintzarik ez dago».

Behar sozialak identifikatzea
ere bada Lanbideko administra-
riren eta teknikarien lana, eta lan-
tokia baldintzek lan hori ondo
egitea zailtzen duela uste du Etxa-
bidek. Hori dela eta, Lanbidek
pertsonal gehiago behar duela uste
du, «zalantzarik gabe».



EH Bilduk atzo Bilbon Nazioa Gara lelopean deituriko manifestazioko burua Zabalburu plaza ingurura iritsi zenean. ENDIKA PORTILLO / FOKU

Nazio aitortzaren eskaeretan maila bat igotzeko ordua dela dio EH Bilduk

Arnaldo Otegi iragarri du eztabaida nazionala eta herrien aitortza «mahai gainean» jarriko diola Espainiako Gobernuari • Martxa jendetsua bildu du Bilbon hirugarren urtez jarraian: 30.000 pertsona

Imanol Magro Eizmendi Bilbo

«Batzuek lotua eta ondo lotua utzi zuten hori deslotzea da gure lana». Arnaldo Otegi EH Bilduren koordinatzaile nagusiak mezu zuzena bidali zion atzo Espainiako Gobernuari, Bilboko Autonomia kalean elkartu zuen jendetzaren aurrean. Koalizioak ustedu nazio-tasunaren eztabaida jorrazteko «leio berri bat» ireki dela, eta bide horretako eskaeretan maila bat igo behar dela. Era berean, azaldu zuen hori gerta dadin arduratuko direla: «EH Bildu eztabaida politikoan presente dagoenean, gauzak gertatzen direlako».

EH Bilduren azaroko deialdia ohitura bihurtu da kasik, eta hirugarren urtez jarraian argazki indartsua lortu zuen Autonomia kalean. Antolatzaileen arabera, 30.000 lagun inguru bildu ziren. Bilboko udaltzainek oso antzeko kopurua eman zuten: 28.000. Iaz-

koan baino jende gehiago bildu izanaren itxura zuen kale zabalak. Martxaren amaieran, bertaraturikoei Txoriak Txori abestu zuten elkarrekin. Mikel Laboaren bertsiio klasikoa izan zen, ez kirol eremu hainbeste zabaldu den bertsiio futbolzale berri hori.

Otegi izan zuen buru martxak, eta alderdiko hainbat kargu eta alkate izan zituen alboan *Nazioa Gara* zioen pankarta eramaten. Amaierako hitzaldian mezu ugari bota zituen, baina, Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidente izendatu berriaren, Madrilera begira igorri zituen argienak: «Eztabaida plurinazionalak eta herrien aitortzak baldintzatuko dute bigarren legegintzaldi hau. Hori da orain egin beharreko eztabaida, EH Bilduk mahai gainean jarriko duena».

Koalizio subiranistak Sanchez hautagai sozialistaren izendapena baldintzarik jarri gabe babestu du,

eta zergatia azaltzean ahotsa altxatu zuen: «EH Bilduk ez du bere jarraitzaileekin espekulatu. Faxistek atea jotzen dutenean, haiek geldiaraztea ez den beste lehentasunik ez dagoelako. Ez abiadura handiko trenik, ez ezer; lehenta-



Faxistek atea jotzen dutenean haiek gelditzea da lehentasun bakarra. Ez abiadura handiko trenak, ez beste ezer»

Arnaldo Otegi
EH Bilduko koordinatzaile nagusia

suna pertsonak, langileak, emakumeak... babestea da».

Keinu ugari hitzaldia izan zen. Josu Muguruza eta Santi Brouardekin oroitu zen «bihar izango da bien hilketen urteurrena». Haiek hil zituztenak bueltan

direla ohartarazi zuen, eta Euskal Herriak aurrera egin dezala oztopatu nahi dutela. «Herri hau maitate eta zaindu zituztelako hil zituzten, eta haien ideiek, desirak eta nahiak hemen bildu zireten gutuzten bihotzetan bizirik diraute».

Palestina ere hartu zuen hizpide hasieran. Duela hemeretzi urte Anoetako belodromoan eman zuen hitzaldian atrilean jarritako *kuftiya* zapi palestinar bera jarri zuen atzokoan. Ikurrina eta Nafarroako bandera ugari zabaldu zituzten manifestazioan, baita Palestinako ere. «Gaur Autonomia kalea Palestina kalea bada», aldarrikatu zuen, eta salatu zuen ez dagoela «milaka ume hiltzea zilegi bihurtzen duen inongo defentsa eskubiderik». Bildutakoek «Palestina askatu!» oihuekin erantzun zuten.

Nazioarteko hainbat alderdik ordezkaritza bidali zuten manifestaziora. Besteak beste, bertan

ziren Palestinako FPLP alderdiko kide batzuk, Saharako Fronte Polisariokoak, KNKKo kurduak, Sinn Feineko irlandarrak, ER, CUP, Mes Per Menorca eta Compromiseko kataluniarrak, BNGko galiziarrek eta Andecha Asturrra asturiarrak (Espainia).

Udaberria «anbizioz»

Ustekaberik ezean hurrengo urteko udaberriaren bueltan egingo dira Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak. Otegi ez zituen izendatu, baina «apirilaz» mintzatu zen. EH Bildu anbizioz eta zuhurtziaz joango dela aurreratu zuen, «lan asko eta zarata gutxi» eginez. Gogoratu zuen «herrialde honetan» jada ezin dela egin politikarik EH Bildu gabe: «Gelditzeko etorri gara, herri hau askatasunera eta berdintasunera eramateko». Independentziaren aldeko oihuekin erantzun zioten manifestariek.



Zaporea
Sabor



Prezio bereziak online dendan



baserriakm0.eus

Txahal txuletoa 1kg
Behi txuleta
Behi entrekot tirak
Hanbursesen lote anitza
Biribilkia saltsan 3x2
Basatxerri urdaiazpikoa



berria lagun iragarleak

GOKI

erreformak

Olaso ind., 15 - 68. pab.
20870 ELGOIBAR
T. 943-74 42 23
Irizar, 1 behea.
20570 BERGARA
T. 943-76 53 42
Errebal, 19 behea.
20590 SORALUZE
T. 943-12 57 41

- BERRIKUNTZAK OROKORREAN
- BASERRIEN BERRIKUNTZA OSOA
- TEILATUAK ETA FATXADAK IGOGAILUAK

www.gokierreformak.com • goki@gokierreformak.com

HOTELA

LEKUEDE

ikusmira paregabea!

Gela bikoitzaren prezioa: 60 € - 150 €
gela mota eta sasoiaren arabera (BEZ eta gosariak barne)

Kristibal Balentziaga, 2 IGEDLO • 20008 DONOSTIA (Gipuzkoa)
943-21 01 07 / 943-21 97 91 • info@lekueder.com • www.lekueder.com

KIMUBAT
— GARDEN

Gabonetako magia iritsi da

ARANBURU
LANDETxea

Aizarna auzoa • ZESTOA • 943-14 80 05
info@casaruralaranburu.com
www.casaruralaranburu.com

KOBOLJO | JOSTAILUAK

Egurrezkoak eta didaktikoak diren jolasak, haur, nerabe zein helduentzat

Arreta euskaraz
LAZKAO
kobojojostailuak.com



Ortuzar, Leizaola, Lasa, Zarate, Pradales, Berriozabal eta Barandiaran atzo, aurkezpenean, Bilbon.

EAJk Euskadi Think Next aurkeztu du: laborategi bat politika publikoentzat

Ortuzarrek autogobernu handiagoa eskatu du «kalitatezko politikak» egiteko • Gizartearekin harreman «sendoagoa» eraiki nahi dute

Gurutze Izagirre Intxauspe

Entzunez Eraiki egin ostean, Euskadi Think Next prozesua abiatu du EAJk. Andoni Ortuzar EAJren EBBko lehendakariak adierazi duenez, «Euskadi bizitzeko tokirik onena bihurtzeko» zein politika publiko behar diren identifikatzeko laborategia izatea du xede. Irigarri du horretarako elkarlan aro bat irekiko dutela akademiarekin eta gizarte zibilarekin. Xabier Barandiaran Berrikuntza Politikarako kideak gidatuko du prozesua, eta Sabino Arana fundazioarekin elkarlanean egingo dute.

Ortuzarrek esan du pertsonak erdigunean jarriko dituen «gizarte kontratu berri bat» egin nahi dutela, eta «kalitate goreneko zerbitzu publikoak eta sistema soziosanitario modernoak» nola egituratu pentsatzeko laborategia izango dela, «gure gizarteak zainketen eredu publiko eta komunitarioa beharko baitu».

Azaldu duenez, zerbitzu publiko onak izateko, beharrezkoa da baliabideak izatea. «Horrek eskatzen du enpresa lehiakorrek, puntako teknologia eta soldata justuak izatea». Autogobernuarekin lotu du hori dena. «Zenbat

eta autogobernu handiagoa, orduan eta ongizate handiagoa». Garai berri baterako autogobernu berri bat behar dela esan du. «Gure naziotasuna aitorzea behar dugu, eskubide sozial eta politiko gehiago». Aldarrikatu du nazio bat, bere buruaren jabe izango dena; «nazio ireki eta euskalduna, non euskara, jakiteaz gain, erabilia izango den».

Entzunez Eraiki prozesuan jaso zuten EAJ «eskuinaren» alderdi gisa hartzen dutela herritarrek; Think Next abiatu dute orain

Haren ustez, hori guztia egiteko, kalitatezko demokrazia behar da: «Demokrazia ez dago gaur egun bere garairik onenean, ez mundu mailan, ezta hurbilago ditugun espazioetan ere».

Barandiaranek, berriz, iragarri du prestigioa duten zenbait pertsonak, EAJrekin loturirik ez dutenak, hartuko dutela parte prozesuan. Horren bidez, EAJk bere ekintza politikoa «aberastu» nahi du, eta gizartearekin harreman «handiagoa» ezarri, «eskaera berriei erantzun dieten politika publiko berriak bultzatzeko».

Euskadi Think Next hamar mintegik osatuko dute. Lehen

azaroaren 29an egingo da, *Polarizazioa, demokraziaren haustura?* izenburupean egingo dute, eta honako hauek parte hartuko dute: Miriam Juan-Torres Gonzalezek, Berkeley Kaliforniako Unibertsitateko Democracy & Belonging Forum institutuko ikerketaburuak, eta Luis Millerrek, CSICeko Politika eta Ondasun Publikoaren Institutuko zientzialari titularrak.

Entzunez Eraiki prozesuak utzi zizkien zenbait ondorio jeltzeko, eta bizen osteko boto galeren ostean egin zuten autokritika. Besteak beste, prozesu horren txostenean azaldu zuten «zailtasunak» zituztela «EAJren mezua herritarren parte bati helarazteko», alderdi «kontserbadoretzat» hartua zelako, «gugan ez dituztelako antzematen ez alderdi modernoaren izaera, ezta esparru sozialarekiko konpromisoa ere», zioten agirian. Agirian jaso zuten herritarren ustea EAJri buruz: «ez da oso plurala. Euskal burgesiaren eta eskuinaren alderdia da, klase baxuetatik urrun dagoena. EAJk gardentasunik eza transmititzen du eta zirkulu itxi gisa transmititzen da». Hori jaso ostean dator Euskadi Think Next prozesua.

Beskoitzeko ikastolako gurasoek euskaltzaleen babesa jaso dute

2.500 pertsona elkartu dira herriko etxeak ikastolari egiten dion jazarpena salatzen

• Eraikin sendo bat nahi dute, baina baldintza «arbitrarioak» inposatzen dizkiete

Ekhi Erremundegi Beloki Beskoitze

Joaldunak deiarar egiten, eta oiher bat, behin eta berriz errepikatua: «Ikastola, herri eskola». Euskal Herri osoetik etorritako 2.500 pertsona elkartu ziren atzo Beskoitzan (Lapurdi), herriko etxeak ikastolari ezartzen dizkion oztopoak salatzen. Manifestazioa egin zuten herriko karrikan, eta afixa bat kolatu zuten herriko etxearen atean, entzungor egiten dien agintariari keinu gisa.

Bada hilabeteak Fabienne Aïensa auzapezaren taldeak elkarrikeria oro ukatzen diola Seaskari; atzo, ozen entzun zen herriko ikastolaren aldeko aldarria. «Elkorrarena egiten segi dezakete, baina guk aterabide bat atzeman arte lanean segituko dugu», adierazi zuen Peio Jorajuria Seaskako lehendakaria.

Duela hamar urte sortu zen ikastola Beskoitzan, Pirinio Atlantikoetako prefeturak ezarri nahi izan zizkien oztopoen gainetik. Hasieran guraso baten etxean, ondoren lur publiko batean ezarritako prefabrikatueta, pixkanaka egin du bidea, 52 ikasle izatera iristeraino. Orain, eraikin sendo batera iragan nahiko lukete, baina herriko etxeak eraikitzeko baimena ukatu die.

Baldintza «arbitrarioak» inposatzen dizkietela salatu dute maiz Seaskak eta gurasoek: herriko etxeak eskatzen diena beteko balute, gaur egun duten eremu txikian sartu beharko lituzkete ikasgela, jantokia, kanpoko eremua eta aparkalekua. Ezinezkoa dela errepikatu dute behin baino gehiagotan.

«Beste herrietan herriko etxeak lagundu gaituzte aterabideak atzematen. Hemen, ez gaituzte laguntzen, eta, gainera, trabak ezartzen dizkigute», deitoratu zuen Jorajuria. «Haurrak prefabrikatueta nahi dituzte, ikastola ez dadin garatu [...], euskararik eta ikastolarik ez baitute nahi. Eta gainerako guzia aitzakiak beste-rik ez dira».

Gurasoak ere mintzatu ziren mobilizazio bukaeran, bizi dutenaren lekukotasuna emanez: «Onartuak izan gara, zoko batean mugaturik. Baina gure beharrik handitu direlarik, gure haurren baldintzak hobetu nahi izan ditugularik, orduan buru-belarri egin dute horren kontra», salatu zuen Julen Jauregik.

Azken hamar urteetan «eguneroko diskriminazioak» jasan dituztela salatu zuen. «Non ikusten da herriko etxe bat jantokira joateko eskola bati kuotak ezartzen dizkiona? Non ikusten da herriko etxe bat, jantoki erdi huts batean haur bat errefusatzeko duena?». Auzapezaren eta bere tal-



Jende andana Beskoitzan, ikastolaren alde antolatutako mobilizazioan. GUILLAUME FAUVEAU



Prefabrikatueta nahi dituzte haurrak, ikastola ez dadin garatu, ez baitute euskararik eta ikastolarik nahi»

Peio Jorajuria
Seaskako lehendakaria

dearen «mespretxua» eta «argudio faltsuak» gaitzetsi zituen, eta Euskal Hirigune Elkargoko hautetsiei dei egin zien bitartekaritza lana egin dezaten, «gure haurrak ez uzteko urte bat gehiago horrelako egoera batean».

Erasoak non, ikastolak han
Euskal Herri osoko euskaltzaleak elkartu ziren Beskoitzeko ikasto-



«Haurren baldintzak hobetu nahi izan ditugularik, orduan buru-belarri egin dute horren kontra»

Julen Jauregi
Beskoitzeko ikastolako gurasoa

lako gurasoei babesa erakusteko, eta berotasun hori eskertu zuten gurasoek. «Argi entzun dezatela agintarietako euskarari eta ikastolarari eraso egin dieten tokian, han egon gara», egin zuen aldarri Nekane Artola Ikastolen Elkarte-ko lehendakaria.

Gurasoen jarrera gorai patu zuen Jorajuria ere: «Jadanik ikastola txiki bat bizi araztea lan



«Argi entzun dezatela agintarietako euskarari eta ikastolarari eraso egin dieten tokian, han egon gara»

Nekane Artola
Ikastolen Elkarte-ko lehendakaria

handia baldin bada, zer erranik ez herriko etxeak trabak ezartzen dituelarik», azaldu zuen. «Eguneroko lanei gehitu zaizkie bilkurak, prentsaurrekoak, elkarretaratzetak, banderolak, informazio orriak etxez etxe banatzea... sekulako lana egin duzue», aitortu zien. «Gure haurrek merezi baitute, euskarak merezi baitu, ikastolaren alde borrokatzen segituko dugu».

Kirurgiaren ondoren berragertutako zainetako ultzera eta barizeetan espezialistak

varitek

KIRURGIARIK GABE

ERRADIOLOGIA INTERBENTZIONISTA

www.varitek.es

DONOSTIA 666 776 159 • BILBO 690 623 391 • GASTEIZ 689 338 931

TRADEBI
TRANSLATION

Itzultzaileak

tradebi@tradebi.com

Eskuin espainiazaleak ehunka lagun bildu ditu Iruñean, Sanchezen aurka

Eskuineko hainbat elkarte antolatatu dute protesta, eta UPNk, PPK eta Voxek bat egin dute deialdiarekin • Erdizka bete dute Gazteluko plaza

Ion Orzaiz

Txakalaldiak jota. Aldeko haizea baliatu nahi zuen Nafarroako eskuin espainiazaleak, Iruñean indar erakustaldia egiteko. Baldintza ezin hobekak zituen horretarako: Pedro Sanchezen gobernuaren aurkako giro beroa, Madrilgo protestek hauspotutako oinarri sozial bat, eta eskuineko eta eskuin muturreko alderdi parlamentario guztien sostengua. Alde zuten eguraldia ere. Eta horrekin guztiarekin ere, antolatzaileek erdizka baizik ez zuten lortu beren helburua, Gazteluko plazan ehunka pertsona mobilizatuta. Espainiako Gobernuo ordezkaritzaren arabera, 7.500 pertsona elkartu ziren atzo Iruñean, amnistia legearen aurka protesta egiteko.

Gazteluko plazaren zati bat bete zuten manifestariak: kioskoaren eta Nafarroako Gobernuaren egoitzaren artekoa, hain zuten. Sociedad Civil Navarra elkarte eskuindarrak egin zuen deialdia – elkarte berak «Nafarroako banderaren alde» antolatatu zuen manifestazio bat 2017an, eta euskararen aurkako beste bat 2018an –, baina UPNren, PPren eta Voxen babes esplizitua zuen protestak. Aurreko astean, lelo eta helburu bertsuko elkarretaratzea antolatatu zuen PPK, eta horretara ez ziren batu gainerako alderdi eskuinda-



Sociedad Civil Navarra elkartearen manifestazioa, atzo, Iruñean. INIGO URIZ / FOKU

rrak. Atzokora bai, ordea: Gazteluko plazan izan ziren UPNko buru Javier Garcia eta Voxek Nafarroako Parlamentuan dituen bi ordezkarietako bat: Emilio Jimenez militar erretiratua.

TVEko kazetari Loretzo Iñarreak irakurri zuen manifestua, zein antolatzaileek ohartarazi baitzuten «arriskuan» dela «Trantsizioan diseinatutako eta [Espainiako] Konstituzioan jasotako sistema politikoa, juridikoa, instituzionala eta soziala». Pedro Sanchezek EH Bilduri eta EAJri «mahai azpian eginiko ordainketaz» ere galdetu zuen.

Elkarretaratzearen ostean, bandera espainiarrak zeramatzen hogei bat lagun PSNren egoitzaren aurrealdera joan ziren. «Txibite, etakide, Nafarroatik kanpora!» eta «Pedro Sanchez, putasemea» oihukatu zuten, besteak beste.

Milaka lagun Madril

Espanian, oihartzun handiagoa izaten ari dira amnistia legearen aurkako manifestazioak. Madril, milaka lagun elkartu ziren atzo Cibeles plazan, eskuineko ehun bat elkarte deituta. PP, Vox eta Ciudadanos alderdiek batu zuten protesta.

Euskararen erabileran jauzi bat emateko plana onartu du Topaguneak

ARRASATE • Euskaltzaleen Topagunearen III. Kongresua egin zuen atzo, eta parte hartu zuten bazkide guztien onepenarekin onartu zuten elkartearen hurrengo urteotako plangintza. Besteak beste, euskararen erabileran jauzia emateko estrategia onartu zuten, gizarteak euskaraz eroso bizi ahal izateko tresnak izan dituzan errazteko. Horretarako, hainbat eragilerekin aliantzak egin nahi ditu Topaguneak, mugimendu euskaltzale «indartsu, zabal eta eraldatzailea» lortzeko helburuarekin bat eginda.

Mendizale bat hil da Pirinioetan, Monte Perdidon amilduta

IRUÑEA • Eguesibarreko mendizale bat hil zen atzo Pirinioetako Monte Perdido (Huesca, Espainia) Escupideratik amilduta. Gizonak 52 urte zituen. Guardia Zibilak jakinarazi zuenez, 12:30ak aldera jaso zuen dei bat istripuaren berri emanez. Helikopteroarekin hurbildu ziren, eta mendizalea gorpu aurkitu zuten. Ondoren, Boltafiara eraman zuten, eta handik Huescako auzitegi medikuntzako instituturara, autopsia egitera.

Hezkuntza Legea «iruzur» bat dela uste du Harro plataformak

Hezkuntza sistema pribatizatze amarru bat dela uste du, eta mobilizatzen jarraitzeko deia egin dio gizarteari

GASTEIZ • Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak «iruzurtzat» jo du Eusko Legebiltzarra tramitatzeko ari den Hezkuntza Legea, eta haren aurka mobilizatze deia egin dio gizarteari. Izan ere, Harrok uste du hezkuntza pribatizatzen segitzeko tresna bat dela, eta ez duela lehenesten sare publikoa.

Plataformak uste du sare publikoko eragileen «proposamen bakar bat ere» ez duela jaso legeak. Kontsentsu falta leporatu dio. «Sare pribatuaren finantzaketa bermatu egiten du, inolako baldintzarik gabe, eta baztertzeko eskola publikoa, finantzaketa planik gabe utzita». Sare pribatuari hezkuntza-

ren kalitatea bermatzeko eskola publikoak behar dituen baliabideak ematea gaitzetsi du.

Gasteizen elkarretaratzea egin du Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak, eta bertan egin ditu, berriro ere, salaketa gogorrek Hezkuntza Legearen aurka. «Ez du bermatzen ikasleak euskalduntzea, eta hizkuntza eredu jarraipena bermatzen du. Ez du neurririk jasotzen segregazioari aurre egiteko». Merkatu logikaren menpeko lege bat dela eta sare pribatuari men egiten diola gaineratu du. Alderdiei eskatu die lehentasuna emateko sare publikoari, sistemaren ardatz bihurtu ahal izateko.

Hilberriak



Krux Amilibia Segurola

Beti umoretsu, beti alai ibili ginen elkarrekin; gaur nahiz urruti egon, oroitzen gara zurekin.

“Txipristiñak” hire kuadrilla

Eskelak

(0034) 943-30 40 30 • eskelak@bidera.eus

Berria.eus/eskelak

BERRIAlagunek eta BERRIAlagun harpidedunek %25 merkeago izango dituzte eskelak

Dirua non, erroak (edo garroak) han

Aste honetan Laudioko Glavistako langileek mezu etsi bat bidali diote Eusko Jaurilaritzari: enpresaren akzioak erosteko eta haren kontrola hartzeko eskatu diote. 240 langileren geroa dago jokoa, eta azken ahalegintzat jo daiteke deia.

Kasuak berezitasun eta zailtasun propioak ditu, baina antzekotasunak ere bai beste batzuekin. 2020an, aurreko jabeak, AEBetako Guardian multinazionalak, Suitzako Parter Capital funtsari saldu zion lantegia. Halakoetan ohi denez, bi aukera zituen: enpresa biziberritzea ala hiltzen uztea. Eta bigarrena aukeratu zuen. Hori da putre funtsen bereizgarria.

Baina badira bestela jokatzeko dutenak ere. Azken urteetan, kanpoko kapital funtsen esku geratu diren enpresen zerrenda handitu da: Euskaltel, ITP, Aernnova, Solarpack, Uvesco—BM eta Super Amara salto-kiak—... Oro har, ezin da esan, itxuraz behintzat, erabakitze guneak eramane dituztenik edo lanpostuak galdu direnik. Nahiz eta halakoetan beti azaltzen den hori gertatuko den marea. Hitz batean: deserrotzea.

Finantza erakunde horien aritzeko moduari erreparatu gero, ez litzateke harrizketa hori gertatzea. Lauzprobost urte egoten dira administrazio kontseiluetan, eta gainbalioa lortzen dutenean, ospa egiten dute. Urte batzuk pasatu dira Euskal Herriko enpresa estrategiko batzuetan sartu zirenetik, eta orain kezka da gutxi barru horiekin zer gertatuko den.

Oinarrian, kanpoko funtsak etortzeak gabezia bat erakusten du: bertako inbertitzaileen falta. Orkestra lehiakortasunerako institutuak ohartarazia du: finantzaketa lortzeko orduan euskal enpresak bankuen oso menpekoak dira, eta kapitala handitu eta horren bila ateratzen direnean zailtasun handiak izaten dituzte. Arazoa bereziki larria da familia enpresen kasuan. Horietan ere erreleboa falta da.

Poitsaren tamaina

Maiz gatazka politikoarekin lotu izan da kultura inbertitzailearen gabezia. Baina inor gutxi ukatzen du atzerriko funts horiek sartzeko arrazoi nagusietako bat aurrezki kuxkak desagertzea izan zela, eta, batez ere, Europako Banku Zentralak bankuek enpresetan zuten partaidetza mugatu izana.

Horiek hala, gaur egun, kanpoko funtsen ondoren, Jaurilaritza bihurtu da inbertitzaile nagusia: 400 milioi euroekin. Bi tresna ditu horretarako: bata, SPRIren Arrisku Kapitala (100 milioi) eta, bestea, 2020an martxan jarritako Finkatuz funtsa (300 milioi). Nagusiki teknologia eta energia alorretako tamaina ertain eta txikiko ehun bat enpresatan ditu akzioak, eta hiru handitan: ITP, CAF eta Kaiku. Nafarroako Gobernuak, berriz, Sodenaren bitartez egiten du hori.

Biek beren diruaren zati bat bertako funtsa pribatutan ere badaukate. Adibidez, Artizarra fundazioaren Stellum Capitalen—horko kide dira Teresa Madañariaga Ingeteameko presidentea, Jose Galindez Euskal Enpresarien Zirkuluko burua eta Solarpackeko presidente ohia, eta Ignacio Martín Gamesako presidente ohia—. Funts bakoitzak bere berezitasun eta jardun esparruak dauzka. Beretanoena Talde da: horren buruan dago Jose Maria Zalbidegoitia EAJren EBBko kide ohia eta Merkataritza sailburuorde izandakoa. Beste bat All Iron da, Athleticeko presidente Jon Uriartek sortutakoa. Berri artean Mirai dago, Sidenorreko presidente Jose Antonio Jainagarena. Eta duela aste batzuk, Bidegiñ aurkeztu zuten, Kutzabankek eta Elkargik osatutakoa. Denen artean 1.000 milioi inguruko poitsa bat dute. Kopuru oso txikia da kanpoko funtsak egindako inbertsioekin konparatuta, baina kontuan hartzeko modukoa.

Badago zaku handiagoa bat, BGAE borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeena, 27.000 milioiarena. Askok dute begiz joa, baita Jaurilaritzak ere, eta araudi berri bat prestatzen ari da haien inbertsio gaitasuna alor gehiagotara zabaltzeko, Eskozia, Norvegia eta Kanadako pentsioen funtsen antzera.

Erronka ez da makala. Kanpoko funtsen itzal luzeak eta garrek kultura aldadeta bat ekarri dute, eta, proposamenak gorabehera, ideia bat errotu da sektore ugarian: aurrerantzean ere industria sustraitu bat izateko beharrezkoa izango dela finantza sistema sustraitu bat.



RENAULT

BAKARRIZKETA

Twingo berri bat Gerardentzat

Iker Aranburu

1 Zu ere hasi zara txutxu-mutxu zaharkituekin Gerard Piqueren inguruan? Urte hasierako kontuak dira horiek, motel!

Badakizu, ni zaharruno bat naiz, eta kontu horiei buruz dakidana da dentistara noanean han dauden aldizkarietan disimuluan ikusitakoa. Aste honetan izan dut haginak garbitzeko ordua, eta zain nengoela ikusi nuen *autoa* aldatu zuela Piquek, eta apalago batekin omen dabil orain. Eta barkatu metafora matxista eta baldarra, baina ezin izan nuen eragotzi Bartzelonako jokalaria ohiaz oroitzea Luca de Meo Renaulteko buruak esandakoa irakurri nuenean.

2 Hori ere 'Lecturas'-en? Kar, kar, kar. Ez, egunkari ekonomikoak begiratzeko ordaintzen ditate, eta Bloomberg-en ikusi nuela esango nuke.

3 Eta hor agertzen zen Shakeraren maitea izandakoa? Ez, baina bai Twingoa. R5 eta R4 historikoak berreskuratu zituela jakina zen, baina asteazkenean De Meok iragarri zuen Twingo elektriko berri bat merkaturatuko dutela 2026an.

4 Garai hobea gozatu? Neurri batean, bai. Azken hamarkadetan Europako autogileei lehiakide gogorrak atera zaizkie—japoniarrak hasieran, hego korearrak gero, eta txinatarrak orain—, eta nostalgiaz betetako estrategiarekin erantzutea erabaki du Renaultek.

5 Nostalgia baino zerbait gehiago beharko du txinatarreri aurre egiteko... Bai. Eta Twingo berriaren amua ez da soilik diseinu moñoño bat. Agian hori baino erakargarria-

goa izan daiteke prezioa: 20.000 euro baino gutxiago. Ez daude auto elektriko asko hori baino merkeago; gehien saldu-takoa, Tesla 3 oinarritzkoenak, hori halako bi balio du.

6 Twingo berriak oso autonomia txikia izango du edo, nik zer dakit, paperezko atek... Luxu handirik ez du izango, baina Renaultek ziurtatu du ez dela ezer faltako.

7 Txinan egingo dute, noski. Ez, han egiten du Renault taldeak bere elektriko merkea—

Dacia Sandero—, baina Twingo berria European egingo dute, Eslovaniako Novo Meston ziur aski. Izan ere, Europako Batasuna bere auto industria defendatzeko urratsak egiten hasi da, eta litekeena da Txinatik iristen diren auto elektriko merkeei muga zergak handitzea. Hori bai, De Meok erretorikarekin apaindu du erabakia: «Nire lana Europako industria defendatzea da. Ez baduzu gustuko, joan Txinara edo AEBetara».

8 Eta errentagarria da auto elektriko merkeak European egitea? Oraindik ez, baina hala izan beharko du, gainontzean Europako autogile askok ez baitute etorkizunik. Gidari gehienek ezin dituzte Audiak eta BMWak erosi, eta badirudi beste autogileak azkenean ohartu direla arriskua dagoela auto merkeagoen merkatu osoa Txinako MGren eta BYDren esku uzteko. Neurri batean, bai. Azken hamarkadetan Europako autogileei lehiakide gogorrak atera zaizkie—japoniarrak hasieran, hego korearrak gero, eta txinatarrak orain—, eta nostalgiaz betetako estrategiarekin erantzutea erabaki du Renaultek.

9 Nola, ordea? Kostuak gutxituz eta partekatuz. Horretarako inbertsioak handitu beharko dituzte. Renaultek, esaterako, Ampere izeneko adar elektrikoak sortu du, eta datorren urtean burtsaratuko du, funtsak lortzeko. Nissan eta Mitsubishi aliatuek jada iragarri dute 800 milioi euro jarriko dituztela.



Jainaga Sidenorreko burua Tapia sailburuarekin. LUIS JAUREGIALTZO / FOKU

Aurrerantzean ere industria sustraitu bat izateko, beharrezkoa izango da finantza sistema sustraitu bat

Cecilia Valdez Buenos Aires

Argentinan presidentetzarako hauteskundeen bigarren itzulia egingo dute gaur, eta, boz horien atarian, ziurtasunik eza eta kezka ez ezik, beste sentipen bat ere nagusitu da: betekada erabatekoa. Edonola ere, inoiz bukatuko ez dela dirudien hauteskunde prozesu horrek, herritarrek nekarazi arren, lilura ere piztu du, ezustekoz bete baita bozen prozesu politiko hori.

Abuztuko hauteskunde primarioetan hasi eta orain arte, hiru hilabete luze pasatu dira, eta ia denetik gertatu; horrexegatik, ia inor ez da ausartzen iragarpenak egitera. Galdeketa askok Javier Milei ultraeskuindarra –LLA, Askatasuna Aurrera Doa– jo dute garailatzat, eta iragarri dute Sergio Massa Ekonomia ministro eta hautagai ofizialistak –UxP, Aberrriaren Aldeko Batasuna– baino puntu batzuk gehiago lortuko dituela; hala ere, jokalekua ezin ilunagoa da.

Lehen itzuliko emaitzak ikusita –Massak botoen %36,7 lortu zituen; Mileik, %30–, bi hautagaiak lehian aritu dira bidean geratu eta bigarren itzulira iritsi ez direnen botoak eskuratzeko, baita zalanztanien ere. Lehia horretan, jokoan daude Patricia Bullrich –JxC, Elkarrekin Aldaketaren Alde– lortutako 6,2 milioi botoak, eta litekeena da Massa galduan ateratzea horretan; izan ere, jakina da JxCren boto emaleak peronismoaren eta kirchnerismoaren kontraokoak direla zeharo.

Baina, kontuan hartuta Argentinan azkenaldian izandako lehiarik ezohikoenetako bat dela, Massari mesede egingo dio aurkari duen alderdia ultraeskuinekoa izateak; izan ere, alderdiko buruak, Mileik, ikaratuta dauzka batzuk eta besteak. Horrek azaltzen du, neurri batean, hautagai ofizialistak zergatik segitzen duen lehian eta zergatik duen aukera hurrengo presidentea izateko, ez baita ahaztu behar Ekonomia ministroa dela gaur egun eta haren kudeaketak porrot egin duela argi eta garbi.

Massak lortu du dolarraren balioari eustea –Argentinako ekonomia bi dibisakoa denez, horrek garestitu egiten du ia dena–, baina erregai falda handia dago herrialdeko petrolio enpresa nagusiekin –estatuarena barne– izandako gatazkaren ondorioz, eta horrek buruko min handiak eman dizkio. Jakina da Ekonomia ministroa onik atera dela hainbat ekaitzetatik, eta zelai osoan jokatzeke balio duela, baina ez da bera



Sergio Massa Ekonomia ministro eta hautagai ofizialista, joan den ostegunean, ekitaldi baten ondoren, Buenos Airesen. ENRIQUE GARCIA MEDINA / EFE

Azkenaldiko lehiarik ezohikoenetako bat

Argentinan presidentetzarako bozen bigarren itzulia egingo dute gaur: Massa ofizialistaren eta Milei ultraeskuindarraren artean aukeratuko dute

bakarrik ari jokoan, eta lehen itzuliko garaipenak ilusio handiegia piztu zien haren aliatu hurbilenei.

Hain handia, ezen hautagaia behartua sentitu baitzen abisu ematera, batez ere ikusita azken galdeketa iragarri dutela Milei aurretik dabilela. Massak eta haren kanpainako lantaldeak zain egotea hartu dute estrategiatzat, bestearen hutsegiteek erabaki ditzaten hauteskundeak –hori ohikoa izaten da bigarren itzulian–, baina muga batekin egin dute topo.

Presidentegai ultraeskuindarra eta haren lantaldea esaten ari dira Massa eta haren taldea beldurra- ren kanpaina bat egiten ari direla,

eta kanpaina horri erantzutea hartu dute estrategiatzat. Hala, azken egunetan mezu hau zabaldu dute sare sozialetan: «Lasai: erretiroei bai, osasun publikoari bai, hezkuntza publikoari bai. Zer aldatuko da orduan? Politikariak ordainduko dutela doikuntza». Nolanahi ere, zenbait erantzun egin zioten adierazpen horri, eta datuak eman.

Nicolas Dvoskin ekonomialari eta politologoa, LLako buruzagi Iñaki Gutierrez erantzunez, esan zuen gastu politikoa bakarrik murrizten bada kontuak ez direla ondo aterako; izan ere, ez badute asmorik murrizketak egiteko osasunean, hezkuntzan, diru laguntzetan eta pentsioetan –hala

hitzeman zuten–, aurrekontua %0,03 eta %1,8 artean apaltzea baino ez dute lortuko, zenbaterainoko murrizketak egiten dituzten. Bide batez, Dvoskinek Gutierrez galdetu zion ea nondik aterako dituzten beste 13 puntuak, Mileik hitzeman baitzuen aurrekontu nazionalan %15eko murrizketa egingo zuela, motozerra erabilita. Gainerakoan, LLaren plataformak dioenaren kontra ere bada azken mezu horiek diotena; plataformak dioenez, ordaindu egin beharko dira hezkuntza eta osasuna, nahiz eta alderdiko eledunek nabarmendu duten arlo horien ehuneak ez direla puntu bat ere apalduko. Mileik argi utzi zuen, ordea, bete

egingo duela herrialdea dolarizatzeke promesari, eta itxi egingo duela Banku Zentrala.

Bestetik, lehen itzuliko emaitzen harira, eta Bullrichen eta Mauricio Macri presidente ohiak (2015–2019) Milei modu esplizituan babestu dutela–eta, barne krisia sortu da JxC alderdian. Horrek ondorioak izan ditu, ez bakarrik alderdi barruan, baita ultraeskuinaren sektorean ere. Alde bateko eta besteko astinaldiek agerian utzi dute ezinegon handia dagoela LLako buruzagi batzuen artean, ez baitatoz bat eginiko itunarekin.

JxCkoak LLarekin aliantza bat osatzearen kontra azalduak ziren, baina erabaki dute neutral ager-

Argentinako presidentetzarako hauteskundeak



Javier Milei presidentegai ultraeskuindarra, joan den ostegunean, kanpaina itxierako ekitaldian, Cordoban (Argentina). ARIEL ALEJANDRO CARRERAS / EFE

tzea eta jarraitzaileen esku uztea botoa; Bullrichetik eta Macri, ordea, Mileiren alde bozkatzera deitu dute aho betean. Badirudi Mileiren itzalpeko jokalaria dela Macri, eta, nahiz eta ez duten eman akordioaren inguruko xehetasunik –haren etxean bukatu zuten akordioa osatzen, atek itxita–, pentsatzekoa da Macri berak hartuko duela buruzagitzia Milei presidente izatea lortzen badu. Dena den, presidente ohiak, zeinak oso oспе txarra baitu Buenos Airesko konurbazioako herritarren artean –%80 inguruk dute iritzi hori–, modu diskretuan jokatu du.

Mileiren tonua

Mileik baretu egin du tonua oro har, eta bazter batean utzi du motozerra kanpainaren garai honetan. Hotsandiko adierazpenak ere alde batera utzi ditu, eta hizkera moderatuago baten alde egin.

JxCrekin egindako akordioan, lasaia aritzeko eskatu zieten hari eta haren erreferente nagusiei, Bullrichen aldeko botoak irabazteko helburuz. Gainera, Mileiren estrategia arduradunek ondorioztatu dutenez, kanpainaren amaieran bere onetik aterata ari-tzeak eta rock star baten gisan azaltzeak kalte egin zion botoak lortzeko orduan.

Batzuk lasaitu dira, baina beste batzuk ez: esaterako, Diana Mondino, haren Atzerri ministro izango dena. Mondinorekin gertatutakoa deigarria da; izan ere, desoreka handirik ez izateko aukeratu zuten elledun, baina, egin dituen azken elkarrizketetako batean, organoen merkatuaren alde azaldu da –Mileik baztertu egin behar izan zuen proposamen hori, polemika handia piztu zuela eta–, eta zorriak edukitzearekin konparatu du sexu berekoen ezkontza.

Botoak aldakorrek dira hauteskunde haue- tan, eta badirudi ez dela nagusituko orain arte Argentinako politika interpretatzeko erabili izan den logika; horrek are gehiago nahasi du jendea, eta harriritu utzi batzuk eta besteak. Gobernu ultraeskuindar bat izateko mehatxuak, ordea, Mileiren kontra eta Massaren alde jarraitzen dituzten pertsonaia publiko – eta ez hain publiko– ugari, eta, hain justu, orain dela aste batzuk pentsaezina zen jarrera hori hartuko zutela.

Hauteskunde hauek mugarriztat jotzen dira; are, ezkerreko eta mugimendu sozialeri lotutako zenbait sektorek, hautagai ultraeskuindarraren garaipen posi-

blea mehatxutzat harturik eta presidentegai ofizialista ere begi onez ikusi ez arren, botoa eman beharra sentitu dute, eta botoa ematera deitu beharra, nahiz eta hautagaiarekin guztiz bat etorri ez eta hura oso gogoko izan ez.

Jair Bolsonaro Brasilen, Luiz Inacio da Silva Lula-ren aldeko ezkerreko aliantza bati esker lortu zuten ultraeskuinari galga jar-tzea. Argentinakoa, ordea, ezin da konparatu horrekin; izan ere, PT Langileen Alderdiak, Lularen tal-

Massari mesede egingo dio aurkaria eskuin muturreko izateak; Mileik ikararuta dauzka batzuk eta besteak

Botoak aldakorrek dira, eta badirudi ez dela nagusituko politika interpretatzeko orain arte erabili den logika

de politikoak, ezkerrean ditu erroak, peronismoak ez bezala. Argentinan, ezker trotskistako alderdia, Ezkerrean eta Langileen Frontea –Myriam Bregman da burua–, bosgarren geratu zen lehen itzulian, eta, orain, Mileiren alde ez bozkatzeko deia egin dute kideek, baina, argitu dutenez, horrek ez du esan nahi Massa babes-tuko dutenik politikoki eta bozeta-n. Erabaki horren harira, sekto-

re progresistetako askok kritika-tu egin dute alderdia, boto erabil-garri edo estrategikoaren alde baitaude gehienak.

Alde horretatik, gero eta uga-riagoak dira Mileiren kontra eta batzuetan Massaren alde egiten duten seinaleak. Esaterako, 100 ekonomialarik gutun bat argita- ratu dute Erresuma Batuko *The Guardian* egunkarian, ohar- tarazteko zein arrisksua litzate- keen ultraeskuineko gobernu bat edukitzea; *Nature* aldizkariak ere editorial bat argitaratu du, eta kulturaren, musikan, zientzian eta abarretan aritzen diren Argenti- nako zenbait kolektibok ere per- tsonaia publikok ere komunika- tuak atera dituzte.

Deigarrienak hauek izan dira: *swiftie*-ena –Taylor Swiften jar- raitzaileen komunitatearena–, rollingena –Rolling Stones talde- aren jarraitzaileena– eta otakue- na. Baina, duarik gabe, Mileiren adierazpen batzuek atera dute za- ratarik handiena azken orduetan, futbol taldeak pribatizatze- ko aukeraz aritu baita –Argentinan, erabateko instituziotzat dauzka- te–.

Hori ikusita, futbol entitate bat- zuek arbuioa adierazi dute, eta beldur dira Mileik irabaziko ote duen, hura River eta Boca taldeak pribatizatzeaz aritua baita, bes-

teak beste. Alde horretatik, Mileiren taldekide Victoria Villarruelek esandako hitz batzuek ere eragin handia izan dute kanpainan, hark atea ireki baitio gizateriaren aur- kako krimenak egiteagatik preso dauden genozidei amnistia emateari. Hori gogor arbuia dute as- kok, eta ekintzak ere izan dira. Desagertutako batzuen bilobak egindakoa izan da azpimarraga- rriena: metrora igo zen, berak eta familiak diktaduran bizi izanda- koa kontatzeko eta adierazteko kezkatuta dagoela, litekeena de- lako Milei gobernura iristea eta zapaltzaileak aske geratzea.

Emakumeak eta disidentek

Emakumeak eta disidentek ere funtsezkoak izan dira hauteskun- de prozesu honetan, baita haien botoa ere. Lehen itzulia baino le- hen ere igarri zen hori, eta agerian geratu da emaitzak ikusi ondore- n: Sergio Massak lortutako 36,7 puntuetatik, %45 emakumeen botoak izan ziren, eta %30, gizo- nenak.

Mileiri, ordea, gizon gazteek ematen diote botoa batik bat. Na- gusiki Mileiren proposamenek azaltzen dute hori, askotariko es- kubideak murriztearen aldekoak baitira, eta haietako asko genero agendarekin baitute zerikusia; Massaren kanpainan, ordea, ge- nero kontuak gero eta gehiago ai- patu dira, eta, pixkanaka, esplizi- tu bilakatu dira besteak beste zaintzari, heziketari eta genero arrakalari dagozkien proposame- nak.

Ultraeskuina boterean egoteak dakarren mehatxuaren eta atze- rapenaren kontra, erabakigarriak izan dira bai mikromilitantzia eta bai antolaketa eremu formalago- ak, hala nola emakumeenak eta beste batzuenak.

Massari «boto erabilgarria» ematearen arazoa zera da, botoa –Mileiren– aurkakoa izango dela, eta ez –Massaren– aldekoa. Eta oso egoera zaila da hori, kontuan hartuta herrialdea krisi larrian dagoela eta hautagai ofizialista- ren alde egiteko arrazoiak Mileik dakarren arriskuan oinarritzen direla batez ere, eta ez hainbeste Massak berak pizten duen ilusio- na. Hala ere, askok erabaki dute alde batera uztea beren desioak eta erabateko pragmatismoz jo- katzea, helburu garrantzitsuago baten mesedetan; alegia, Mileik eta haren lagunek ez dezaten lor- tu gobernu osatzea.

Orain, beste galdera bat sortu da: ea oraindik garaiz dauden gal- ga jartzeko eskuinaren erasoari, diktadura osteko Argentinan au- rrez ikusi gabeko oldarraldi bati.

Urriak 22, igandea

Hamasei egun dira gatazka piztu zela. Bizirik nago oraindik. Gaza jadanik ez da Gaza. Bestelako hiri bat da orain. Gaur goizean esnatu, eta behealdera begiratu dut Jabaliako esparruan dudan leihoetik. Dozenaka gizon gazte burubelarrri dabilta aurreko hiru gauean misilek suntsitutako eraikinen hondakinak mugitzen, azpian harrapatutako gorpuak atera nahian, nola edo hala. Jotzen dute 35 bat hilotz daudela han behean. Gure senide hilei dagokienez, oraindik ezin izan ditugu aurkitu nire emaztearen ahizpa Hudaren, haren senar Hatimen eta haien semearen gorpuak, eta zortzi egun igaro dira. Nire emazteak, Hannak, goizero deitzen dit galdezka ea modurik izango den hilotzak aurkitu eta lurperatzeko. Batzuek ehunka metrora aurkitu dituzte senide maiteen gorpuak, eztauden hain dira eta indartsuak. Hannaren ahizparen bigarren semea, Mohamed, handik 70 metrora aurkitu dugu, eraikin baten gainean botata.

Jabaliako gure bizilagun Faraj oso hurbil eduki dugu azken bi asteetan, zoritxar bakoitzean eta dolu bakoitzean lagun. Orain arte, gerrako egun guzti-guztietan, eguzkia atera baino lehen jaiki da Faraj, gu denon egun luzea prestatzeko. Familiari nolabaiteko bizimodu normal bat segurtatzeko esperantziari eutsiko badio –oraintxe posible dugun bizimodurik normalenari, behintzat–, Farajek egun osoa planifikatu behar du xehe-xehe, gerrarako estrategia gisa: alegia, oinarrizko hornigai batzuk eskuratu behintzat.

Garai hauean, eguneko ogia nola lortu, horixe da lehenengo buruhaustea. Izugarri-izugarri zaila da gosaritarako ogia eskuratzeko. Eguerdirako lortu ohi dugu ia beti. Hori jakinik, familia askok haurren bat bidaltzen dute okin-

+

SERIEA

Gazako egunerokoa (6) • Atef Abu Saif Palestinako Aginte Nazionaleko Kultura ministroa eta idazlea da. Urriaren 7an Gazan zen, eta han gelditzea erabaki zuen Israelen eraso hasi zenean. Bertatik idazten ari den egunerokoa BERRIaren esku jarri du, eta egunez egun argitaratuko da.



«Gaza jadanik ez da Gaza»

Testua **Atef Abu Saif**
Itzulpena
BERRIAKO euskara taldea
Ilustrazioa **Eider Eibar**

degira egunsentia baino lehen. Gutxienez bi ordu egon behar izaten dute zain, sari preziatuarekin etxera bueltatu aurretik. Batzuek bost ordu ere itxaron behar izaten dute. Bart, zoritxarrez, ez nuen ogirik batere lortu. Hau dena hasi zenetik, Farajek eta gure familiak batera egin dituzte otorduak, modu komunitarioan. Horregatik pentsatu nuen bart hark ekarriko zuela ogia... eta berak, berriz, nik ekarriko nuela. Nik falafela erosi nuen, eta, gero, etxe parean topo egin nuen harekin; eseri ginen afaltzera, eta lotsatuta geratu ginen, falafel bolak beste-rik ez genuela eta jateko. Auzoko adiskide batek, ordea, Yusif Xaheenek, ogiaz hizketan aditu guri, eta, guk batere ez geneukala konturatuta, emazteari deitu zion segituan, eta galdetu ea apartatuko zituen zati batzuk guretzat. Handik minutu eskas batzuetara, neska jator bat azaldu zitzaigun, bederatziko ogi opil zekartzala guretzat: nahikoa Farajentzat, nire anaia Mohammadentzat, nire

seme Yasserrentzat eta laurontzat. Urteak zirenez Gazan bizi ez nintzela, ahaztua nuen nola dakien hiri honetako jendeak elkarri laguntzen, baita garairik zailetan ere.

Bigarren buruhaustea: nola lortu ur garbia. Edatekoa. Marrubi uraz eta freskagarriez, ahaztu. Edateko bezain garbi egongo den ura, horra espero dezakezun onenari. Gazatarrei aspalditik eteten diete tarteka ur garbiaren hornidura; garairik onenetan ere kutsatuta egoten da. Baina oraingo etena hau erabatekoa da. Prentsaren eraikinean ibili naiz azken hamar egunetan, eta han, ez gutxi eta ez asko: ez dugu uririk. Ertzasko dituz arazoak. Argindarra etenda egoten denez gehienetan, ura eduki arren ezin izaten dugu ponpatu eraikinen sabaian egoten diren ur biltegiak. Horregatik, eraikin gehienetan ez dago uririk. Eta denek ez dute modurik botilako ura erosteko; gerrako lehen egunetan, hamar shekel ere balio zuen botila txiki batek. Jen-

dea, hori ikusirik, umeak bidaltzen hasi zen UNRWArean ur estazioaren inguruan ilara egitera, botilak eta bidoiak han betetzeko.

Ospitaleko ohean etzanda, gorigori, leherketaren beroa oraindik barnean balu bezala, eta ura behar du, hobe ur hotza, eta ahal baliuz ur izoztua, baina non lortu? Prentsaren eraikineri iritsi garenan, botila pare bat utzi dut izozkailuan, eta bost ordu egon naiz zain; hartara, botilaren bat eraman ahalko diot gauean. Ur hotza: jende gehienak ametsetan ere ez duen pribilegio bat.

Halako garaietan arreta handia jarri behar izaten zaion hirugarren gauza: bateria. Egunotan bitxikeria iheskor bat da argindarra Gazako zerrendan, eta esparruetan, berriz, haren arrastorik ere ez dago. Jabaliako esparruan, duela hamahiru egun eduki zuten argindarra azken aldiz. Egunerokoren uztarripean, hamar urtez argindarra etenka edukirik –zortzi orduz bai, zortzi orduz ez–, ze-

rrendako etxe gehienetan egokitzten ikasi dute. Zorte handia dutenek sorgailuak dituzte, baina jende gehiena baterien mende dago; autoen baterien antzekoak dira, argindarra dagoenean kargatzen direnak. Halako bateriak kargatzean, batzuetan argindarra eten egiten da gauez, eta horrek Interneti ere eragiten dio; gainera, ez dute balio sukalde elektrikoak, hozkailuak, irakinontziak eta halakoak martxan jartzeko. Bost ordu ere behar izaten dira halako bateriak kargatzeko. Elektrizitaterik batere ez dagoenean, behar adina diru dutenak batzuetan etxekoren bat bidaltzen dute eguzki energia duen ezagunen baten etxera: bateriak hartuta ilaran itxaron, hura entxufatzeko lekuren bat bilatu, eta zain geratu behar izaten dute, kargatu arte. Etxera iristean baino ezin ditugu kargatu sakelakoak.

Hortaz, normaltasun gutxieneko bat lortzeko, bakoitzak hiru pertsona behar ditu berretzat lanean: bata okindegiko ilaran, beste bat UNRWako ur ponpako ilaran, eta beste bat bateria kargatzeko zain, eguzki plakak dituen eraikinen batean. Zorioneko lan hori egiteko hiru seme-alaba dituen gizona; halakorik ez duenak batetik bestera korrika ibili behar izaten du emaztearekin, eroen pare, apurren batzuk non aurkituko.

Gaur goizean luzeagoak dira bateriak kargatzeko ilarak. Ehunka emakume, gizon eta ume ogia hartzeko zain daude. Wihda kalean, bostehun metro pasatxoko ilara dago Xanti-ren okindegiaren

berria lagun iragarleak**Bestelako Basogintza**www.erreus.eu
690 084 773
ARAMAIO**ONURA FISIOTERAPIA ZENTRUA**

Aita Mari, 42 behea • ZUMAIA • 20.00ak arte irekita • Whasapp: 943-24 54 50



Barne desplazatuak Khan Yuniseko aterpe batean. HATITAHM IMAD / EFE

aurrean, baita Family okindegian ere, Wihda kalea eta Nasser kalea gurutzatzen diren lekuan. Okinen Elkartearen eldun Abdennasser Ajramik dioenez, Israelen misilek eraso egin diete zazpi okindegiri. Bi gau lehenago, berriz, guztiz suntsitu zuten nire arrea Asmaren etxearen ondoko okindegia, *Abu Rabee* izenekoa, eta kanpoan ilaran zeuden gehienak hil zituzten. Hori dena, ni orain Jabalian nabilen lekutik ehunka metro eskasera. Eta okindegieiez ezik, kafetegieie ere erasotzen diete: han janari lasterra ematen diote jendeari, herritar gehienak etxerik gabe dauden honetan, beren sukaldea eskura ez duten honetan. Edonork esango luke israeldarrak jomugarik xumeenetan xumeenen kontra dabiltzala; Al-Ahli ospitaleari ere

eraso diote, eta zenbait elizari ere bai; horrek, jakina, modua ematen die ospe txarra haizatzeko ere: erasoak palestinarrei egotzi, eta kito. Baina, antza, pentsaturik susmagarri samarra suerta litekeela bi ospitaleri erasotzea, orain jomuga txikiagoak eta xumeagoak dituzte: okindegiak, non jendea pazientzia handiz egoten baita ilaran zain, gehien-gehienak umeak, hilko ote dituzten esperan –dela ziztuatan, aireko misil batez, dela mantsoago, goseak jota–, ilarak egunetik egunera luzeagoak direlarik.

Bart, Nuseirateko esparruko merkatuari eraso zioten. Besteak beste, esparruko bi jatetxerik onenak jo zituzten: Jenin Restaurant eta Aqil Restaurant. Gerrako bosgarren egunean Nuseiratan izan nintzen ni, eta sandwich bat

lortu nuen Aqilen. Bart han sandwich bat eskuratzeko ilaran egon zirenak, berriz, hilda daude orain.

Atzo gauean aita konbentzitu nuen bere irrati zaharretako bat utz ziezadan. Izan ere, gau luze-

Gazatarrei aspalditik eteten diete tarteka ur garbiaren hornidura; garairik onenetan ere kutsatuta egoten da

Faraj, Mohammad eta hirurok jolas makabro batean ibiltzen gara, asmatu nahian non izan den eztanda bakoitza

tan, ez argindarrik eta ez Internetik, mundutik deskonektatuta sentitzen naiz. Leherketen eta garrasien hotsa besterik ez dut aditzen, zehazki nondik datorren ja-

kin gabe. Batzuetan, Faraj, Mohammad eta hirurok jolas makabro batean ibiltzen gara, asmatu nahian non izan den eztanda bakoitza, hurbil izan den ala urrun. Pentsatzen dut gazatar gehienak ibili direla jolas horretan azken bi asteetan.

Erremedio bakarra, irrati bat eskura izatea. Eta hara non, gure aitak hiru izan. Familiako erlikiak dira harentzat. Batek 30 urte baino gehiago ditu. Azkenean, amore eman eta bat luzatu dit, gerrakogauetarako. Jende gehiena halako ekipotan mende dago orain albisteen berri izateko. Atzera ere hasi dira halakoak saltzen. Aspaldi zeuden desagertuta irrati dendak, baina, orain, Gazako saltoki askotan ira-

gartzten dute salgai dituztela, eta erakusleihen erdi-erdian jarrita dauzkate. Gau osoa eman dugu irratiaren zarata estatikoarekin borrokan, seinalea garbi harrapatu nahian.

Denborak aurrera egin ahala, ordea, egun bakoitzak du gero eta antz handiagoa bezperakoarena, herenengungoarena; gau bakoitzak dirudi azkena. Gerra honek berak ere azkena dirudi, eta aurrerekoaren antza du aldi berean. Gerran, ezer ez da berri. Esaten zuten, bai, Mohammedek: «Gerran, segur aski, norberak sekula jakin ezin duen hori izaten da gauza berri bakarra: alegia, norberaren azken gerra izatea». Nolanahi dela ere, goizero-goizero esnatzea bada aski notizia niretzat, eta estimatzen dut, estimatzen dudanez.


Gutxienez 80 hildako, Jabaliako errefuxiatu guneari egindako erasoan

Israelgo armadak beste hamabost pertsona hil ditu Khan Yuniseko eraikin bat bonbardatu ondoren • Al-Xifako ospitalea ebakutzen hasi dira, Tel Avivek hala aginduta

Igor Susaeta

Israel berdinzaio. Azken bi asteetan aliatuek ere eskatu diote bere esku dagoena egin dezala Gazako zibilak erasoetatik babesteko, baina atzoz gutxienez hiru bonbardaketa hilgarri egin zituen zerrendan. Biiparraldean, Jabaliako errefuxiatu gunean, NBE Nazio Batuen Erakundearen agentzia baten kudeaketapean dagoen aterpe bihurtutako Al-Fakhoora eskolan eta inguruko eraikin batean; eta hirugarrena hegoaldean, Khan Yuniseko eraikin batean. Gazako iturri ofizialean arabera, iparraldeko erasoek 80 hildako inguru eragin zituzten, eta hegoaldekoak, hamabost. UNRWA Palestinar Iheslarientzako Laguntza eta Lan Bulegoak du aterpearen ardura. Philippe Lazzarini agentzia horren buruak nabarmendu zuen, txio batean, han dozenaka hildako ikus daitezkeen «irudi zigurrak» jaso zituela.

Tamara Alrifai UNRWA erakunde bozeramaile bat da, eta Al-Jazeera Qatarko telebista kateari esan dio jada ez dagoela «leku segururik» Gazan. Urriaren 7an Israeliek Gazaren aurkako setioa hasi zuenetik, 1,5 milioi lagun baino gehiago joan dira Gaza iparraldetik hegoaldera, Tel Aviven ebakutzeko aginduari jarraikiz. UNRWArean eledun horren esanetan, «exodoan» parte hartu ez duten zerrenda iparraldeko «herriar askok» NBEk kudeatutako leku horretara jo zuten, pentsatuz horregatik «segurtasun apur bat



Khan Yuniseko herritar batzuk, atzo, Israeliek hango eraikin bat bonbardatu ondoren. HATHAMIMAD/EFE

gehiago» edukiko zutela. «Baina prezio hori ordaintzen ari dira». Tel Aviv etsaituta dago NBErekin, erakundearen idazkari nagusi Antonio Guterresnek nabarmendu zuelako, duela hiru aste, Gazako miliziek urriaren 7an Israelen kontra egindako erasoak –1.400 pertsona inguru hil zituzten– ez zirela «ezerezetik sortu».

Hain zuzen, NBEko Segurtasun Kontseiluak ostegunean ebazpen bat onartu zuen Israeli eskatuz «eten humanitarioak» egiteko. NBERen Gutunaren arabera, organo horren ebazpenak bete beharrek dira –Tel Avivek 75 urte daramatza halakoei kasurik ez egiten–. Bada, hori egin beha-

rian, Israeliek atzo Gazako ospitalerik handiena, Al-Xifakoa, ebakutzeko agindu zuen. Hala jakinarazi zuten Gazako iturri ofizialek, baita AFP France-Press

Jerusalemen, milaka pertsonak eskatu diote Netanyahu-ri ahalegin handiagoak egiteko bahituak askatzeko

berri agentziako kazetari batek ere. Tel Avivek, ordea, ukatu egin zuen agindu hori eman duela.

Kontuan hartu behar da aurreko asteazkenetik ospitale horren bueltan borrokan ari direla Israelgo armada eta Gazako miliziak. Tel Aviven esanetan, Hamasek ar-

ma eta lehergailu biltegiak ditu erietxe horren azpian, eta horregatik du helburutzat. 2006az geroztik zerrendaren kontrola duen talde islamistak, baina, Israelen bertsioa gezurtatu du. Hori horrela, Al-Xifako langile eta paziente gehienak ospitaletik atera ziren, hango iturriek Al-Jazeerari esan diotenez. Telebista horren webgunean ebakuzioaren lekuko baten hitzak aipatuz kaleratu zuten, ospitaletik atera behar izan zuten «tratu umiliagarria» eman zieten Israelgo soldaduek, eta «emakume asko» biluzarazi zituzten eta haien gorputzak miatu.

Israelgo armadak 16.000 pertsona baino gehiago hil ditu azken 43 egunetan. Gazako iturriek atzo emandako datuen arabera. Gainera, erasoen ondorioz, zerrenda bera txikitzen ari dira. Eta Recep Tayyip Erdogan Turkiako presidentek azpimarratu zuen atzo, hango hedabideek jaso zuten, su eten bat egonez gero ospitaleak, eskolak eta beste azpiegitura batzuk berreraikitzen lagunduko duela Ankarak. EB Europako Batasunarentzat eta AEBentzat ez bezala, Hamas ez da «erakunde terrorista bat» Turkiarentzat, baizik eta askapen mugimendu bat.

Erregaiari baietz

Urriaren 7tik 240 pertsona inguru bahituta dauzka Hamasek, eta horiek askatzeko ahalegin handiagoak egiteko eskatu diote bahituen senideek Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahu-ri, martxa baten bidez. Duela sei egun abiatu zen Tel Avivetik, eta atzo, Jerusalemera heldu zenean, milaka lagunek bat egin zuten mobilizazioarekin. Orain arte, lau lagun utzi ditu aske Hamasek, eta, Israelen arabera, beste biren gorpuak topatu dituzte. Hamas eta Tel Aviv kopuru esanguratsu bat askatzeko negoziatzen ari dira, Qatarren bitartekaritzaarekin.

Bestalde, Ursula von der Leyen Europako Batzordeko presidentea Abdel Fattah al-Sisi Egiptokoarekin batzartu zen atzo Kairon, eta, Bruselako buruak X sare soziala adierazi zuten biak babesten dutela bi estaturen irtenbidea. AEBek ere hori aldarrikatzen dute. Horren gutziaren harira, Etxe Zuriak ohar bat kaleratu zuen atzo X-en, jakinaraziz Israeliek onartu duela Rafahko pasabidetik erregaia eraman ahal izatea Gazara. Tel Avivek betoa ezarria dio erregaia garraiatzeari, argudiatuta hori baliatuko dela Hamasen operazioetarako.

350

SIRIAKO GOBERNUAK ZENBAT PRESORI EMAN DIEN AMNISTIA

Badira dozena bat urte Sirian geran daudela, eta, testuinguru horretan, Baxar al-Assad herrialdeko presidentek amnistia orokor bat ezarri zuen aurreko ostegunean. Horren ondorioz, Sana berri agentziak kaleratu zuen azken egunetan 350 preso aske geratu direla. Datozen egunetan gehiago askatzekoak dira.

Frantziako senatari bati bortxaketa saiakera gotzi diote

PARIS • Horizons alderdiak atzo jakinarazi zuen Joel Guerriau Frantziako senataria kanporatu dutela behin-behinean. «Gertakariak onartezinak dira». Frantziako Asanbleako diputatu Sandrine Josso bortxatzen saiatzea eta hari sexu eraso bat egitea egotzen dio epaile batek. Jossok berak salaketa bat jarri zuen, eta Guerriau asteazkenean atxilotu zuten.



Joel Guerriau. BERRIA

Boakaik Liberiako bozak irabazi dituela onartu du Weahk

MONROVIA • George Weah azken bost urteetan Liberiako presidente izandakoak onartu egin du Joseph Boakai oposizioko burua nagusitu zela presidentetzarako bozen bigarren itzulian, joan den asteartean egindakoetan. Botoen %99,5 zenbatuta, hauteskunde batzordeak herenegun gauean jakinarazi zuen botoen %50,9 bildu zituela Boakaik, eta %49,1 Weahk.

NBEk laguntza eskatu du Afrikako Adarrerako

GENEVA • UNHCR Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandataria ohar bat kaleratu du «berehalako laguntza» eskatuz Afrikako Adarrerako. *El Niño* fenomenoagatik azken hilabetean gertatutako euriteen ondorioz, gutxienez 111 lagun hil dira Afrikako eremu horretan. Nabarmendu dute ehunka komun kaltetuta daudela, eta horrek gaixotasun infekziozkoak zabaltzea ekar dezakeela.

Euskal Hezkuntzaren liburu zurirantz

**Idoia Fernandez,
Hur Gorostiaga
eta Nora Salbotz**

Eusko Ikaskuntzako
Hezkuntza taldeko
zuzendari zientifikoak

Euskal Herriaren erronkei eta kohesio beharrari aurre egiteko asmoz eta jakitez aritu da Eusko Ikaskuntza sortu zenetik. Ehun urte geroago, 2018ko Mendueurren Kongresuan berretsi zen konpromisoa, orduan plazaratutako Oñatiko Adierazpenen eta Euskal Lurraldeen Liburu Zurian. Ordutik hona igarotako lau urteetan, aldaketa giro biziagoan murgilduta gaude. Iraultza teknologikoa, trantsizio eko-soziala eta energetikoa, munduaren berrantolatze geoestrategikoa, migrazio flutuak, balio aldaketak... Abagune nahasi honetan, etorkizunean irauteko hausnarketa zabal eta sakona egin behar du gure herriak.

Euskal lurraldeen eta jendartearen kohesio integrala areagotzeko lanean ari da Eusko Ikaskuntza. Batetik, arloka, euskal lurraldeen berezitasunak aintzat hartzen dituen herri-gogoetak burutuz, aldi berean gure herriaren osotasuna erdigunean jarri. Bestetik, erakundeak, eragileak, adituak eta herritarrek hausnarketara eta auzolana deituz. Horretarako, oraingoan ere, bere balio erantsia eskainiko du Eusko Ikaskuntzak: euskal lurralde guztietan errotutako erakundea da eta Euskal Herri osoan eta osorako herrihausnarketarako guneak sortzeko legitimitatea aitortzen zaio. Izan ere, hainbat eragilek eta egitura instituzionalak dituzten eremu mugatuak gainditzeko aukera du Eusko Ikaskuntzak, eta bere norabidea marrazteko autonomiari eutsiz, elkarlana sustatzeko borondatea adierazi du behin eta berriro.

Lau urte hauetan burututako lan-ketaren emaitzak, etorkizunari begirako proposamenak eta jositako konpromisoak, euskal jendarteari luzatutako hurrengo deian plazaratuko dira, Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan, 2024ko urrian ospatuko dena.

Ziurgabetasun garaian, *egokitzape*-na bilakatu da mantra berria. Marina

Garces filosofoa gogoratuz: malgutak eta plastikotasuna ez dira gauza bera. Etorkizunarekiko jarrera desberdinak daude bi kontzeptu horietan: erabaki ezin dugun etorkizunak ekarriko digun horri egokitu, plastikotasunaren izenean nortasuna galduz behar bada, ala neurri batean gure esku dagoen etorkizuna malgutazenez marraztu, garena eta duguna bidean galdu gabe.

Plastikoa ez den malgutak gartzeko, hezkuntza da gakoa. Hezkuntzan kokatzen da jendartearen dauden ikuskeren arteko solasa, eztabaida eta gatazka: nor nola zer nola irakatsi eta ikasi. Hauen ingurumarian biltzen dira ideologia, kultura, hizkuntzak eta eredu sozioekonomiko desberdinak. Biharko jendarte hezkuntzaren plan datza. Hau dugu, aipatutako lan-keta integrala burutuz, Eusko Ikaskuntza garatzen ari den arlotariko bat.

Euskal Hezkuntzaren Liburu Zuria idazten ari gara elkarrekin eta elkarlanean. Hezkuntzak epe luzera beharko lukeen marko partekatua jasoko duena. Herri-gogoeta zabal hau burutuz, konpromiso kolektiboa indartzea funtsezkoa da guretzat. Horretarako, parte-hartzean oinarritutako prozesua dugu martxan. Diskurtso desberdinak bilduko ditugu, eta identifikatuko ditugun adostasun zabalak hartuko ditugu proposamenak luzatzeko printzipio gidari gisa. Ez du Eusko Ikaskuntzak gaiaren monopolioa. Euskal hezkuntza komunitateak, alderdi, sindikatu eta gizarte eragileak diagnostiko, hausnarketa eta proposamen anitz plazaratu du azkenaldian. Eusko Ikaskuntzak herri-hausnarketa horietan landutakoak solasean jarri nahi ditu, proposamen partekatuetara hel gaitzen.

Hezkuntzarekin lotutako zeharkako gai komunak ditugu euskal lurralde guztietan, horien inguruko gogoeta bultzatzea da gure bide-orri nagusia. Euskal Herria osatzen duten herrialdeak bilduko dituen balizko *hezkuntza sistema-eremu* baten oinarriak irudikatzen bideak eskainiko dituen. Hezkuntzaren kohesioa ekarriko du euskal lurralde eta jendartearen trinkotzea. Hezkuntza arloan proposamen eraldatzaileak eta berauek gaitzetzeko baldintzak sor daitezke azterketa sakon eta partekatua burutzea ezinbestekoa den moduan, egitura instituzionalak aintzat hartzea eta sendotzea beharrezkoa da. Izan ere,

proposamen egingarriak luzatu nahi ditugu, politika publikoetara eta gizaririk gizartera helduko diren proposamen eraginkorrak.

2021eko irailean bildutako *100 zuzigileen* foroarekin eman genion hasiera ibilbideari. Bidean jasotako azpimarrak gidari gisa hartuta, jauzi kualitatiboa eman nahi dugu hasi berri dugun fasean. Euskal-hezkuntzagintzari ezagutzaren sistematizazioa eta zorrotasun metodologikoa gehitu nahi diogu, aurrekaririk ez duen Euskal Herri mailako ariketa kolektibo honekin. Eta kohesioa praktikan erakitzen delako, hezkuntza-etapa bakoitzeko praktikara jaitsiko gara ekimen kohesionatzaileak lantzeko eta sistematizatzeko. Batetik, euskara eta euskal kultura ardatz izan nahi dituen sistema baten ikuspegitik eta lurraldetasunaren zatiketa gaindituz, berriazko etapen eztabaida ardaztuak burutuko ditugu (*Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa; Lanbide Heziketa; Unibertsitatea-Goi Maila*); eta bestetik, etapa guztiek osatzen duten ekosistema trinkotzeko ezinbestekoak diren egiturazko zehar-lerroen definizio partekatua garatuko dugu.

Hezkuntza-etapetako lau talde iraunkor osatu ditugu, lurralde guztietako aditu-arituek eta eragile anitz elkartuta. Proposamen kohesioatzaileak lantzeko ardatzak jaso ditugu eta prest gaude hurrengo bultzadari ekiteko. Hezkuntza komunitateetik harago, gaiarekiko kezka partekatzen duten aditu-aritu, eragile, erakunde eta herritarren ekarpenak biltzeko asmoa dugu. Esan bezala, ekarpen eta proposamen horien haririk jositako (eta josi beharreko) konpromisoak 2024ko urriko Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan plazaratuko ditugu. *Elkartzen gaituena* lelopean, kongresuak Euskal Herriko kohesiorako proposamenak eta itun berrietarako bideak eskainiko ditu. Gaurtik ordua arteko bidean sortuko direnak partekatzen joango gara: edukiak kontrastatuz, indarrak metatuz.

OHARRA: Artikulu hau Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza talde osoak sinatzen du: goian ageri diren hiruzet gain, Beatriz Akizu, Nekane Altzelaia, Jose Manuel Bujanda, Maialen Idoate-Pery, Maite Larrañaga, Alba Madinabeitia, Gemma Zabaleta eta Mario Zubiaga.

Pornoaren alde

Iragarkian gizon bat, soin hutsik, ohe baten ertzean eserita, porno aktorea dela esanez, eta guraso diren ikusleei ohartzaraz beren semea menderatze sexualerako teknikak eta alabari menderatua nola izan irakasten ari dela. Jarraian, izaren azpian, sakelakoak aurpegia argituta, balizko semea



JIRA
Angel Erro

ikusten dugu, garai batean neu ere gurasoen ezkurtuan linterna batez nobelak irakurtzen edo modu klandestinoan lortutako aldizkari pornoak arakatzan nituen jarrera berean.

Argi dut iragarki beharrezkoa dela, ez hainbeste nori zuzendua. Gurasoenean ikusten nuen pornoan ez zitzaizkien emakumeei jazarzen, eta agertu ere apenas agertzen ziren. Halere, iragarkiak pornoa aipatzen du, gaitzespena orokortuta. Porno feminista eta post-pornoa ere badaude, baina agian haiek ere ez dira gurasoentzat lasaigarri. Maioritaria beste dela badakit, emakumea menpeko betikotzen duena. Errua pornoarena da? Eta konponbidea zein?

Guraso bat baino gehiago irudikatzen dut kampainarekin ados dagoena, eta sakelakoaren erabilera 16 urtetik beherakoei debekatu edo murriztearen kampainaren osagarritzat hartuko duena. Berdin ados egonen zen *Black Friday* delakoan online erostu gertuko negozioak akabatzen ari direla gogoratuko liokeen batekin?

Hurrengora arte

Ez zaizkit despedidak gustatzen, baina psikologoak esaten zidan inportantea dela zirkuluak ixtea. Ezin dugula beti aurrera eta aurrera egin, alegia. Agur esateak ere behar du bere errituala. Edadeak irakatsi dit agurrak pausa handiz egiten, eta neure buruari sinetsarazten amaitzen diren gauzak



BIRA
Onintza Enbeita

amaitu egin behar dutelako amaitzen direla. Ezin baitugu ezer berririk hasi esku artean gure hori amaitu gabe. Horrek ez du errazten joan zozazen edo beste joan doan momentua. Harreman bat amaitzen dugunean, horren beharra izaten dugunean ere, hutsune bat gelditzen da. Lan bat amaitzen dugunean egunero ikusi izan dugun jende asko da gerora maiztasunez ikusiko ez duguna. Herriko jaiak amaitzen direnean konturatzen gara gutxiago falta dela datorren urtekoetarako. Bertso txapelketa bat amaitzen den aldirio pentsatzen dugu amaitu dela zikloa, nahiz eta jakin agian itzuli egingo zarela.

Gaur ere zerbait amaitzen zait. Hutsunea geldituko zait, eta, urrutetik bada ere, egunero agurtu dudun jende ezingo dut halako maiztasunez agurtu, eta deskantsua ondo etorriko zaidala pentsatzen dut nahiz eta ez jakin noiz arte iraungo duen. Mila esker, irakurle, urte hauetan guztietan nik hau egiteari zentzua eman diozulako. Mila esker, BERRIA, leihoak ireki dizkidazulako. Plazan elkartzen jarraituko dugu!

De Rerum Natura

@zaldieroa



Azeria


HITZ ETZANAK
Andoni Egaña

Ez dakit egia den. Ezin du izan. Eta, aldi berean, izan daiteke. Irrati nahiz telebista hitz-aspertuetan bat baino gehiagori entzun diot.

Ultraeskuina zeinen haixetua dabilen ikusita, Carles Puigdemontentzat bizkartzain zerbitzua eskatu omen dute. Erraza bailitzateke edozein garungabemententzat Belgikara joan, itxaronaldi bat egin, eta gatiluari eragitea. Aipatzen duten hori hala

balitz, paradoxa begi bistakoa litzateke. Ihesera derrigortu duen Estatu berak eman behar lioke babesa iheslariari. Ultrentzat erabat gaitzesgarria. Beste zenbaitentzat arriskua galanta. Estatu espainiarraren aurrekariak aintzat hartuta, azeria oilategian sartzea. Ez nintzateke gehiegi fidatuko balizko zerbitzua horretarako boluntario aurkezten den poliziaz...

Era hortako paradoxak ez dira, ordea, berriak. Duela bi mende

pasa ere ematen ziren. Felix María de Samaniego fabulagile ezagunak bertso erotikoak ere idatzi zituen: *El jardín de Venus*. Garai hartako inkisizioak ez zion barkatu. Baina Samaniego ez zen edonor. Azkoitiko *caballerito* haietakoa zen, eta, gainera, Peñaflores Kondearen iloba. Kartze-lan sartzea gehitxo iritzita, Portugalteko monja konbentu batean konfinatu zuten. Azeria oilategian. Zeldu bat itxea aski, irudimenera atek irekitzeko.

HIZPIDEAK

Haurtzaroak

Arantxa Elizegi Egilegor @aelizegi

Haurtzaroaren Nazioarteko Eguna omen biharkoa, azaroaren 20a. Haurren Eskubideen Nazioarteko Ituna sinatu zen eguna seinatzeko izendatu zen modu horretara. Baina okertu ziren. Singularrean jarri zioten izena, pluralean behar zue-nean. Ez baitago haurtzaro bat, haurtzaroak daude, haurra bera bizi den tokiak eta garaiak baldintzatutakoak. Eskubideak ere paperean guztientzat berdinak izan arren, guztientzat berdin gauzatzen ez diren moduan.

Ez dute haurtzaro bera izango Frantzia jaio eta frantsesez ikasteko eskola eraikinak non-nahi dituen haurrak, edota Beskoitzen (Lapurdi) bizi eta klaseak euskaraz jasotzearen ikasturtea eraikin prefabrikatu batean igaro behar dituenak, nahiz eta bi-biek izan eskolatuak izateko eskubidea. Hori salatzen elkartu ziren atzo 2.500 lagun Ipar Euskal Herrian. Hamar urte dira Beskoitzeko ikastola sortu zela, guraso baten etxean lehenik, eta lur publikoan ezarritako prefabrikatuaren ondoren. Baina hor gerarazi dizkiete urratsak euren seme-alabak euskaraz hezi nahi dituzten gurasoei. Izan ere, herriko etxeak ukatu egin die ikastolarentzako eraikin bat egiteko baimena. Hala, neguan hotz eta udan bero diren prefabrikatuetara mugatu nahi dituzte 52 ikasleak, nahiz eta haien ere bestek adina eskubide izan baldintza duinetan ikasteko. Beti izango da, noski, okerrago dagoenik, baina horrek ez luke aitzakia izan behar gaizki daudenen egoera ez hobetzeko.

Pablo eta Pablo

Maite du telebista egiteko era batek kartzelatuaren azpigeneroa. Horretarako, baina, erantzi behar zaio zikin sozial oro eta, baldin-baitere, politika arrasto txikiena. Bere gordinean nahi da krimena, pertsona piztia bilakatzen delarik obratzen den hori, morborako bide ematen duen horixe, are hobeto sexu poxi bat bada tartean. Orduan pizten dira fokua.

Bidasoa hegoaldera, Daniel Sancho espainiarrarena dugu, nahi gabe ere, etxeraino sartu dituden kasua. Bi maitale Thailandian eta gorpu bat hamalau zati eginda. Orduak eta orduak itzulira ulka hedabideak, baita bertokoak ere, ikuskizuna moldatu-


LARREPETT
Iñigo Aranbarri

rik, justizia sistema arrotz baten biktima gisa aurkezteko hiltzailea. Ze kartzelak hangoak! Gai-xoa familia! Egon zaitez horien esku! Hiltzailea ez da, baina, edozein. Aktore ezaguna du aita, aktore ezagunagoa aitona.

Gatozen etxera eta moteldu argiak. Kendu sexua, gorde harakin ganibetak, eutsi familia ezagunari zein justizia arrotzari eta erantsi epai okerraren susmoa. Ez da egongo presorik Pablo Ibarrek bezainbeste ordu izan duenik euskal komunikabideetan bidegabeki kartzelaturik dagoela azaltzeko. Erabateko babes instituzionala eman zaio. Hala litzateke beste batzuk balitu abizenak Floridako presoak?

Seguru asko, Pablok ez du Pa-

blo ezagutzen. Izan ere, Pablo Gonzalez deus gutxi du alde defentsa mediatiko masiboa antolatzea. Ez dago hildakorik tartean, ez du familia pedigirik eta errematerako, exotismoa ez Europako Batasuneko espetxeetan. Sortzetikoa du bekatua, errusieraz daki eta, aizue, non dago Nabarniz? Erantsi gerra egoeran atxilotu dutela kazetaria, gaiztoen alde espioitzan aritzegatik, poloniar zerbitzua sekretuek esatera. Ez da batere frogarik aurkeztu baina bi urte beteko ditu barruan epaiketa egiteko. Epel fokua, hutsa du geriza ofiziala.

Galdera berez dator: nork bideratzen dizkigu simpatiak? Eta zeren arabera?

Zuzendaria: Amagoia Mujika Tolaretxipi **Zuzendariordea:** Eider Goenaga Lizaso
Edizio arduraduna: Idurre Lazkano **Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM **Publizitatea:** Bidera publizitatea
Lege gordailua: SS-0662/03 **Batzorde parekidea:** 0722 | 84059 **Egoitza nagusia:** Martin Ugalde kultur parkea, Gudariaren Etorbidea, z/g. 20140 Andoain **Telefonoa:** (0034) 943-30 40 30 **Faxa:** (0034) 943-59 01 72
Webgunea: www.berria.eus **Posta elektronikoa:** berria@berria.eus **Publizitatea:** publi@bidera.eus
Harpidetza saila: (0034) 943-30 43 45 **Date:** 19/11/2023 **Exemplaire:** 6.341 **Editur:** Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication: Amagoia Mujika Tolaretxipi **Comission paritaire:** 0924 C 84059

Delegation Labour: Lisses 3, 64100-Baiona, Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.eus **Ordezkaritzak:** **Araba:** Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Posta elektronikoa: araba@berria.eus **Bizkaia:** Urbitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.eus
Lapurdi: Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.eus. **Nafarroa:** Irabeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.eus.

Haren amets bete gabeak gogoan

Bizkaiko itsasoa handia da. Kostaldetik eskuintarantz, Frantziako Britainiaraino heltzen da. Eta ezkerretarantz, Espainiako Galizian amaitzen da. Bi puntu horien arteko itsasoa ingelesek Bizkaiko Golkoa deitzen dute. Eta izen hori mundu guztian zabaldua da. Euskaldunok nola deitzen dugu gure itsasoa? Nik dakidala, herriak ez dio aparteko izenik ematen. *Gure mandako itsasoa* deitzen dute bermeotarrek. Horregatik, izen berri bat ematekotan, Bizkaiko Itsasoa eman behar genioke, eta ez, euskal idazle gehienek egiten duten bezala, Kantauri Itsasoa».

Imanol Berriatuaren hitzak dira, Bilbon, 1962.eko irailaren 5ean, *Anaitasuna* aldizkarirako sinatuak. Hitzok idatzi zituenak, berak aipaturik diren bermeotarrekin jardun zuen. 1956 eta 1965 urte tarteko *Dakarreko kanpainak* iritzi zitzaizen haietan hain zuen. *Anaitasuna* hartantxe eman zituen itsasote haien berri idazleak. Izatez ere bera zen pentsalari independentearen senaz, bizipenak ez ezik, hausnarketak ere plazaratu zituen.

«Aintzina egitada haundiak egin zituzten [idatzi zuen Freetwonen, 1963.eko urtarrilaren 24an], Ternua aldera baleatan

joaten ziren euskaldun arrantzaleak. Gaur egunetan beste horrenbeste edo gehiago egiten ari dira, Mendebaldeko Afrikara atunetan



BEGIAK LAU
Edorta Jimenez

datozenak. Gauza guztiz egokia izango litzateke, norbaitek hemengo arrantzaleen historia inoiz egingo balu».

Ez dut uste historia hori egin denik. Egin da bai haiei buruzko kontakizunik, gehienetan zenbat ontzi, noiz abiatuak eta noiz itzuliak, zenbat tona harrapatuak, eta halako estatistikak aipatuz oro har. Haatik, egin gabe dirau Imanol Berriatuak aldarrikatu zuen historia. Horren ordeztu dugu, estatistikekin behin edo behin tartekaturik, horren premiatik salbatzen gaituen *gure arrantzaleak* sintagma magikoa. Norenak? Itsasoko langileak ziren, eta inondik ere ez ezpletarioak hain zuten. Imanol Berriatuak berak ere izen sintagma horretara jo bazuen ere, ez dut uste paternalismoz egin zuenik.

«Gure arrantzontziak txikiak dira hemengo klimarako [urtarrilaren 12an Freetwonen]. Bero larregi egiten du hemen. Gure barkuak ez dira itsaso hauetan ibiltzeko erosoak (...) ezin da ondo lorik

egin gure etzangeletan. Eta hala ere hona datoz gure arrantzaleak (...) Hortaz gainera, gure ontzietan gauza guztiz gaitza da garbitasuna. Beti lanean, beti atun odol artean, ur geza eskas. Horrela, soinekoak ezin garbi eduki. Eta, inoiz garbi daukagunean, beti tximurrez beterik».

Fraidea zen aldetik, behin, arrantzaleekin bizi izandakoak Bermeoko frantziskotarren pulpitutik salatu zituen. Behin baino ez. Ez zioten bitan hala egiteko biderik eman. Are, *Anaitasuna* aldizkariaren zenbaki bakoitzeko ehun ale hartzen ziren herri batean, ez zuen izenik eman, bat bera ere ez hartzera igaro ziren.

Anaitasuna-ren bilduma hemerrotekan dago, zorionez, euskarak hari zor dionaren lekuko. Zor horren zati bat Imanol Berriatuarekikoa da. Euskara batuaren ametsa Dakarreko urteetan umotu zitzaion, hain segur.

«Hor, Euskal Herrian [idatzi zuen Kanarietan, 1961.eko martxoaren 4an], aspalditik dabilta jakintsuak euskararen batasuna bilatzen. Datozela Dakarrera, eta ikus dezatela nola egin duten zorieko batasun hori bertoko euskaldun arrantzaleak, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Lapurdikoak. Nik neuk zirkunferentzia txiki bat egingo nuke Euskal Herriko mapan. Barruan sartuko nituzke Donibane Lohizune, Sara, Elizondo, Bera, Oihartzun, Errenteria eta Pasaia, eta bertan bilatuko nuke, beste inora joan gabe, euskararen batasuna».

Urte hartan Donibane Lohizuneko 24 ontzi zebiltzan Dakarren arrantzan. Hirurehun eta berrogei gizon, gutxi gorabehera. «Harreman handia daukagu bermeotarrok beraiekin», idatzi zuen.

Euskararekiko kezka, Imanolen kezka nagusia zen, kristautasunarenarekin batera. Halaxe ageri da Dakarreko urte haietan idatzitakoekin paratu zuen *Itsasoa eta ni* liburuan. Horren barruan datozenen artean gogoan hartzekoa da, halaxe hartzen dut nik neuk, hark garbizaletasunari buruz eginiko gogoeta erabatekoa. Nola ez izan kezka hori, ustez euskara lohia edo zikina egiten zuten haien artean.

Ohi legez *Anaitasuna*-rako idatzi zuen orrian, 1961eko irailaren 24an, Euskal Akademiak bere laguntzaile hartu zuela zioen, eta horren harira eskerrak eman zizkien «euskaltzale jakintsuei, batez ere Federiko Krutwig jaunari». Eskerren motiboa?

«Orain hamar urte direla, euskaragarbizale nintzen ni. Sasoia hartan, Krutwig akademikoa ezagutu nuen Bilbon, eta jaun honek egiazko bidera ekarri ninduen. Berak erakutsi zidan, euskara ez dela aingeruen berbeta, haragi eta hezurreko gizonena baizik; ez izarretakoa, mundukoa baizik; ez laborategian egina,



kaleko gizonak erabiltzen duena baizik. Berak erakutsi zidan, euskarak, bizi gura badu, eurrez eta beldur barik erbesteko hitzak hartu behar dituela, munduko hizkuntza guztien antzera. Ordurarte, ni euskara garbiaren esklabu nintzen».

Esker onekoan artean Imanolek Bermeoko arrantzaleak aipatu zituen; «euskara bizi irakatsi didatelako».

Imanol Berriatua Palestinan hil zen, Jerusalem hain zuzen, 1981eko irailaren 15ean, hebreera hobetzen ari zela. Ez zuen nahi izan gorpua sorterrira ekar zezaten.

Bada, 2023ko urri madarikatu honetan, Oi! Palestina, Oi! Jerusalem, Bermeoko arrantzale ohien euskaraz gozatzen dudana berean egiten dit bihotzak negar, haren amets bete gabeak gogoan.

Euskal Hezkuntza Legea, digitalizazio estrategiarik gabe

Unai Artabe Olea Irakaslea

Azken garaiotan, askotariko esparrutan terminorik erabiliena aukeratu beharko balitz, digitalizazioa litzateke. Enpresa boteretsuenetik herriko denda apalenera; kulturatik osasunera; epailetzatik segurtasunera; zientziazatik ingurumenaren defentsara; baita etxeetatik ikasgeletara ere. Ezinezkoa da etorkizuna planteatzea, digitalizazioaren ideia jo gabe. Kontzientzia orokorra da: digitalizazioa ongi zatea, aurrerapena eta modernitatea da. Are gehiago: gizartea noiz, nola eta zenbat digitalizatu den, horrek biziraupena bera ere baldintzatuko du.

Dena erausten duen *mainstream* pentsabide honek hausnarketa eraman beharko gintuzketen albo-ondorioak ezaldu ditu. Digitalizazioak aukerak irekitzen dituen arren, argi dago pareko mehatxuak dakartzela. Hezkuntzan, esaterako, duela hamarkada bat –hezkuntzaren digitalizazioa dogma eztabaidaezina bihurtu zen arao– adituek digitalizazioaren arriskuak aurreikusi zituzten. Koronabirusak eragindako berrogeialdiak, aldiz, zemaik guztiz mozturrotu zituen. IKT informazioaren eta komunikazioaren teknologien gorazarre garaia hasia zen; izan ere, teknologia berriei esker ikasleek klaseak etxetik jarraitzeko aukera izan zuten. Baina pantaila bidezko jarraipenak bermatu al zituen ikasleek lortu beharreko oinarrizko jakintzak? Sasoian, Hezkuntza Saileretik ikastetxeetara bidalitako jarraibideen arabera, ikasturte berriko lehen ebaluzioaren hasieran –aurrez aurreko klaseetan– pandemia garaiko edukiak berriz errepikatu beharko ziren. Beraz, eraginkorra izan zen pantaila bidezko ikas-irakaskuntza?

Ordutik, IKTak nahitaezkoak bihurtu dira hezkuntzan. Administrazio eta gobernu guztiak –hasi Europakoetatik eta toki-koetara– funts publikoen kopuru izugarria bideratzen ari dira hezkuntzaren digitalizatorako. 2022-2024 urte aldirako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planaren arabera 202,6 milioi euroko inbertsioa bideratuko da «ikasleekin irakasleekin gaitasun digitalak» sustatzeko. Besteak beste, CompDigEdu irakasleekin kompetentzia digitalaren prestakuntza, Europako Batasunaren Next Generation funtsak finantzatuta. Eraldaketa planak ikastetxeak teknologia digitalez hornituko ditu «kalitatezko prestakuntza-prozesua eta bikaintasuneko ikerketa errazteko». Plan honen arabera, ikasgela eta espazio digitalizatuak diseinatuko dira Lehen Hezkuntzako 1. mailatik hasita; hots, 6 urtetik aurrera geletan pantaila bidezko ikaskuntza eskainiko da.

Suediako Gobernuak pantailak hezkuntzan erabiltzearen inguruan harturiko erabakiak lerroburu ugari hartu ditu azken hilabeteetan. Hori dela eta, eztabaida guraso elkarteetara ere iritsi da. Suediako azken PIRLS probetan ikasleekin ulermen mailaren beherakada agerian geratu ondoren, gobernuak 2022ko maiatzean hezkuntzarako aurkeztutako estrategia digitala ezbaian jarri du. Suediako Hezkuntza ministroak, Lotta Edholmek, adituei eskatu die Eskoletako Hezkuntza Nazionalaren Digitalizazio Plana azter dezaten. Edholm kritikoa da pantailen erabilerrari dagokionez; onartu duenez, «digitalizazioa oso ona izan daiteke ikasleentzat, baina zentzuz erabili behar da». Bestalde, Suediako Gobernuaren asmoa geletan liburu gehiago egotea denez, aurtun 60 milioi euro inbertituko ditu material didaktikoa erosteko, eta beste 44 milioi ikasleekin hizkuntzaren garapena, irakurketa eta idazketa indartzeko.

Digitalizazioak ikaskuntza-prozesuan duen eraginari buruz egindako txostenek,

onuz gain, ohar argiak ere badituzte: pazientzia eta irimotasun gutxiago, kontzentrazioerik eza, ikuspegi kritikorik eza, irakurmena okerragotzea, testu konplexuak edo arrazoituak egiteko zailtasuna, urritasun lexikoa, erantzumen sinplifikazioa –test motako galdetegiaren unibertsalizazioaren emaitza–, azalkeariara jotzen duen pentsamenduan fiabarduririk ez izatea, papera –liburua edo koadernoak–, boligrafoa, arkatza, arbel edo klariona erazte...

Euskal Hezkuntza Lege proiektu berriak ez du digitalizazio estrategiarik jasosten. Proiektuak digitalizazioari dagokionez adierazten duen gauza bakarra

zera da: ikasleak zenbat eta lehenago digitalizatu hobe dela, «konpetenteago egiten dituelako». Halako baieztapenen aurrean kritikoa azaldu da Catherine L'Ecuyer, Hezkuntza eta Psikologiako doktorea. L'Ecuyeren ustez, «gaur egun ez dago gailuen erabilera ikasle konpetenteagoa izango dela bermatzen duen inolako ebidentziarik».

Ikasgeletako nabarmenkeria teknologikoak ondorio fisiko eta psikologiko kaltegarriak ditu: sedentarisismoa, obesitatea, logabezia, ikusmen arazoak, edo izaera suminkor eta mukerra sustatzea. Beste batzuk are kezagarriagoak dira: ziberjazarpena irits daitekeen agresibitatea, esaterako, ikasgeletan gertatzen den fenomeno, eta, kasurik muturrekoenatan, ahulenen edo desberdinen aurkako indarkeria eragiten duena. Eta oldarkortasun horren atzean, gazteen artean beren buruaz beste egiteko ahaleginak daude. Zentroetako arduradunek giza baliabide eta baliabide ekonomiko gehiago eskatzen dituzte, gero eta handiagoa den olatuari aurre egiteko.

Digitalizatzea ez da ikasgela chromebook-ek, arbel digitalez eta ordenagailuz betetzea. Digitalizatzea ez da IKTak hezkuntzaren oinarri bilakatzea. Digitalizatzea ez da irakasle jarduna aplikazioekin itotzea. Digitalizatzea ez da hezkuntza Google-ren esku uztea. Hortaz, alderdi politikoek jar dezatela arreta onartzearen dagoen EAEko Hezkuntza Lege proiektuan.

Digitalizazioa hezkuntzaren funtzio sozialarekin lerrotatuta egon dadin, lege berriak digitalizazio prozesuaren norabidea zehaztuko duten hastapenak, balioak eta mugak ezarri behar ditu. Edozein digitalizazio eredu onargarria ez delako, hezkuntza sistema ezin delako digitalizatu multinazionalen eskutik, Hezkuntza Legeak ikastetxeetako ume, gazte eta langileen eskubideak bermatzeko, estrategia digital argia eta zehatza jaso behar du.

Digitalizatzea ez da ikasgela chromebook-ek, arbel digitalez eta ordenagailuz betetzea. Digitalizatzea ez da IKTak hezkuntzaren oinarri bilakatzea. Digitalizatzea ez da irakasle jarduna aplikazioekin itotzea. Digitalizatzea ez da hezkuntza Google-ren esku uztea

ZUZENDARIARI

Altsasuko alkate Javier Ollori

Sakana Trenaren Alde plataformak, Javier Ollori, Altsasuko alkateari, SakanaTik igaro nahi den AHT abiadura handiko trenaren inguruan egindako adierazpenei erantzun nahi die. Behin baino gehiagotan Altsasuk geltoki bat izatearen ideia planteatu izan du alkateak, nahiz

eta faltsukeria dela jakin izan. Hala Ezkio nola Gasteizko alternatiben diseinua definitu du, non helburua bi hiriak lotzea den, besterik ez. Non planteatzen du ba Ollori jaunak geltokia? Urbasa magalean, zuhaitzen artean? Hortik baita ibilbidea.

AHTak eragina izango duen herrien iritzia kontuan hartu behar zela ere azaldu

izan du Ollori jaunak. Ez al da nahikoa, Altsasuk izan ezik, azpiegitura honi bailarako udalerririk ez emandako ezezkoa? Edozein kasutan, ez duzu Altsasuko jendartea kontsultatu auzi honen inguruan. Hortaz, altsasuarrei honen inguruan galdetzea eskatzen dizugu eta, noski, emaitza onartzea.

Ollori jaunak, benetan altsasuarren interesen alde jokatu nahi baduzu, eta ez soilik zurean, alternatiba babestera gonbidatzen zaitugu (tren mota guztiarentzat trenbide sarearen egokitzapena eta hobekuntza planteatzen du). Eta martxan jarri nahi den proiektua ukatzera; herriaren isolamendua, ingurumenaren hondamendia eta egungo tren azpiegituren hondatzea besterik ez baitu ekarriko.

Asier Oleaga Mateo.

Sakana Trenaren Alde plataformako kidea



BERRIA irakurleen eskutitik plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteko barne, eta **BERRIA** mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitza Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.eus

Gaurkoak baino ez du axola

Jokin Altunak eta Peio Etxeberriak Lau eta Erdiko Txapelketako finala jokatu dute gaur, Bilbon, Bizkaia frontoian (17:00, ETB1) • Amezketarrak zortzigarren finala du jarraian; zenoztarrak, lehena

Julen Etxeberria

Bata, inoiz ez bezala sufrirituz; bestea, ordea, inoiz ez bezala gozatu. Horrela ailegatu dira Jokin Altuna (Amezketak, Gipuzkoa, 1996) eta Peio Etxeberria (Zenotz, Nafarroa, 1998) Lau eta Erdiko Txapelketako finalera. Baina bost axola horrek guztiak gaur. Arratsaldeko seietatik aurrera Bilboko Bizkaia frontoian gertatzen denak bakarrik du garrantzia. Aurretik ondo edo gaizki aritu izanak ez, egun erabakigarria eta toki jakinean ondo aritzeak zehaztuko du nork irabaziko duen txapela. Ez dago besterik. Halaxe dio kirol legeak.

Hauxe ere badio: palmaresak ez duela partidarik irabazten. Bestela, Altuna III.ak seguru luke txapela. Amezketarrak Lehen Mailako hamahirugarren finala jokatu du; bere adineko inork baino gehiago: 27 urte ditu. Sei txapel irabazi ditu: hiru lau eta erdikoan, bi buruz buru, eta bat binaka. Hiru modalitateetan txapeldu izan diren zortzi pilotarietako bat da. Zortzigarrenez ariko da lau eta erdiko finalean, Patxi Eugi, Aimar Olaizola eta Juan Martinez de Irujo bezala. Baina hark lehenago egin du, eta ikusgarriagoa dena: bata bestearen atzetik jokatu du zortzi finalak.

Horrelako datu ikaragarriak txiki-txiki uzten dute edozer eta edonor; adibidez, Peio Etxeberria bera. Hark aurreneko finala du Lehen Mailan. Eskarmentuak zeresana izan dezake, baina ez da inolaz ere erabakigarria. Aitor Elordik aurten binakakoan eta



Jokin Altuna eta Peio Etxeberria, joan den ostegunean, Bizkaia frontoian eginiko pilota aukeraketan. MARISOL RAMIREZ / FOKU

buruz burukoan egindakoa da horren adibiderik argiena: aurreneko bi finalak zituen maila nagusian, eta biak irabazi zituen.

Ez dute ezertarako balio aurretik elkarren kontra jokatuako partidek ere. Peio Etxeberriarentzat litzateke txapela horiek aintzat hartuz gero. Bost aldiz neurtu dituzte indarrak lau eta erdikoan, eta hark hirutan irabazi du, elka-

rren aurka jokatuak azkeneko hiruretan, hain zuzen: 2021ean, final-laurdenetako ligaxkan irabazi zion; eta iaz, berriro ligaxkan, eta sanferminetako torneoko final-laurdenetan. «Nik ez ditut erreferentzia moduan hartzen partidak horiek. Igandekoak, gainera, ez du inolako antzik elkarren aurka jokatuak guztiakin: final bat da», azaldu du Peio Etxeberriak. Iritzi

bera dauka Altuna III.ak, baina haren ustez, aurrekari horiek Peio Etxeberriari balio diote «bere burua konbentzitzeko» aukera dela hari irabazteko.

Zerbaitek erabaki badezake finala, bakoitzaren sasoiak erabaki dezake. Aldea dago horretan. Altuna III.ak denbora darama ezker sorbaldako minez. Horrek betebetan aritzea eragotzi dio. Inoiz ez

GAKOAK

1 Tentsioa. Finalek ez dute antzik beste partidekin, tentsioak gainzeka egiten baitu. Altuna III.ak Peio Etxeberriak baino eskarmentu handiagoa du, baina horrek ez du ezer ziurtatzen.

2 Finalisten sasoi. Altuna III.ak denbora darama ezker sorbaldako minez, eta horrek ez dio utzi bete-beteen aritzen. Hala ere, aukari gogorra da. Peio Etxeberria sasoi betean ari da aspalditik.

3 Sakea eta erresto. Sakearekin eta errestoarekin asmatzen duenak asko izango du irabazia. Altuna III.a saiatuko da pilotea egon dadin; Peio Etxeberriak, ordea, azkarrago amaitu nahiko du tantoa.

bezala sufritu du finalera iristeko. Erik Jaka haren bolada zapuztear egon zen, baina, kinka larrian zegoela, suspertu egin zen. Horrek agerian uzten du sasoiak eta jokoz bete-beteen egon gabe ere kontrario gogorra dela, eta izugarri zaila dela hura menderatzea. Baita Peio Etxeberriarentzat ere, inoizko sasoi eta joko onena duen arren.

Gaurkoak bakarrik axola baitu: sakearekin min egiteak, ondo errestateak, opari gutxi egiteak, hauspoari eusteak, burua hotz izateak, bolada onak aprobetxatzeak eta txarretan sufrizten jakiteak: horrek guztiak erabakiko du nork jantziko duen txapela.





XOTA

«Gauzak ondo egiten ari bagara ere, funtsezkoa da hobetzen jarraitzea»

Miguel Hernandez • Xotako entrenatzailea

Xota sasoi oso ona egiten ari den arren, Miguel Hernandezek dio taldeak «oinak lurrean» dituela. «Partidaz partida joan behar dugu». Jokalariei baloiarekin «askeago» jokatzeko eskatzen die.

Iñaki Berastegi

Hogei urtez taldeko bigarren entrenatzaile eta prestatzaile fisikoa izan eta gero, Miguel Hernandezek (Iruñea, 1974) ordezkatu du Imanol Arregi Xota taldearen aulkian. «Oso ezberdina da», esan du bere ardura berriei buruz.

Denboraldiaren lehen heren bikaina egin duzue: hamabi partidatan, 21 puntu lortu dituzue. Espero zenuen halakorik?

Ez nuen hainbeste puntu lortzea espero, ez. Denboraldiaurrean taldea oso dinamika onean ikustek segurtasuna eta konfiantza ematen zidan, baina ez nuen espero. Talde lehiakorra izango ginenela pentsatzen nuen, baina horik orain gauden tokira jauzi handia dago.

Emaitza onak direla eta, jokalarien artean euforiarik sentitu duzue?

Talde barruan, behintzat, ez. Taldea gaztea da, eta, agian, etxean edo lagunekin azaleratuko zuten hori, baina, multzoa batera dagoenean, nik ez dut ezer sumatu. Alde horretatik anbizio handiko talde heldua daukat. Ilusio handia dute, eta normala da amets egitea, baina taldeak oinak lurrean dituela ikusten dut.

Mailari eustea baino helburu handiago bat jar daiteke?

Ez. Egunez egun eta partidaz partida joan behar dugu; ezin gara sailkapenari etengabe begira egon. Gauzak ondo egiten ari bagara ere, hobetzeko eta lantzeko gauza asko ditugu oraindik. Funtsezkoa da hobekuntza prozesu

hori ez etetea, hobetzen jarraitzen ez duen taldea sailkapenean beharera joango delako.

Epe motzera, zertan hobetu behar duzue?

Pistan taldeak duen koordinazioa da nire ustez gehien hobetu dezakeguna. Talde oso dinamikoa

«Taldea oso dinamikoa gara, eta ia ez dago gure sistemarekin jokatzen duen talderik ligan»

gara, eta ia ez dago gure sistemarekin jokatzen duen talderik ligan. Hala, kanpotik datozenei pixka bat kostatzen zaie erabat egokitzea. Baloiarekin askeago jokatzeko ezin dugula

orain arte izan dugun intentsitatea jaitsi.

Azken denboraldietan baino talde handiagoa duzue orain. Eragina izan du horrek?

Funtsezkoa izan da, bai. Aurreko denboraldietan trantsizio garai batean murgilduta zegoen kluba, baina denboraldi honetarako ahalegindu gara taldea gehiago indartzen. Lesio bat duzunean ez ezik, entrenamenduetako eta partidetak intentsitatea handitzeko ere balio du goi mailako jokalarirekin pare bat gehiago izateak.

Dani Saldise da sasoi honetako fitxaketa nagusia. Zer-nolako eragina izan du taldean Saldise itzultzeak?

Garaikurrez eta golez betetako zakuarekin itzuli da etxera, baina baita gogoz eta konpromisoz gainezka ere. Klubak eta talde teknikoak eman zioten guztia bueltatu nahi du orain. Kirol arloan agerikoa da zer maila duen; esperientzia, segurtasuna eta golak ematen dizkigu. Aldagelan ere oso jokalaririk garrantzitsua da.

Nola egokitu zara zu entrenatzaile nagusiaren erantzukizunetara?

Oso ezberdina da dena. Nik taldean 20 urte daramatzat, eta orain arte jendeak ia ez zekien nor nintzen ere. Lan arloan ere aldaketa handia izan da. Imanoli entrenamenduak prestatzen eta partidak gidatzen laguntzen nion, baina hau beste kontu bat da. Halere, alderik handiena aurkariak ikuskatzeari loturikoa da; Imanolek egiten zuen ia osorik lan hori.

Zer izan da zailena?

Arraroena, behintzat, partidak izan dira. Ni eserita egon ohi nintzen, eta ikusten nuena edo biltzen nuen informazio baliagarria Imanoli ematen nion, baina berak erabaki edo gauzatzen zuen. Orain nik hartu behar dut azken erabaki hori.

Min hartuta dagoen Roberto Martil kapitaina da zure laguntzailea. Nola egokitu da eginkizun berrietara?

Jokalarientza eta talde teknikoaren arteko lotura hori berak egiten du; oso garrantzitsua eta baliagarria da lan hori. Agian, espero baino lehenago ikusiko duzue jokatzen.

Imanolek zer dio taldeaz? Askot hitz egiten duzue?

Etxeko partida guztiak ikustera etortzen da. Astero hitz egiten dugu, eta telefonoz ere etengabe gaudu harremanetan. Hogei urte izan dira bere alboan, eta elkarrekiko erabateko konfiantza dugu: taldeak edo nik behar dugunera badakit bera hor dagoela. Sumatzen dut haren falta.

Eibarrek irabazi egin du; Realak berriro galdu du

FUTBOLA • Eibarrek bolada txarra eten zuen atzo. Sei jardunaldiren ostean, berriz irabazi zuten: 1-0 Sporting Huelvari. Andrea Alvarezek sartu zuen gol erabakigarria. Realak, ordea, gora egin ezinik jarraitzen du. Atzo, 1-2 galdu zuen Sevillaren aurka. Bisitariak luzaipenean sartu zuten gola.

Aldabe eta Barrenetxea IV.a lider jarri dira

ERREMONTA • Aldabe-Barrenetxea IV.a lider jarri dira binakoaren ligaxkan, jokatu dituzten bi partidak irabazita. Atzo, Ezkurra II.a-Larrañagari nagusitu zitzaizkien: 15-7 eta 15-14. Bi jardunaldi jokatuta, irabazleek zortzi puntu dituzte; Ansa II.a-Martirenak zazpi; Seguroa-Juaneneak hiru; eta Urriza-Azpirozek eta Ezkurra II.a-Larrañagak bakarra.

Baiona sendo ari da etxean: 36-16 hartu du mendean Paue

ERRUGBIA • Aurreko sasoiaren bezala, sendo ari da Baiona Jean Daugerren denboraldi honetan ere. Hiru partida jokatu ditu, eta guztiak irabazi ditu; azkena, atzo, Paueren aurka: 35-16. Etxetik kanpo irabaztea falta zaio orain.

Bera Berak zazpi golen aldea irauli behar du gaur

ESKUBALOA • Bera Berak zazpi golen aldea irauli behar du gaur, etxean, Solaren aurka, Europako Ligako multzoen fasean aritu nahi badu (12:00, ETB1). Anaitasuna ere gaur ariko da, Valladoliden (18:00). Beti Onak-ek 19-25 irabazi zion atzo Morvedreri, eta aurreira egin du Espainiako Kopan.

IDK suspertu egin da, eta 74-64 nagusitu zaio Jairisi

SASKIBALOA • IDK-k 74-64 irabazi zion atzo Jairisi Gaskan. Donostiarrek bosgarren garaipena dute lehen zortzi jardunaldietan. Beste lau euskal taldeek gaur jokatuko dute: Baskonia-Valentzia (17:00) Joventut-Bilbo Basket (17:00), Gernika-La Seu (18:00) eta Girona-Araski (18:15).

Nafarroa

23

IGANDEKO BERRIA
2023ko azaroaren 19a

Literatura • 26

Arriskuan den hizkuntza da Eskoziako gaelikoa, baina sormen bizia du

Bertsolaritza • 28

Jone Uriak irabazi du Bizkaiko bigarren finalaurrekoa

Musika • 31

Bar Italia, iraganari beldurrik ez dion gaur-gaurko taldea

Zerua eta infernua, irudien bitartez

XIV. mendean Nafarroako Erresuman margotutako elizetako horma irudiak aztertu ditu Eneko Tuduri arte historialariak bere doktoretza tesian. • 21



Eristaingo San Juan Bautista parrokiako horma irudietako batzuk. Azurita mineralari esker lortzen zuten kolore urdina. ENEKO TUDURI

EZKUTUAN EGON DIREN ARTELANAK

1349tik 1387ra bitarte, Nafarroako Erresumako landa eremuetako elizetan margotutako horma irudiak ikertu ditu Eneko Tudurik bere doktoretza tesian. Obra horien interesa nabarmendu du arte historialariak.

Ainize Madariaga
Olatz Enzunza Mallona

Europako gainerako erresumekin alderatuta, margolan ugari eta kalitate handikoak zituena Nafarroako Erresumako

XIV. mendeko margolaritzak». Ondorio hori atera du bere doktoretza tesian Eneko Tuduri arte historialariak (Donostia, 1990). Gradu Amaierako Lanari esker hasi zen arlo horretan sakontzen, eta landa eremuko lau elizetako horma irudiak ikertu ditu denera: Galipentzuko San Salvador elizakoak, Ardanazko San Martineko-

ak, Eristaingo San Juan Bautista-koak eta Azantzako San Martinekoak.

Aranzadi elkartearen proiektu baten bitartez hasi zen Tuduri gaia lantzen, 2014. urtean. Gero, Galipentzuko San Salvador elizako horma irudiak aztertu zituen Gradu Amaierako Lanean, eta, amaitu ostean, ikertzen ja-

rraitu zuen. 2017an liburu bat ere publikatu zuen horren harira, Elkar argitaletxearekin: *Estudio de las Pinturas Murales de San Salvador de Gallipienzo*. Galipentzuko elizako irudi gotikoak ikertu zituen bereziki, eta, horrekin batera, Nafarroan garai hartan zegoen arte gotikoa ere aztertu zuen orokorrean. Hala konturatu zen pintura horietako asko ikertu gabe zeudela: «Galipentzuko kasuan, esaterako, pintura horietako batzuk erazuzi eta Iruñeko museora eraman zituzten. Nire lana margolan horiek bere osotasunean ikertzea izan da».

Jatorriz, eliza gehienak zeuden margotuta Nafarroan XIV. mendean. XX. mendean, baina, eliza horiek berritzeko lanen ondorioz, desagertu egin ziren horma irudi gehienak. «Petrofilia deitzen zaion estetika bat jarri zen boladan garai hartan, eta horma irudi gehienak galdu egin ziren», kontatu du Tudurik. Izan ere, teknika horren bitartez, harria agerian uzten zen, eta gainerako geruza guztiak suntsitu egiten zituzten. Tartean, horma irudiak.

Iruñeko eskola, erreferente
Desagertu ez diren landa eremuetako 30 bat elizetako horma irudiak identifikatu ditu Tudurik denera. Alabaina, horietatik hirutan jarri du arreta bereziki, Galipentzukoaz gainera: Ardanazkoan, Eristaingoan eta Azantzakoan.

Izurrite beltzaren ondorengo garaian zentratu da arte historialaria doktoretza tesia egiteko. Karlos II.aren erreinuan, hain zuzen (1349-1387). «Garai hori, margogintzan, gutxienez, ez zen horren txarra izan: Iruñeko margolariek modu bizian jarraitu zuten lanean, badirudi izurriteak eta gerrak ez zutela margolaritzak oztopatu», azaldu du.

«XIV. mendean lehen erdialdea oso momentu ona izan zen Europarentzat», aurreratu du Tudurik: «Orokorrean, gerra gutxi zegoen, demografia goraka zihoan...». Baina berehala eten zen garai loriatsu hori. 1348. urtean izurrite beltza iritsi zen, gerrarekin batera. Adituen arabera, garai hartako Nafarroako Erresumako biztanleen erdiak hil zituen gaitzak.

Oro har, margolari asko zeuden sasoi hartan Nafarroako Erreinuaren. «Ia gehienak nafarrak», zehaztu du Tudurik. Artxi-boen arabera, hauek ziren orduko artistak: John Oliver, Pedro Xorrotxo, Perez de Eugi, Martinet, Pedro Perez de Arrieta, Juan Sanchez, Martin, Zangozako Fernando, Martin Lopez de Urdaniz, Iruñeko Ferrando. Bakarra zen Nafarroatik kanpokoa: Baionako Gilen. «Margolari hauen artean, John Oliverrek soilik dauka ospea egun: maila goreneko artista zen. Dena dela, gainerako kideek ere lan interesgarriak egin zituzten», argitu du. Horiek guztiak elkarla-



Azantzako San Martin parrokiaiko pinturetako batzuk. ENEKO TUDURI

nean osatu zuten Iruñeko eskola mugimendua: «Artisauak ziren bertako kideak, eta edozein erkargu egiten zuten, ez soilik horma irudiak».

Tuduriren ustez, Nafarroako nobleziak finantzatzen zituen margo horietako asko. «Interes sozial bat» zegoen atzean, arte

klaustroetako zein jauregieta kontatzen du. Gai erlijiosoak zein profanoak lantzen zituzten, besteak beste. Hala ere, bazegoen naif estiloa lantzen zuten margolari talde bat ere: «Bigarren mailako arte gisa katalogatzen ziren pintura horiek: kalitate txikiagoko margolanak ziren. Bazuten Iruñeko eskolakoen eragina, baina beraien estilo propioa garatu zuten».

Kolore urdina zen Nafarroako margolaritzaren bereizgarrietako bat. Azurita deituriko mineral bati esker lortzen zen kolore hori: «Zorionez, Pirinioetako zilar meate

Jatorriz, eliza gehienak zeuden margotuta Nafarroan XIV. mendean. XX. mendean, baina, desagertu egin ziren gehienak

Kolore urdina zen Nafarroako margolaritzaren bereizgarria. Azurita deituriko mineral bati esker lortzen zen kolore hori

historialariak kontatu duenez: «Margoak ordaintzean, euren burua irudikatzen, euren familiaren armarrria jartzeko... eskatu ahal zieten margolariei. Interes sozial bat zegoen euren boterea erakusteko, propaganda egiteko modu bat zen».

Margolan gehienetan gotiko linea estiloa erabiltzen zuten. «Irudi dotore eta koloretsuek betetzen zituzten elizetako,

gi batean aurkitu zuten mineral berezi hori garai horretan». Hala, posible zen kolore horrekin elizak margotzea: «Goiko hormak urdinez margotzen zituzten, zerua irudikatzen». Hormaren beheko alde, berriz, infernua zen: «Kolore gorriarekin irudikatzen zen infernua, eta hori lortzea erraza eta merkea zen sasoi hartan; urdina lortzea zen arazoa», gaineratu du.

Elizaren hirugarren zatian baino ez dute biziraun horma irudiek Ardanazko San Martin parrokian. Besteak beste, emakumezko santuen irudiak, Grez familiako senideak eta egutegi bat ageri dira.

Espero gabeko kointzidentzia bat

A. Madariaga
O. Enzunza Mallona

Beste batzuen artean, Ardanazko San Martin parrokiaiko horma irudiak aztertu ditu Tudurik bere doktrera tesian. Kasu «oso berezia» dela aurreratzen du. Izan ere, Grez familia, Evreuxko Luis printzea eta Ardanatz herria lotzen ditu pinturetako batek. Margolan guztiak gotiko lineal estiloan eginda daude: «Iruñeko eskola margolariren batek egingo zituen ziur asko. Margolari trebea zen, figura eder batzuk sortu zituen marra dotore batekin».

Egun, elizako sabaian baino ez daude ikusgai margolanak. «Lau ataletan banatuta dago: gangaren hegoaldeko eta iparraldeko horma zatiak, parpain arkuak eta mentsulak baino ez daude margotuta», zehaztu du arte historialariak: «Margo hauek ere petrofilaren ondorioz suntsitu zituzten, 2001. urtean». Era berean, gaineratu du gangaren hegoaldeko eta iparraldeko horma atalek «aurkakoak diren bi testuinguru» irudikatzen dituztela: «Zerua eta infernua dira; urdina eta gorria. Hegoaldeko gangak arimen epai-

keta irudikatzen du: erakusten da bekatariak infernuko sugarretan erretzen direla. Iparraldean, berriz, figura ugari ageri dira otoitz egiten; tartean, ainguruak».

Aureola bat duten emakumezkoak ere badaude gangaren iparraldean: «Emakumezko santuak dirudite». Hala ere, horien artean, badago «eszena bitxi bat», Tuduriren ustez: «Santuen

printze batek Ardanatz herriarekin edo Grez familiarekin?», galdetu du Tudurik. Eta jarraian erantzuna: «Dokumentu historiko arabera, Grez familian Petra deituriko emakume bat zegoen: Luisen semearen inudea zen. Garai hartan, kargu garrantzitsua zen hori. Horrez gainera, Luisen emaztearen laguna ere bazen Petra». Familia horrek Geretzen zeukan jauregia: «Ardanaztik bost kilometro ingurura. Hipotetikoki, beraz, esan daiteke Gerezko Petra izan daitekeela emakume noble horietako bat», ondorioztatu du arte historialariak.

Parpain arkuetan, berriz, egutegi bat ikus daiteke: «Latinez idatzita daude hilabeteen izenak,



Latinez idatzita daude hilabeteen izenak, eta, horietako bakoitzaren alboan, hamabi eszena agertzen dira»

Eneko Tuduri
Arte historialaria

artearen lau emakume ageri dira, aureolarik gabe, eta dotore jantzita. Hau da, ez dira santuak: garaiko emakume noble batzuk dira». Eszena horren azpian armarr bat ere badago: Grez familiarena, hain zuzen. Haren alboan, berriz, Luis Evreuxkoaren, Nafarroako erregearen anaia, armarr pertsonala ere badago: «1355 eta 1361 bitartean Luisek gobernatu zuen Nafarroa. Baina, zein harreman dauka

eta horietako bakoitzaren alboan, hamabi eszena agertzen dira: nekazariak sasoi hartan egiten zituzten lanak erakusten dituzte». Horien artean, badago arte historialariari arreta piztu dion irudi bat: «Urtarrila da. Jano jaingo erromatarra agertzen da buru bakkarrarekin baina hiru aurpegirekin. Bi giltza ditu esku artean: giltza bat joan den urtea ixteko erabiliko du, eta bigarrena, aldi, urte berria irekitzeko».



Tuduriren ustez, Gerezko Petra izan daitekeena ageri den margolana, Ardanazko San Martin parrokian. ENEKO TUDURI

GOMENDIOAK

Honako hauek dira Marcas Mac an Tuairneir poetaren gomendioak Eskoziako gaelikora hurbiltzeko:

Garrantzitsu iruditzen zaion diskoa: Mary Anne Kennedy-ren *An Dàn* (2017).

Ikasle garaian bizitza aldatu zion liburua: Christopher Whytheren *An Aghaidh na Siorraidheadchd* antologia (1991).

Maitte duen filma: *Seachd* (2007).

Altxorak gordetzen dituen webgunea: <https://www.tobarandualchais.co.uk>.



Aktore gisa ere egin du lan Marcas Mac an Tuairneir poetak, Robbie Jonesen eta Elspeth Turnerren *Marram* film laburrean. Irudian, filmeko fotograma bat. MARRAM

Arrisku gorrian badirau ere, gaelikoak sormen bizia du Eskozian. Horren adibide dira, besteak beste, Marcas Mac an Tuairneir eta Padraig MacAoidh poetak.

Sormena Eskoziako gaelikoan

Nerea Arruti

Hiru hizkuntza dira nagusi Eskozian: gaelikoa, ingelese eta eskoziarra. Bi dira koofizialak: hiztun kopuru handiena duena, ingelese; eta txikiena duena, gaelikoa. Alabaina, eskoziar gaelikoak baino prestigio handiagoa du literatur historiografian. Ondo aztertu eta zabaldu da, esaterako, Robert Burns-en poesia (Allmhaigh, Eskozia, 1759–Dun Phris, Eskozia, 1796), eta orain arteko makar guztiek –hau da, Eskoziako poeta ofiziala; makar poeta da eskoziaraz– ingelesez edota eskoziaraz idatzi dute. Poeta ofizialak Eskozian 15.000 liberako soldata jasotzen du, ira-

kurketetan eta ekitaldi ofizialetan parte hartzearen truke.

Gaelikoak badu antzekotasunik euskarak Ipar Euskal Herrian pairatzen duen egoerarekin. Eskala fimoñoa da, eta hiztun dentsitatea uharteetan bakarrik aurtitzen da; hirietan gaelikoak ez du ikusgaitasunik. Jakina da gaelikoa oso egoera zaurgarrian dagoela, eta Unescok dio arriskuan dela; 2011ko datu soziolinguistikoen arabera, %0,5ek bakarrik hitz egiten dute gaelikoz etxean. Paradoxikoki, agian hizkuntza globalaren alboan diglosia bikoitzak sortzen duen disfuntzionaltasuna dela medio, handiagoa den eskoziarra gaelikoarekin lehia izan da koofizialtasuna eskuratzearren. Konplexua da Eskoziako gatazka linguistikoa.

Horri beste paradoxa bat gehitu behar zaio: arrisku gorrian badirau ere, gaelikoak sormen bizia du Eskozian. Liburugintza sustatzen duen erakunde ofizialak, hots Comhairle nan Leabhraichean edo The Gaelic Books Council delakoak, hizkuntzari lotutako testuliburu gain, orotariko uzta oparua eskaintzen du, zientzia fikzioa barne. Nobela da genero berantiarra, eta, neurri handi batean, goitik behera sustatu dena. Poesia, aldiz, tradizioaren euskarriarekin indartsuen den literatur generoa du gaelikoak; lehenago aipaturiko erakundearen webgunean (www.gaelicbooks.org) ikus dezakegu poesia garaikidean 86 liburu daudela. Gaelikoz argitaratzen diren poema liburuek gehienak elebidunak dira; idazle-

ak gaelikoz argitaratzeko jaso dezake diru laguntza ofiziala, eta ingelesezko itzulpena egitea bere kontu edota argitaletxearen esku geratzen da. 32.000 hiztun inguruko komunitate alfabetatua iza-

Marcas Mac an Tuairneirrek Erresuma Batuko nazioen irakurketa postkoloniala lantzen du 'Polaris' lanean

Mapek eta Eskoziako Lewis uharteko nortasunak garrantzi handia dute Padraig MacAoidh poetaren lanean

nik, ezin da bideratu elebakartasuna poesia argitalpenetan.

Kontrako muturretan dauden zaurgarritasunaren eta sormenaren arteko korapiloa askatzeko,

aski da Marcas Mac an Tuairneir poetarekin hitz egitea. Milurteko berriarekin loratu zen poesia boom txikian argitaratzen hasi ziren poeten artean dago Mac an Tuairneir. Poeta horietariko gehienak hitzun berriak dira. Berak badu horretan berezitasun bat: ingelese da, Yorken jaioa 1984an, eta Obar Dheathaineko Unibertsitatean (Eskoziako) ikasi zuen gaelikoa, duela hogeitau urte.

Mac an Tuairneirrek bardoaren performance eraberritua gorpuzten du; bardo gaelikoa bertsolariaren eta poetaren erdibidean dago, bat-batekotasuna izan ezik, figura horretan musika eta poesia uzartzaren baititu, hainbat ekitaldi publikotan parte hartuz.

Musika –baita musikariekin elkarlana ere– oso garrantzitsua da bere lan egiteko moduan. Haren ustez, musikak ehuntzen du komunitate gaelikoa hirietan. Irletako eta Highlands eskualdeko hiztunak sakabanatuta daude hiri testuinguruetan, euren egunerokotasunean ama hizkuntzan hitz egiteko aukerarik gabe, baina abesbatzek gaelikoz hitz egiteko aukera ematen diete. Mac an Tuairneirrek dio Eskoziako hirietan abesbatzak gaelikoaren inku-bagailuak direla. Pandemia garaian, bere abesbatza Zoom bidez elkartzen zen komunitate lotura babesteko eta gaelikoz hitz egiteko aukera ez galtzeko. Hizkuntza gutxitu oro pandemia garaian askoz ere zaurgarriago bilakatu zen.

Bere azken poema bilduma, 2022ko *Polaris*, ambizio handiko lana da, Erresuma Batuko nazioen irakurketa postkoloniala lantzea baitu xede. Aldi berean, hizkuntzen eta itzulpen garrantziaren gorazarre bat da; izenburuak *hizkuntzak* esan nahi du polari hizkuntza, zeina legalizazioa baino lehen gay komunitatean ezkutuko hizkuntza izan zen Erresuma Batuan. Bilduma horretako *Salbagailua* poema-kantan –Padraig

Morrisonen musikarekin Ainsley Hamille abeslariak egin du bere-, sormenaren beharraz idazten du. Pandemiak sorturiko krisialdian idazketan babesteko ez ezik, gobernu kontserbadoreak sustatuko propagandaren aurka egiteko idatzi zuen poema hori, zehazki pandemia garaian zabaldu zuten posterrean emakumezko ballet dantzari gazte bati beste ogibide bat aukeratzeko eskatzen zitzaio- la eta –hori bai, teknologiarekin zeriakusia zuen lanbide bat–.

Zailtasunak zailtasun, sorkun- tza lanetatik bizi da Mac an Tuair- neir. Berak dioenez, *patchwork* moduko zerbaite da bere lan prak- tika: itzulpen lanak –Lawrence Schimelen haur literatura itzuli du gaelikora–, musika –*Speac- tram*, gaelikoz plazaratutako au- renengo pop disko barea da–, dibulgazio lana –esate baterako, ondu dituen poema-bideok– eta poesia landu izan ditu.

Aktore gisa ere egin du lan, Robbie Jones eta Elspeth Turne- rrek zuzendutako *Marram* film laburrean (2023) parte hartuz, non amaren etxean elkarren arte- an oso bestelakoak diren bi seme ditugun; bata tradizioari atxikia, bestea modernitateari. Filmean amak dio garai batean irla ez ze- goela periferian, komertzioaren erdigunean zegoela. Erresisten- zia pieza ederra da filma: museo- an bizi nahi ez duten hiztun gaeli- koak irudikatzen ditu.

Kartografia propioak

Mac an Tuairneirren garaikidea da Pdraig MacAoidh (Lewis uhartea, Eskozia, 1979). Haren lau poema daude euskaraz irakurgai, Armiarma atarian. Mapek eta Le- wis uharteko nortasunak garran- zia dute bere lanean. Kartografia giltzarri da arte eta literatura ga- raikidean, zeinak esanahi sakona- goak dituen hizkuntza gutxitue- tan. Joseba Sarriondiaren eta Au- relia Arkotxaren kartografiaren antzeko lurraldeak ditugu MacA- oidhen poemetan; azken finean, zaurgarritasunaren kartografia baita. Bere poemak basatiak eta desiraz blai daudenak izan daitez- ke, herioaren patua saihesteko.

Nàdar de bilduman (2020), *Punctum* poema finean, Lewisko komunitatea irudikatzen du irlari buruzko dokumental bat ikusten. Filma bukatu ondoren, aulkiak jasotzen ari dela, bere ama da po- emaren *punctum*-a –Barthesen arabera, argazki batean ikuslea ukitzen duen osagaia–. Poema zi- rragarri horretan, hiztuna ez da dokumentalaren objektu, sub- jektu baizik; sormena gaelikoz erresistentzia baita.

Paradisutik egotzia

Nagore Fernandez

Bekatua izena jarri dio Goiatz Labandibarrek bere estreinako elebe- rri laburrari, hori baita obra harilkatzeko idazleak dara- bilen motibo nagusia: 36 urteko emakume bat da protagonista, Garazi, eta, parranda zoro baten ostean, bera baino 17 urte gaztea- goa den mutil baten ohean esna- tuko da, ez bere ohiko bikoteki- dearen alboan. Gertatutakoaz oharturik, eta insomnioak astin- durik, bizitzaz eta bere (eta bere inguruko) erabakiez hausna- rrean hasiko da, eta, etika-jario horrekin, egungo gizartearen, eta, batik bat, belaunaldi oso ba- ten erretratu osatuko du.

Hirugarren pertsonako narra- tzailearen aldeko hautua egin du Labandibarrek bere lehen nobela honetan, Garazi protagonistaren barne-munduan sartu, eta bere inkontzientearen ahots bihurtze- ko. Izan ere, barne-bakarizketa bat eraikitzen da orriz orri, eta le- hen pertsonako diskurtso bat es-



'Bekatua'

Idazlea: Goiatz Labandibar.
Argitaletxea: Erein.

pero nuen arren, asko gustatu zait autorearen erabakia. Batetik, hausnarketa-multzozko mar- dul bat dakarren nobela bat izanda, nire ustez, hirugarren pertsonako ahots horrek leundu egin ditu fikziozko ekintzen eta ez-fikzioz- ko hausnarketen artean dauden ertzak, eta gardendu egin du bien arteko marra hori. Hala, idazleak apertatu egin du salto saiakeratik hurbilago dagoen diskurtso fikziozko, eta alderantziz. Eta neu- ere, irakurle bezala, oharitu barik sartu naiz joko berean, oso modu naturalean eta bizian, gainera, noiz magma etiko horretan haus- narrean, noiz fikzioan igeri. Bes- tetik, narratzailearen ahotsak protagonista distantzia batetik (auto)epaitzea ahalbidetu dio La- bandibarri, eta epaia are sinesga- rriago egiteaz gain, iruditutako hirugarren pertsonak mesede egin diola gertaerak eta ekintzek dakarten tonu komikoari. Horra hor nobelaren indargunea.

Badago ordea, txanponaren beste aldean, horrenbeste kon- bentzitu ez nauen alderdi bat. Asko dira idazle on bat, ezinbes- tean, irakurle on bat ere izan be- har dela adierazi eta praktikara eramanez idazleak, eta naba- ria da Labandibarrek ere men-

egiten diola uste horri. Gustatu zaizkit dakartzan aipamenak eta idazleak, esanguratsuen dira tes- tuan; ostera, ez beti, baina, zen- baitetan, ekartzeko moduak be- rak huts egin dit; gehiegi borta- tu dituen irudipena izan du, testutik atera naute, eta, fikzio- tik, testuinguru akademikoago- tara eramanez. Hori gertatu zait, esaterako, Sandro Pennaren hit- zekin. Esango nuke Amez ipuin liburuan hobeto landu duela tes- tuartekotasunaren alderdia, oraingoan, aldiz, pare batean idazleak besteetan erakutsi duen abilezia hori faltan izan du.

Alderdi hori kenduta, gustatu egin zait Goiatz Labandibarren apustua: nobela laburrak, trans- zendentala izan gabe, baina, egungo gizarte heteropatriarka- lak eta kapitalistak inposatzen digun bizi-estiloaz eta alienazio- az pentsatzeko parada eskainiko dio irakurleari, ondo landutako bidaia narratologiko dibertigarri batean laguntzeaz batera. Horre- tarako, komediatik oso hurbile- ko tonu batez mintzo zaigu idaz- lea, zeinak, ironia baliatuz, etengabe egiten diren digresio existentsial horien karga eta seriotasuna leuntzeaz lortzen duen.

Paradisuari, lurretik

Asier Urkiza

Paradisua kanpoko aldeak du izenburu Bernardo Atxagaren lan berriak. Bere ibilbi- dean zehar idatzitako hainbat testu bildu ditu autoreak, berezi- tasun batekin: denak ala denak jendaurrean irakurtzekoak dira. Liburuan, izan ere, bere testuak irakurriz alde batetik bestera da- bilen idazlearen gorabeherak kontatzen dira. Azpi-izenburuak obraren tonuaz arrastorik ema- ten digu, Adanen ondorengo tris- turak eta pozak ageri baitira ipuinoan, bizitzaren iragankor- tasun ederrean igeri. Existentsia- ren izaera paradokikoari zuzen- tzen zaio Atxaga, antropologikoa bezain soziala den begiradaz.

Horretarako, Michel Foucaul- tek heterotopia gisa –nolabait, gizartetik kanpoko tokiak, baina gizartearen ezagutza edo kon- traesanak bere osotasunean gor-



'Paradisua kanpoko aldeak'

Idazlea: Bernardo Atxaga.
Argitaletxea: Pamiela.

puzten dituztenak –salikatu zi- tuen lekuetako batera darama egileak narrazioa, kartzelara. Sa- rrera gisa har litezkeen lehenen- go bi atalen ondoren, *Tour bat Frantzia barrena* izenekoan Frantziatik biratxoa egiten du idazle protagonistak, zenbait ki- deren laguntzaz irakurraldiak egiteko. Lehenengo bi geltokiak Frantzia erdialdeko bi kartzela dira, Mauzac eta Neuvic sur l'Isle. Idazlearen saioetako inpresio eta ñabardurak jasotzen ditu irakur- leak. Badago elkarreragin bat kartzelako deskribapenen eta protagonistak irakurrirakoen ar- tean. Kartzela bezalako ez-leku horretan, presoaren begirada ur- duria ondoan suma dezakegula, balirudike poemok oihartzun handiago hartzen dutela. Erre- sonantzia kutxa legez funtziona- tzen du presoengiak, beste har- tatik gure *hau* honetaz argi- gogoz mintzatu ahalko balitz bezala. Hala, bizitzaz eta heriotzaz, giza aberearen oinarri hauskorraz esandako hitzak inguru latz, aseptiko eta neutroan loratzen dira, Arestiren hitzak ekarritz, si- maurretan lezka nola.

Esan bezala, liburuaren antola- kuntza formalak testuen esan- indarrari on egiten dio. Autorea-

ren piezen zentzua nabarmen- tzen laguntzen du, horiek irakur- learengana emekiago iritsi daite- zen. Poema gehienak nahiko eza- gunak dira, hainbat musikarik kantu bihurtuak. Narrazioan txertatuta, baina, zentzu berri- tu bat haritezake. Idazle gipuzkoa- rra maisua da Gauza Handiak –hala izendatzen ditu Bilboko hastapenei eskainitako testu la- bur batean– formatu mikroetan ematen dio eskua irakurleari eta hura sar dadin hutsunea egoki jartzen badaki. Aitor dut, halere, *Euskal literatura zaharri buruzko hitzaldia...* atala zapalago antze- man dudala besteekin alderatuta, ez diot besteei adinako zukurik atera, alegia. Kartzeletako lehe- nengo bi bisitekin ez bezala, ez zait iruditu hitzaldiaren hitzen eta narrazioaren artean hainbes- teko elkarreraginik zegoenik, le- henengoetan aipagarri iruditu zaidan horixe bera. Ez da makala, ordea, unibertso propioa sortze- ko gaitasuna izan eta hura hitz xumeekin hain ondo adierazte- a. Atxagak eronka horri eutsi dio bere ibilbide literarioan.



Jone Uriak kantuan, atzo, Santurtzin, 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa Nagusiko bigarren finalurrekoan. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

Santurtzitik Bilbora

Jone Uriak lortu du Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako bigarren txartela • Bero egon da entzulea, eta bakarkako lanak binakakoak baino aipagarriagoak izan dira

Oihana Arana Santurtzi

Bostehun lagunetik gora bildu ziren Santurtziko Serantes kultur aretoan, atzo, 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bigarren finalerdia entzuteko. Frontoiko oihartzunetik aretoko besaulkietara igaro zen txapelketa, horrek ez zuen ordea, giroa epeltzea eragin; bero egon zen entzulea. Jone Uriak egin zuen lehenengo eta, beraz, harena izan da Santurtzitik Bilborako txartela. Zazpigarren finala izango du, beraz, algortarrak.

Alde nabarmenarekin irabazi zuen Uriak, oro har, Berrizko lehen finalurrekoa baino apalxeagoa izan zen saioa. Kontuak horrela, Xabat Gallettebeitia eta biak izango dira Miribillan, abenduaren 16an. Momentuz, ezin daiteke beste ezer ziurrik esan. Zabalik dago finaleko atea.

Igor Menikaren atzetik igo ziren bertsolariak oholtzara, nor bere agurrarekin. Finala begie-

tan, baina hankak lurrean, lanerako prest.

Zortziko handian Txaber Altube eta Aitor Bizkarra hasi ziren. Bikotekideak ziren, haien artean su falta nabaritzen zuten azken hilabeteetan, eta Bizkarrak Altuberi esan zion ez zegoela ondo, libidua baxu zuela eta horri buruz berba egin gura zuela. Gertatzen zaiona zer zen ulertzea kostatu egingo zitzaiola ohartarazi zion Altubek. Hala erantzun zion Bizkarrak: «Bi gazte ero ginen lehenago/ ze garra eta ze sua/ maitale arteko gerra txiki lez/ bizi genduan sexua/ egun dana da amul-tsutasan/ kariño ta intsentsua/ aspergarrria be egiten jat/ gure bake prozesua». Psikologora joateko aukera mahai gainean jarri eta «berriz gerra deklaratzera» datorrela esan zion Altubek. Egoerari buelta emateko proposamena bana egin ez amaitu zuten bertsaldia. Berau izan zen akaso, Bizkarraren ariketarik biribilena.

Aurreko asteko saioaren alde-

an, bakarkako lanak binakakoak baino aipagarriagoak izan ziren atzo. Puntu erantzunena izan zen, akaso, Mikel Goirienak eta Bittor Altubek ondoen egin zuten ariketa. «Zeri kantau deusazu/ bertsorik onena?» eta «Kanturako gogoa/ ez da eguner» zioten puntuek. Hala erantzun zuen

Txaber Altubek egin zuen bigarren, eta bakarkakoan kantatu zituen saioko alerik finenetako batzuk

Goirienak: «Nire amamantzako/ joan zan azkena/ eliza baten danok/ ta mezan barrena/ betiko eskeini neutson/ hari atsedena», eta «Gure eskolan hori/ ez da pasa gero/ beti ibiltzen gara/ hortxe bero-bero/ ez dakit bertso friki/ edo bertso ero». Altubek publikoari eskeini zion bere bertso-rik onena: «Inoiz ez dut kantatu/ hori da problema/ baina igual onena/ orain datorrena/ beraz nire bertso hau/ osorik zuena»;

eta halaxe bota zuen bigarrena: «Bada nik eduki dut/ irten naizenero/ oilo-ipurdi azala/ ta gorpuzta bero/ ta gozatu ohi dut zuek/ txalo jo ezker».

Ondokoa izan zen, bestalde, bakarka hiru bertso kantatzeko ipini zieten gaia. «Barruan gorde-ta daukozuna ataraten hasi zara.

Badakizu gauzak aldatuko direla». Ariketa honetako alerik finetak Txaber Altubek, Uriak eta Unai Mendiburuk utzi zituzten. Bizkarraren bertsoek izan zuten bertsolariak ohiko duen dotorezia, baina gaiari bete-bete erantzun eze zion zalantza gelditu zen.

Izarren hautsa doinuaren egin zuen ariketa Altubek. Aitaren aurrean hartutako erabakia azaltzen jarri zuen bere burua. «Par-katu baina oraingo zaita/ zuri ez badizu ardura/ nik ez dut zu izan gura» amaitu zuen lehen bertsoa. Ikasketak utziko zituela esan zuen bigarrenean, eta «bide bate-

SAILKAPENA

ATZOKO SAIOA

1. Jone Uriak	631 puntu
2. Txaber Altube	576 pt.
3. Aitor Bizkarra	574,5 pt.
4. Unai Mendiburuk	565 pt.
5. Mikel Goiriena	557 pt.
6. Bittor Altube	498,5 pt.

HURRENGO SAIOA

Azaroaren 25ean (17:00etan)

Lemoako Udal Kiroledegian. Sei bertsolari hauek arituko dira, datorren larunbatean, hirugarren eta azken finalurrekoan: Aissa Intxausti, Ibai Amillategi, Josune Aramendi, Nerea Ibarzabal, Oihana Bartra eta Onintza Enbeita.

tik dena joango da/ onera edo txarrera/ baina neure arabera», biribildu hirugarrena.

Drogak eta psikologoak

Drogetara engantxatuta dagoen pertsona baten papera jokatu zuen Mendiburuk. «Momentu honetan ez daukat garbi/ nor kontrolatzen duen nor» amaitu zuen aurrenekoa; «Nahiz eta segi beharko nukeen/ laguntza zentro batera/ engantxatuta nago zeharo/ noan argi esatera/ nola ez sartu azaltzen baita/ baina ez nola atera» bigarrena; eta, terapiara joateko erabakia hartu zuela esan ondoren, «ez da erraza izango, baina/ saiatzeko merezi du» esanda amaitu zuen ariketa.

Psikologoko kontsultara joan den pertsona baten lekutik kantatu zuen Uriak, estresak eta antsietateak jota, bitzeko gogorik ere ba ote duen zalantza jartzen duen pertsona baten lekutik. Hala biribildu zuen bertsaldia: «Nahiz ohituta egongo den/ mila barru arakatzen/ hor dago psikologoa/ adi-adi begiratzen/ ohar-rrak hartu ditu bai/ baina ote da oharitzen/ ez zaidala erreza egin/ egia garbi onartzen/ gauzak aldatuko dira/ esan dit eta hala zen/ nire barrua askatu/ diodalako gaur ozen/ ez metafora ez aitzaki/ egi gordin egi zuzen/ hortarako etorri bainaiz/ gauzak aldatu daitezzen».

Azken zortzi txapelketetan egindako bideari erreferentzia egin ez agurtu zen Uriak. «Baina azkenik gaur etxe ondoan/ zehar-katuta ibaia/ nahiz gehiegitan aparte utzi/ gora Baraka! Biba Santurtzi!/ bueno a ver es que basta ya/ hau ere bada Bizkaia» esanda amaitu zuen saioa. Kolpe-txoa «uf, gaur Santurtziraino...» pentsatu zuten guztientzat.

Zozketak

berri.laguna
berria.eus/berrialaguna

ABIZENA, IZENA
01234567

PARTE HARTZEKO:
igandetik asteartera **Berria.eus/berrialaguna/zozketak** edo 943-30 43 47

SARIDUNAK ostegunean argitaratuko dira. **Adi!** Erabili zure **BERRIALAGUN** kode berria.

> OPARIAK

01 LA PERLA

Hiru lagunentzat bina sarrera



Donostia • Tel.: 943-45 88 56 • La-perla.net

02 ZUGAN

Aurpegiko garbiketa oxigenatzailea
eta bi indiba saio



03 NEKATUR

Bi lagunentzako
gaua eta gosaria

Gozatu Arabako, Bizkaiko
eta Gipuzkoako
nekazaritza turismoaz
eta landetxez!



nekatur

Nekazaritza turismoaren eta landetxeen elkartea
Tel.: 943-32 70 90 • Nekatur.net

04 IÑAUSTI JATETXEA

Bi lagunentzako otordua aste barruan



Zuatzu kalea, 4 • Donostia • Tel.: 943-31 39 33

05 ANTSOTEGI JATETXEA

Bi
lagunentzako
otordua



Altzaa auzoa, 15 - Etxebarria • Tel.: 94-616 91 00 - Antsotegi.com

06 HOTEL URDUÑA PLAZA

Bi lagunentzako zirkuitu termala eta gosaria



07 OIARTZUNGO ELORSORO KIROLDEGIA

Bi lagunentzako bina sarrera
eremu termoludikorako



08 HOTEL BALNEARIO AREATZA

Bi lagunentzako zirkuitu termala



> SARRERAK

PARTE HARTZEKO, **Berria.eus/berrialaguna/zozketak**

Parte hartzeko azken eguna: **azaroaren 21a**, asteartea. SARIDUNAK ostegunean argitaratuko ditugu.

KORTXOAREN DILEMA



Sarrera
bikoitz bat

Azaroak 23
20:30
Serantes aretoa
SANTURTZI

KORTXOAREN DILEMA



Sarrera
bikoitz bat

Azaroak 24
20:00
Bastero kulturgunea
ANDOAIN

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA



FINALAURREA

Bi sarrera
bikoitz

Azaroak 25
17:00
Udal kiroldegia
LEMOA

EZ DOK ERO DESENTXUFATUA



Sarrera
bikoitz bat

Azaroak 25
19:30
Bil lekua gela
DOMINTXINE

EZ DOK HIRU



Sarrera
bikoitz bat

Azaroak 26
17:00
Itsas Mendi zinema
URRUÑA

HONDAMENDIA



Sarrera
bikoitz bat

Azaroak 26
19:30
Pilotalekua
BERRIATUA

Bezeroari kasu egiteko ordutegia: 08:30etik 16:00etara 943-30 43 45 telefonoan



Hazparke taldea garaile Xilaban

Atzo jokatu zuten taldekako 2023ko Xilaba bertso txapelketaren finala, Aiherran (Nafarroa Beherea), eta Hazparke taldeko hiru kideek jantzi zuten txapela: Irantzu Idoatek, Ortzí Idoatek eta Nahia Sascok. Finaleko beste taldea Muttiokoak izan zen, eta Irati Alcantarilla, Haize Lekuona eta Ibai Lekuona aritu ziren kantuan. Bertso bazkariarekin hasi zuten eguna bertsolari zein entzuleek, eta 17:30ean ekin zioten finalari. Denera, bederatzí taldek hartu dute parte aurtengo Xilaban, Ipar Euskal Herriko hiru lurraldetakoak. GUILLAUME FAUVEAU

Arazo gutxi

Marta Garcia

Donostia Musika elkarteak opera ekoizpen propio bat aurkezteko erronkari ekin dio aurten ere. Laz bete-betea asmatu zuten formatuarekin, eta badi-rudi hori finkatzeko apustua egin duela: iraupen motzeko opera bati (berrogeita hamar minutu inguru) espresuki sortutakoa, eta obra bera testuinguruan kokatzeko balio duen hitzaurrea gehitzen zaio aurretik.

Hitzaurrean AEBetako opera tradizioaren zein musikalen haztegi izan ziren autoreen obrak eskaini ziren, hain zuzen ere, XX. mendeko lehen hamarkadetan arazo sozialak, dantza eta abeslariak eszenan bateratu zituztenak, jazz, soul zein folklorearen hizkuntza musikalaren elementuak erabiliz. Inñigo Gastesiren narrazio gidari, Gershwinen *Summertime* ezaguna entzun zen, lokantaren zentzua erazita, baita Scott Joplínen *Treemonisha* opera ixten duen *A real slow drag* ere.

Horrek guztiak Leonard Bernsteinen *Trouble in Tahiti* ulertu eta gozatzeko bidea ireki zuen. Sam eta Dinah, itxuraz gerra osteko amets amerikarra lortu duen erdiko klaseko bikotea du protagonista obra honek: auzo, seme, etxe eta altzari perfektuak, erosotasuna bermatzeko gailuak, aisialdirako denbora eta dirua. Eta, hala ere, edo akaso horregatik, gutziz birrintuta dagoen harremana, bestea entzuteko ohitura eta gogoia galdu dituen. Eszena-zuzenda-

KRITIKA Musika
'Trouble in Tahiti'
(Musikene Opera Orkestra)

Zuzendariak: Jesus Etxeberria (musika) eta Guillermo Amaia (eszena). **Bakarlarriak:** Carmen Artaza (Dinah), Josep-Ramon Olive (Sam), Estibaliz Arroyo (Neska), Aitor Garitano (Mutil 1) eta Juan Laboreria (Mutil 2). **Egitaraua:** L. Bernstein, J. Kern, G. Gershwin, S. Joplínen obrak eta L. Bernsteinen *Trouble in Tahiti*. **Lekua:** Donostiako Viktoria Eugenia antzokia. **Eguna:** Azaroak 17.

ritzak opera honek taularitzen duen urrutiratze fisiko eta emozionala sendotu egin zuen askotan eszenatokia bitan zatitzen zuen lerro ikusezin baten bidez, gela berean daudenean ere Dinah eta Samen bi munduak banatzen dituen. Josep-Ramon Olivek lan bikaina egin zuen Sam garailea interpretatzen, eta Carmen Artazaren ahots borobilak gordintasuna gehitu zion Dinahren anibalentziari. Azken hori, tamalez, orkestraren kontrolrik ezak oztopatu zuen maiz; *Island Magic* zatian, esaterako. Garitano, Arroyo eta Laboreria kontrapuntu freskoa izan ziren, koro greko klasikoan kutsua dakarten iruzkingile finak.

Istoriaoa badakigu: ongizate gizarrean dibortzio legeak hedatu zirenetik bikote ugari hautsi dira eta, aldez, bizitza asko salbatu.

Donostiako Altxerri galeria itxi egingo dute, 40 urteko jardunaren ondoren

ARTEA • Aurten 40 urte ireki zituen ateak Donostiako Altxerri galeriak, eta, urtemugarekin bat eginda, hura ixtea erabaki dute orain haren arduradunek. Arrazoiaren artean, artearen merkatuak jasandako al-daketak aipatu dituzte, eta azken erakusketa Raquel Martinezek irekiiko du, azken urteetan aretoaz arduratu den arkitekto eta artistak.

'Abere ba. Kirikiño eta animalia palindromoak' erakusketa, Mañarin

LITERATURA • Abenduan mendea beteko da Kirikiño idazleak palindromo lehiaketa abiatu zuela *Euzkadi* egunkarian, eta, efemeridea go-goan, Mañariko (Bizkaia) Hontza museoa – Kirikiñoaren etxea izandakoa – *Abere ba. Kirikiño eta animalia palindromoak* erakusketa irekiko dute bihar. Joseba Sarrionandia ere bertan izango da.

Nafarroako

Bertsolari Txapelketa
2023

FINALAURREKOA LESAKATIK ZUZENEAN

WWW.BERTSOA.EUS

AZAROAK 19 IGANDEA 17:30ean

Joanes Illarregi Marzol, Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Alzuri,
Eki Mateorena Zozaia, Mikel Lasarte Cia eta Beñat Astiz Isasi

Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo Ferrero

Bar Italia Londresko hirukoteak bi disko atera ditu aurten; horietako berriena, orain gutxi: 'The Twist'. Gitarretan oinarritutako musika eginez oihartzun handia lortu dute.

Iragan gaurkotua

Mikel Lizarralde

Oihartzunari dagokionez, gitarretan oinarritutako rocka bere garairik lo-riatsuenen bizi ez bada ere, oraindik ere azaltzen dira ia egun batetik bestera hedabideen eta jarraitzaileen arreta osoa eskuratzeko duten taldeak. Horietako bat da Bar Italia Londresko hirukotea. 2020an disko bat kaleratu zuten -*Quarrel*-, eta 2021ean beste bat -*Bedhead*-, eta, haien ondoren, Matador zigiluarekin sinatu ostean, sei hilabeteko epean bi disko argitaratu ditu 2023 honetan. *Tracey Denim* iritsi zen maiatzean, eta *The Twists*-ek eman berri dio jarraipena.

Tracey Denim iritsi baino pixka bat lehenago hasi ziren Erresuma Batuko musika prentsan Jezmi Tarik Fehmi, Sam Fentonek eta Nina Cristantek osatzen duten hirukoteaz artikulatuak idazten. Ez Bar Italiaren proposamena bereziki originala delako -ez da zaila taldearen DNA post-punkaren eta 1990eko hamarkadako indie-rockaren arrastoak antzematea-, baina bai freskotasun ez erabilten dituztelako euren erreferentziak. «Gitarra bat hartzen baduzu, ezinbestean iraganean murgiltzen zara», aitortu du Fehmi, eta gaineratu berritzailea izatea ez dela bere nahietako ba. «Ezagutzen dugun jende askok oso sinesgarriak ez diren gauzak idazten ditu. Iraganekoak ez emateko obsesio horretan, originaltasuna baskatu nahi dute modu desesperatuan. Uste dut harrokeria puntu bat duela jarrera horrek. Originala izan nahi baduzu, utziozu musika egiteari».

Bar Italiaren proposamenean iraganeko musikek presentzia handia badute ere, taldekideek uste dute haien lana ezin dela zaku bakar batean sartu. Eta ez zaie arrazoirik falta, post-punkaren eta indie-rockaren interpretazio irekia egiteaz gain, *The Twists*-en bestelako musiken zer-

tzeladak ere barreiatzen dituztelako han eta hemen. *Jelsy*, adibidez, country-folk akustikoko pieza leuna da, eta *Shoo-k*, ilunago izanda ere, giro etereo bat zabalzten du hasi eta bukatu arte, orain dela urte batzuk Blonde Redhead-ek egingo lukeen bezala.

Baina 1990eko hamarkadan goia jo zuen rock independentearen aztarnak ere azaltzen dira *The Twists*-en. Sonic Youthen rock elektriko bezain bihurriaren itzala, adibidez, nabarmen azaltzen da uneren batean -*Real House Vibes (Desperate House Vibes)*-, eta Pavementen musika ere entzun dutela agerikoa zaie Londresko hirurei -*Hi Fiver, Bibs*-. Era berean, badira diskoan gitarra zorrotzez jantzitako rock melodi-koko abestiak ere, *My Little Tony* kasurako.

«Kantu itsaskorak»

Bar Italia 2019an sortu zuten, eta pandemia iritsi zenean, «kantu itsaskor onak» idazteari ekin zioten, Cristantek azaldu duenez. «Ez zen gure asmoa musika esperimentala egitea».

Cristante berari bururatu zitzaion taldea Bar Italia izendatzea -italiarra da bera-. Pulp-ek badu izenburu bereko kantu bat, baina taldekideek azaldu dutenez, ez dio hari erreferentzia egiten; are, kantua bera ere ez zuten ezagutzen. «Ez gara Pulp-eko jarraitzaileak», aitortu dute. «Behin Jarvis [Cocker, Pulp taldeko abeslaria izan zena] kontzertu batera etorri zen, baina entzun genuen ez zitzaiola asko gustatu».

Nolanahi ere, Bar Italia jarraitzaileak pilatzen ari da, nahiz eta bere musika ez den sartzen *mainstream* hitzarekin ulertzen den zaku horren barruan. Baina Fehmi, Fenton eta Cristante gero eta zentratuago daude, eta beren musikak, sarritan deserosoa izan daitekeen arren, bide berriak deskubritzeko nahia erakusten du, batzuetan bide horietan iragana gurutzatzen zaien arren.



Sam Fenton, Jezmi Tarik Fehmi eta Nina Cristantek osatzen dute Bar Italia. BERRIA

GUGGENHEIM BILBAO

GEGO

Infinítua neurtzen Midiendo el infinito Measuring Infinity Occident

**THE SADIES****Country kosmikoaren ordezkariak**

Asteartea 21: Bilboko Kafe Antzokian (Kutxa Beltza), 20:00etan.
Asteazkena 22: Donostiako Dabadaba aretoan.

Urtebete besterik ez da pasatu The Sadies Kanadako tal-

dea azkenekoz Euskal Herrian izan zenetik, eta bueltan da berriro ere, oraingoan bi kontzertu emateko. Iaz Donostiako Dabadaba aretoan eman zuten kontzertua berezia izan zen, Dallas Good taldeko buruetako bat hilabete batzuk lehenago hil baitzen, eta aurkeztera zetozen diskoa (*Colder Streams*) hark grabatutako azkena zen.

Oraingoan lan berririk gabe datoz, baina, 1998an ibilbideari ekin ziotenetik, countryz, rock-and-rollez eta giro psikodelikoz blaitutako lan mordoxka kaleratu dute, eta hamarnaka kantu dituzte aukeratzeko.

Bilboko Kafe Antzokian, The Sadies bakarrik ariko da, baina, Dabadaban, Harria taldeak joko du aurretik. Aitor Aldanondok (Brigada Criminal, Fiachras, Bizardunak) gidatutako taldeak iaz atera zuen lehen diskoa.

**The Smashing Times**
'This Sporting Life'

Diskoetxea: K Records / Perennial.

Julen Azpitarte

Talde estatubatuarren bigarren diskoa da *This Sporting Life*, oraingoan, Olympiako K

eta Perennial diskoetxeek argitaratu –aurrekoa, *Bloom*, Espainiako Meritorio Records zigiluak plazaratu zuen–. Bada, bira handi baten ondotik –besteak beste, Iruñean eta Bilbon izan ziren iragan udaberriar–, estudioan sartu eta estreinaokoaren jarraipena plazaratu dute. Bigarren hau lehenengoa baino askoz disko zehatzagoa da, behintzat soinuari eta kantuen egiturei dagokienez. Halaber, Television Personalities taldeak Baltimorekoengan eragiten duen itzalaren gehiegizko zama arindu egin da, eta argaltze horren ondorioz, jangle pop estiloko karamelu lisergikoa sortu dute.


**Crosses**
'Goodnight, God Bless, I Love U, Delete'

Diskoetxea: Warner Music.

Ihintza Orbegozo

Chino Moreno Deftones taldeko abeslari bezala ezagun egin zenaren talde paraleloa da

Crosses. Beste hainbat musikarirekin batera, eta euren beste proiektuetatik pixka bat aldentuz, 1980ko hamarkadako pop eta elektronika doinuak edaten duen taldea da, rock eta metal doinuak ahaztu gabe. Depeche Mode, The Smiths eta The Cure gogorarazi dezakete abestiek batzuetan, baita Sade bezalako pop doinu ikonoak ere. 2014an lehen lan luzea argitaratu zutenetik itzalean egon dira, baina denboran honetan guztian lanean aritu dira, eta horren emaitza sendo eta osoa da bigarren disko luzea, melodia landu eta gorputzera itsastan zaizkizun horietako bezate, trisuratik sortuak diruditenak, baina edertasunez beteak.

**BI AHOTSETARA**
Ana Arsuaga**Londres (II)**

Kontzertu desatsegina-ekin buruan bueltak geratu nintzen, apur bat blokeatuta, Londresko entzuleen inguruan neuzkan aurreiritziak oso onak zirelako. Publiko espezializatuago bat imaginatzen nuen; musika guztietarako audientzia txiki bat zegoela uste nuen, eta, gainera, astearte batean jotzean eta ordaindu behar zen sarrera kontuan izanik, errespetu minimo bat jasoko nuela aintzat hartzen nuen. Ez zen horrela izan. Ziur asko, baten bat isilik egongo zen, arreta jartzen, baina inpresio orokorra zen ez zegoela horrelako inor.

Hala ere, ez dakit nola, gau hartako kontzertuan zerbait baliagarria ikusi zutenak ere egon ziren. Produktore famatu baten estudioa joateko gonbidapena jaso nuen, eta bertan egon nintzen, adibidez. Gizon jatorra, galesa, ile luze eta betile zurikoa. Kanal baten ondoan zeukan estudioa, eta, inguruan gero buelta bat eman, eta kafe-tegiak, arropa-denda txikiak eta liburu denda alternatibo asko ikusi nituen, arte-liburuz josiak. Horrelako liburu denda bat izatearekin amets egin nuen egun guztian. Inoiz gehiago jendaturrean ezer ez egitearekin, abestirik publikoki ez aurkeztearekin... Tira, hiru hilabetez behingo fantasiak.

Londresak daukan usaina ke-aterabideana iruditut zait egon naizenetan; herrialde ezberdinetako janari espeziatuaren usaina edonon nabaritutako balitz bezala. Teloneatu nuen taldearen hotela,

ordea, ez zen giro usaintsu horren parte. Auzo lasai eta zuri batean eskailera monumentalengatik bereizten zen sarreran, Donato zegoen; teloneatu nuen taldeko kideetako bat. Haietara gosaltean, haien errealitatearen eta nirearen arteko alde ikusi nezakeen xehetasun bakoitzean. 25 libera esterlina balio zuten arrautza turkiar batzuk gosaltean zeuden hotel hartan, marmolezko paretan artean. Horrekin eta nire ingelesarekin, arrazoi nahikoa nituen kifikiduta egoteko. Baina, zergati misterioetsuengatik, bada go pasioz jarraitzen dituen proiektuak sostengatzen dituen jendea. Beraz, Donato hitz egiten hasi zitzaidan, nola jaialdi askotan nire musika bere set-etan jartzen zuten kontatzen, eta nola maite zuen nire musika esaten, eta ideiak eta planak kontatu zizkidana, eta hor nengoen berriro, barneko errusiar mendi honetan, ilusioz ganezka.

Emadazu arriskua**Urko Ansa**

Egia zen, ba; disko berria prestatzen ari ziren. Lehenengoa atera zutenetik ia 60 urte pasatu diren honetan, britainiarrek estudioko hogeita laugarren diskoa argitaratu zuten urriaren 20an. Hamabi kantu eta 48 minutuko lan honek arrisku handia dauka, entzuten duzun istantetik bere zurrumbilano hartzen zaituen horietakoa baita. Egia esan, inor gutxi espero zuen maila hau lortzeko gai izango zirenik.

Beraz, eta 2005ean *A Bigger Bang*-ekin makinaria erraldoia berriz ere martxan jarri eta kalitatezko lana argitaratu bazuten ere, oraingo hau ezusteko borobilagoa da. Bai, gure zaharrak rock-and-rolla salbatzera datoz. Simbolismo handiko itzulera da hau, haien legenda handitzen duena eta garai zail hauei kaña pixka bat sartzerat erori dena. Ez didazue honen guztiaren esanahia eta handitasuna ukatuko... Hainbat kritikari, euforikak harra-patuta eta olatuaren gainean igotuta, *Some Girls* diskoaz geroztik egin duten onena dela esatera ere iritsi dira.

Iritziak iritsi, hemen transmititu nahi dizuedana momentuaren handitasuna da. Stones zaharrekin

–aitonak eta birraitonak baitira, eta 80 urte beteta edo ia beteta baitauzkate– freskotasunez, baikortasunez eta indarrez beteriko komposizioak grabatu dituzte, eta sortu duten olatua guztiz kutsakorra da. *Start Me Up*-en estilora egindako *Angry* da diskoa hasten duen kanta, bere lana egiteko perfektua, baina *Get Close*-ren aldean txikia geratzen dena. Zer-nolako edertasuna eta gitarrak joko trebea daukan azken horrek! Gure betiko Stones-ak dira, akaso soinu gaurkotuarekin, eta konplizterat baina askoz ere haragato iritsi direnak.

Gauzak horrela, zer iruditzen balada gozagarri batekin jarraitzen badugu? *Depending On You* akustikotik elektrikora eta ham-

**The Rolling Stones**
'Hackney Diamonds'

Diskoetxea: Geffen Records.

mond-era pasatzen da erraz, eta garai zaharretako kutsua dauka. Paul McCartney gonbidatu nahi dutela? Hortxe dago Macca zaharra *Bite Myhead Off* berezikiko gogorrean baxua grabatzeko. Positibotasuna irradiatzen dute *Whole Wide World*-ek eta bere gitarra soloak, baita *Mess it Up* eder eta klasiko kutsukoak ere. Slide gitarrak Gram Parsonsekin partekatutako country-blues garaiak gogoratzen dizkigu *Dreamy Skies*-en. Elton Johnek pianoa sartu du *Live by The Sword*-en... eta baxua Bill Wymanek, taldea utzi eta 30 urte geroago! Hamaika ikusteko jaiok gara.

Keith Richardsen ahotsa ezin falta zen disko honetan, eta *Tell me Straight* balada maitagarrian bere ahots ahulaz magia lortu du berriz ere, ohi bezala nolabaiteko xalotasunaz eta benetakotasunaz jantzi baitu. Mick Jaggerren maila ere harrigarria da bere adina kontuan hartzen badugu. Sorpresa gehiago daude, izan ere *Sweet Sounds of Heaven* soul-blues balada guztiz lehergarria baita. Bere zazpi minututik gorako pasarte zenbaitetan goia jo dute, Stevie Wonderren eskutik, baina batez ere, ejem... Lady Gaga kantatu duen zatietan, rock-zaleon harridurarako. *Rolling Stones Blues* asmo-deklarazio hutsa da, eta era oso proposaen itxen du taldearen (azken?) disko. Charlie Wattsek hilibititik bere lagunei harrotasunez begiratzeko moduko arrazoiak izango ditu.

ARTEA ETA ERAKUSKETAK



HEMEN DRAGOIAK DAUDE MIKEL OTXOTeko ARTEA ABIAN
San Telmo Museoa (Laborategia)
Urtarrilaren 7a arte

GAUR

ARTISTA LIBURUARI BURUZKO VIII. TOPAKETAK
San Telmo Museoa (Eliza)
Azaroak 19

GAUR



MIKEL LABOA... IZAN LITEKE KONSTELAZIO, IZAN GABE IZAR...
LITERAKTUM
Okendo K.E.
Urtarrilaren 27a arte



EUSKAL IRUDIGILEAK, 20 URTE
Aiete K.E.
Azaroaren 26a arte

GAUR

HAUR POESIA ARETOA ARETO LITERARIOA
LITERAKTUM TXIKIA
Haur Liburutegi Nagusia (F. Calbeton 25)
Azaroaren 24a arte

ANTZERKIA

TOTO HIKA TEATROA LITERAKTUM
Imanol Larzabal (Lugaritz)
Azaroak 19. 19:00
● euskara

GAUR



LA LUCHA POR LA VIDA ARRIAGA ANTZOKIA, TEATRO ESPAÑOL
Victoria Eugenia
Azaroak 23. 19:30
● gaztelania

LA PROFESORA ISABEL ORDAZ MARCIAL ÁLVAREZ
Antzoki Zaharra
Azaroak 24. 19:30
● gaztelania



POSTDATARIK GABEKO GUTUNAK XAKE PRODUKZIOAK
Gaztesena (Egia)
Azaroak 25-26. 19:30
● euskara

LITERATURA



LITERAKTUM
Donostia / San Sebastián
Azaroaren 26a arte
literaktum.eus

GAUR

DANTZA



VAV COMPAÑÍA DANIEL ABREU
Victoria Eugenia
Azaroak 25. 19:30

ZINEMA

EL DERECHO A MATAR (3 HOMMES À ABATTRE, 1980)
NOSFERATU
Tabakalera
Azaroak 22. 19:00
● français, azpituluak gaztelaniaz

HAURRAK

HAURREN EGUN UNIBERTSALAREN 7. FESTA
LITERAKTUM TXIKIA
Larrotxene K.E.
Azaroak 20. 18:00
● euskara
Erreserba: donostikultura.eus/haurrek

IPUIN KONTALARIEN IX. MARATOIA
Saio bereziak haur eta helduentzat
Liburutegi Nagusia (San Jeronimo)
Azaroak 25
11:00-13:00 / 17:00-19:00
● euskara
Erreserba: donostikultura.eus/haurrek

MUSIKA



LUIS BONILLA: EXPLODING PIG
Victoria Eugenia Club
Azaroak 19. 19:00

GAUR



CHRIS POTTER CIRCUITS TRIO: SUNRISE REPRISÉ
Victoria Eugenia Club
Azaroak 22. 19:30

ANONYME POPULAR IGOR ELORTZA RAFA RUEDA XXIII. BERTSO AROA
Larrotxene K.E.
Azaroak 24. 19:00
● euskara


DONOSTIA BERTSOTAN AMETS ARZALLUS OIHANA IGUARAN MAIALEN LUJANBIO AITOR MENDILUZE
Gai-jartzailea: Iker Iriarte
Imanol Larzabal (Lugaritz)
Azaroak 24. 19:30
● euskara

MYRA MELFORD'S FIRE AND WATER QUINTET
Victoria Eugenia Club
Azaroak 29. 19:30

50 urte Petronor energiaz
ENERGIA AURREZTEKO AHOLKUAK
Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Argitaratzeko, pasabideetan (atondoan, garajejan...) ezarri presentzia-detektagailuak.

Eguraldia



GAUR

Eutsi egingo dio

Giro eguzkitsua nagusituko da, eta temperatura apur bat jaitsiko da. Goizean goiz, behe lainoa sortuko da, baina, goizak aurrera egin ahala, desegingo da. Iluntzean, behe hodeiak ugarituko dira isurialde atlantikoan. Haizea ahul eta aldakor ibiliko da goizean, eta arratsaldetik aurrera ipar ukituko finkatuko da.


JOERA

- Asteartea 21
- Asteazkena 22
- Osteguna 23

ITSASOA

Hegoaldeko haizea ibiliko da, 2ko indarrarekin. Arratsaldean, ipar-mendebaldera aldatuko da, 1-2koarekin. Itsaso kizkurra izango da. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 2 metro inguruko olatuak altxatuko ditu.

ISOBARA MAPA



BIHAR

Aldaketa dator

Euria egingo du, eta temperatura nabarmen jaitsiko da. Goizean goizetik zerua lainotuta egongo da ipar partean, eta euria egingo du. Arratsaldetik aurrera, euria hegoalderantz zabalduz joango da, eta zaparradak mardulagoak izango dira isurialde atlantikoan. Arratsaldean, ipar-mendebaldeko haizeak zakar joko du kostaldean eta Ebro inguruan. Tenperatura maximoek nekez gaintuko dituzte 15 graduak.

EGUZKIA	SORTU	GORDE
	08:09	17:44

ILARGIA	EGUNA
Ilgora	Bihar
Ilbetea	Azaroak 27, astelehena
Ilbehera	Abenduak 5, asteartea
Ilberria	Abenduak 12, asteartea

ITSASALDIA	ORDUA	METROAK
Itsasbehera	02:04	1,38
Itsasgora	08:28	3,83
Itsasbehera	14:45	1,27
Itsasgora	21:12	3,49

HAMAIKA

07:00: Hamaika 24. **07:30:** Pandoraren kutxa. **08:30:** Miru. **10:30:** Hamaika 24. **11:00:** Zozoak beleari. **11:30:** Musika zuzenean. **12:00:** Gurrean gaur kronika. **14:00:** Araba gaur. **14:30:** Bikografiak. **15:30:** 11 leiho. **16:30:** Bizki musika. **17:00:** Xilabako taldekako finala. **20:00:** Banda zabalda. **21:00:** Harri salda. **22:00:** Kolpez kolpe. **23:30:** Banda zabalda. **00:30:** Hamaika 24. **01:00:** Kolpez kolpe.

ETB 1

06:25: Marrazki bizidunak. **08:00:** 3 Ene kantak. **09:15:** Iparraldearen orena. **09:40:** Bizki berria. **09:50:** Egi bidean. **10:00:** Meza. **11:00:** Atletismo. Emakumezkoen Nazioarteko lasterketa. **11:30:** Helmuga. **12:00:** Eskubaloia: Bera-Bera - Sola HK. **14:00:** Gaur egun. **14:35:** Kirolak. **14:50:** Eguraldia. **15:05:** Hitzetik hotzera. **16:05:** Herri kirolak. Aizkolaria. **16:30:** Pilota. ETB Kanbaxa. Ezkurdia - Zabaleta / Jaka - Mariezkurrena II.a - P. Ekeberria. **20:00:** Gaur egun. **20:50:** Eguraldia. **21:05:** Piztu telebista. **22:00:** Zlanda. **23:30:** Ibarrola, artista menderaezina. **00:25:** Herri txiki infernu handi. **03:05:** Wazemark 2.0.

ETB 3

07:35: Golazen. **08:30:** Zuhaitz ebeko istorioak. **08:40:** Raa Raa lehoi orrolaria. **09:00:** Ipuin txiki, soinu handi. **09:10:** Helenaren eskola bixia. **09:30:** 3 ene kantak. **10:30:** Super Dino. **10:55:** Remy eta Boo. **11:15:** Milo. **11:35:** Otsoko. **11:50:** Tib eta Tumtum. **12:15:** Ernest eta Rebeka. **12:45:** Doraemon. **13:10:** Jeremy Super Karibu. **13:30:** Pingu hirian. **13:40:** Mini ninjak. **14:10:** Aberezoroak. **14:25:** Squish. **14:45:** Idefix eta menderakaitzak. **15:05:** Robin Hood. **15:30:** Zorionak. **15:35:** Golazen. **16:45:** Zinema. Tximinoen erresuma. **18:05:** Gormiti. **18:25:** Kaleko futbola. **18:50:** Andu berandua. **19:15:** Doraemon. **20:00:** Zorionak. **20:05:** Pan Tau. **20:30:** Gadget inspektorea. **20:50:** Lakebottom kanpamentua. **21:30:** Mutli neska bakur katu sagu gazta. **21:55:** Lan bixiak. **22:15:** Rocket Monkeys. **23:00:** Dave Spuden mundu kaskarra. **23:20:** Danger mouse. **23:40:** George oihanekoa. **00:05:** Bat Pat. **00:25:** Hau da Joey. **00:45:** Spirit, zaldi askea.

KANALDUDE

12:15: Lingua Vasconum Primitiae hitzaldia. **13:55:** Buhame erreka. Mehaineko kakolada. **20:15:** Elgar Oinkak 50 urte.

Hollywood

13:10: Los juegos del hambre: En llamas. **15:30:** Los juegos del hambre: Sinsajo Parte 1. **17:30:** Los juegos del hambre: Sinsajo Parte 2. **19:45:** Enemigo público. **22:00:** Independence Day.

AMC

14:15: Definitivamente, quizás. **16:10:** Amenazados en la red. **17:50:** Fuego. **19:40:** Cuando éramos soldados. **22:10:** Non-Stop (Sin escalas).



ETB 2

08:45: Nueva vida. **09:00:** Palabra de ley. **09:35:** Ibarrola, dos miradas. **10:55:** Sustrai. **11:25:** Teknopolis. **12:00:** La caza. **13:50:** Atrápame si puedes finde. **14:58:** Teberri. **15:35:** Kirolak. **16:05:** Eguraldia. **16:25:** Inspector Marleau. **20:00:** Asesinato en el norte. **21:00:** Teberri. **22:25:** Vascos por el mundo.

ETB 4

09:40: A ver si no llueve. **10:45:** De lo bueno lo mejor. **11:40:** Del país de los vascos. **14:00:** Robin Food. **15:25:** Juego de cartas. **19:40:** Vascos por el mundo. **20:10:** De lo bueno lo mejor. **20:50:** Yo sé más que tú. **21:30:** Atrápame si puedes finde. **22:25:** Jotental las galas. **00:55:** Juego de cartas.

La 1

10:45: Masterchef celebrity. **14:00:** Viaje al centro de la tele. **14:30:** Corazón. **15:00:** Albisteak. **16:00:** Zinema. Sin reservas. 2007. **17:35:** Zinema. Durmiendo con su enemigo. 1991. **19:10:** Zinema. Recien casadas. 2013. **20:30:** Futbolbo. Eurokoparoko sailkapen partida. **21:00:** Albisteak. **22:05:** Zinema. Skyfall. 2012. **00:50:** Argentinako hauteskundeak.

La 2

10:00: Últimas preguntas. **10:30:** El día del Señor. **11:30:** Pueblo de Dios. **12:00:** Ruralitas. **13:00:** Flash moda. **13:30:** RTVE responde. **14:00:** Zoom tendencias. **14:35:** Las recetas de Julie. **15:35:** Sabey y ganar fin de semana. **16:20:** Dokumentalak. **18:50:** Un país para leerlo. **19:25:** Cuaderno de campo. **20:05:** Un país mágico. **21:05:** De seda y hierro. **21:40:** Imprescindibles. **22:35:** Zinema. El Incoficiente. 2020.

Antena 3

08:20: Los más. **10:10:** Centímetros cúbicos. **11:00:** Los más. **12:45:** La cocina abierta de Karlos Argiñano. **13:50:** La ruleta de la suerte. **15:00:** Albisteak. **15:45:** Kirolak. **15:55:** Eguraldia. **16:00:** Zinema. Más allá de la mentira. 2019. **17:45:** Zinema. Una Navidad real. 2020. **19:15:** Zinema. Una reserva para el amor. 2019. **21:00:** Albisteak. **21:45:** Kirolak. **22:10:** Secretos de familia.

Tele 5

09:50: Got Talent España. **13:15:** Socialité. **15:00:** Albisteak. **16:00:** Fiesta. **21:00:** Albisteak. **22:00:** Gran Hermano VIP. El debate.

La Sexta

09:00: ¿Qué me pasa, doctor?. **10:10:** Zapeando. **11:30:** Equipo de investigación. **14:00:** La Sexta noticias. **15:30:** La roca. **20:00:** Albisteak. **21:30:** Salvados.

Cuatro

08:20: Volando voy. **11:20:** Viajeros Cuatro. **13:55:** Cuatro al día. **14:55:** Eldesmarque Cuatro. **15:25:** Eguraldia. **15:40:** Zinema. El regreso de la momia. 2001. **18:05:** Zinema. Adele y el misterio de la momia. 2010. **19:55:** Cuatro al día. **20:50:** Eldesmarque Cuatro. **21:20:** First Dates. **22:35:** Cuarto milenio.

TF1

09:55: Automoto. **11:00:** Telefoot. **11:50:** Les douze coups de midi!. **13:00:** Journal. **13:40:** Reportages découverte. **14:50:** Grands reportages. **16:15:** Star Academy, la quotidienne. **17:20:** Sept à huit life. **18:20:** Sept à huit. **20:00:** Journal. **21:10:** Zinema. Venom 2: Let There Be Carnage. 2021. **23:00:** Zinema. Split.

France 2

08:30: Les chemins de la foi. **12:00:** Tout le monde veut prendre sa place. **13:00:** Journal. **13:20:** 13.15, le dimanche. **15:05:** Familles de légende. **16:05:** Un dimanche à la campagne. **17:45:** En banque organisée. **18:35:** Les enfants de la télé. **20:00:** Journal. **20:30:** 20h30, le dimanche. **21:10:** Zinema. Boîte noire. 2021. **23:20:** Beau geste.

France 3

10:35: Nous, les Européens. **11:25:** Dimanche en politique dans votre région. **11:55:** Dimanche en politique. **12:35:** Ici 12/13. **12:55:** Les nouveaux nomades. **13:30:** Vivement dimanche. **15:15:** Brassens par Brassens. **17:10:** Des chiffres et des lettres. **17:55:** Le grand slam. **19:10:** Le 19/20. **20:10:** Stade 2. **21:10:** Professeur T. **23:35:** Agatha Raisin.

Euskadi, auzolana

ELSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

Edabe feministak

Mozoilo irratian jaio ziren eta gaur beren kabuz hegalegitzen duten erratzaren gainean, basoaren argi- ilunetara heldu eta bertan akelarrea egiteko. Ainara Garcia Goitandia eta Libertad Daganzo dira Sorginkeria irratia egiten dutenak, eta beren burua feminista erradikal gisa definitzen duten sorginak. Normalean ez dituzte gaztelaniazko saioak zutabe ho-

netara ekartzen, baina honako honetan ezin izan dut saihestu tentaldian erortzea. Sare sozialean euskaraz ere ari direla aitzaikiatu ahalko nuke justifikatzeko, baina ez dut nire aukera makillatu nahi; ekarri dut hona ni ere sorgindu nautelako. Kitto!

Astero, edabe bereziak eta pertzadak txandakatzen dituzte podcast plataforman ezberdinetatik, baita sare sozialean ere. Dibulgazio feminista egiten dutela

diote, eta, beren hitzetan, «klase borroka, euskal kultura eta umorea» dituzte ardatz. Osasunarekin loturiko gaiak, indarkeria sexual eta matxisten ertzak, eta letraburuetan dauden eta ikusezina diren gaiak lantzen dituzte, ikuspegi feministatik. Batzuetan bien arteko solasaldian; bestetan, beste sorgin, *meiga* edo *bruxek* lagunduta. Azken denboraldian, pornoaz, prostituzioaren abolizioaz, Rubiales kasuaz edota Urdaibaiko Guggenheim berriaz aritu dira. *Burbuila erradikala* tartean, bestalde, Monica Alario Gavilan indarkeria sexualean eta pornografiaren adituaren kolaborazioa dute, eta hor ere ez diote muzin egin bustitzeari.



IRRATIA
Arantza Gutierrez

Irratia aukeratu dute, dibulgazio feministarako arma dela aitortuta. Izango da Ikasketa Feministak eta Generokoak EHUKo masterrean horretaz hitz egiten dudalako, azken urteotan feminismitik gero eta saio gehiago sortzen ari direlako edo Abya Ayala eta Afrikako irratikomuni-

tario asko emakumeen komunitateetatik jaioak direlako... Nik neuk ere uste dut karreran zehar irakasle batzuek femeninotzat jotzen zuten eta bigarren mailan jartzen zuten hedabidea bozgorailu feminista ere badela, podcasten eta tokiko irratien periferiatik bada ere. Hala ere, sukaldere edo autoko pribatutasunean entzun arren, esparru publikoa da irratia, eta horretan oraindik bide luzea dago egiteko, bereziki ohiko dialetan.

Bitartean, enborraren gaineko aukeratik altxatuta, bi sorgin horiek entzuleak sorgintzen saiatuko dira hilaren 24an Billborocken egingo duten zuzeneko emanaldian.

«Konfiantza osoa dut nire datuetan»

Silvia Intxaurren • Kazetaria

Euskal Kazetarien Elkargoak, Euskadiko Irrati eta Telebista Profesionalen Elkarteak eta Ondas Sariek Silvia Intxaurren aurkezlearen lana aitortu dute aurten. Asteazkenean jasoko du saria.

Iraia Vieira Gil

«Egia kontatzea» du bizibide Silvia Intxaurren kazetariak (Santurtzi, Bizkaia, 1980). Urte luzez aritu da telebista lanak egiten, eta, gaur egun, RTVEko *La hora de la I* saioa aurkezten du. Aktualitatearekin lotutako gaiak jorratzen ditu bertan, «askatasun osoz». Euskal Kazetarien Elkargoak, Euskadiko Irrati Telebista Profesionalen Elkarteak eta Ondas Sariek aitortza egin diote aurten, eta sari bana eman: Euskal Kazetarien Saria, Urrezko Minutuaren Saria eta Aurkezlerik Omenaren Saria, hurrenez hurren. «Lanbidearen eta gizartearen bersarkadatzat» hartu ditu Intxaurrendok.

Ondas Saria jasoko duzu azaroaren 22an, asteazkenean, «galdera egokiak egiteagatik». Zein dira galdera egokiak?

Gurasoek erakutsi zidaten errespeta ez erortzeko daitkeela. Galdetze soilak ez du deserotasu-

nik sortzen; galdera batek, bai. Kazetaria zarenean, elkarrizketa egin bitartean bururatzen zaizu zer galdetu. Batzuetan, dudana biltza otu zaizun hori bota ala ez, indar handia duen adierazpena delako. Ez egin zalantza. Horiek dira galdera egokiak.

Komeni da aurretik dokumentazio lanetan sakontzea?

Bai. Ikusle batzuek uste dute elkarrizketatuari ateratzen dizkiozula zuzenean datuak, baina ez da hala. Ezagutarazi nahi duzun datuaren jarraipena egin behar duzu aurretik, eta ez da lan erraza. Ezin duzu hutsik egin. Biltzen duzun informazioa bat ez badator, nahitaez plazaratu behar duzu.

Sinesgarritasuna izatea ezinbestekoa da. Nola lortu duzu?

Konfiantza osoa dut nire datuetan; asko lantzen ditut, eta ez dira ausazkoak. [Alberto Nuñez] Feijorekin elkarrizketa izan nuenean eta eman nituen datuak ezeztatu zizkidanean, nik banekien oker zebilela. Horregatik da hain



DANIEL GONZALEZ / EFE

garrantzitsua dokumentazio lana egitea: ezetz esaten dizutenean eta bost telebista kameraren aurrean zaudenean, ezin duzulako zalantzarik egin. Planto egiten jakin behar duzu.

Nola kontrastatzen da datu bat? Gaur egungo kazetaritzaren ertaina da hori. Gezurrezko infor-

mazio asko jasotzen dugu kazetariok; beraz, ezinbestekoa dugu iturri ofizialetara jotzea. Datu ekonomikoak kontrastatzea askoz errazagoa da oker dagoen diskurtso bat deseraikitzea baino. Nola erakuts dezakezu norbaitek arrazoirik ez duela, haren justifikazio bakarra «hala da» baldin bada?

Justifikazio hori onartzen duten hedabide asko daude, ordea.

Hori ere aldatu behar dugu. Egia kontatuko duten komunikabideak behar ditugu; bestela, ezingo dugu kazetaritza egin. Gizartearen jarrera kritikoa bultzatzeko, zorrotz egin behar dugu lan. Kazetaritza da esatea politikari bat oker dagoela, eta oker dagoenari eta zuzen dabilenari espazio bera ez ematea. Ikusleak badaki bakoitzak zer saldu nahi duen. Ezin dizkiogu helarazi interesetan oinarritutako mezuak.

«Nola erakuts dezakezu norbaitek arrazoirik ez duela, haren justifikazio bakarra 'hala da' baldin bada?»

Gazako gerraren inguruko diskurtsoa azken orduan aldatu dute hainbat katek. Zergatik?

Nik hasieratik ulertu dut egoera: Israelek Palestina okupatu du. Herrialde bateko armadak argirik eta elektrizitate gabeko ospitale bat inguratzen badu, eta hor sartzen bada, ikusleak badaki horrekin zer izen duen. Hala kontatu behar zaio. Gainerako hedabideek orain arte errealtatearen berririk zergatik eman ez duten: horri erantzun behar dio kazetaritzak.

Errealtatea kontatzeko askatasun osoa duzu zuk?

Bai, eta eskerrak eman nahi dizkio RTVEri, eman dizkidan aukerengatik. Gertaerak aztertzen ditut, eta ez dit iritzirik ematen. Gogoko ez duen jendea dago, baina ez dit axola. Gezurren kontatzen duten horiek kritikatzeko naute? Ez diet garrantzirik ematen.

Presioa jasaten duten kazetarien kasuan, zer egin behar da?

Kolektiboki babesa eman behar diegu gainerako kazetariok.



Denbora pasak

BAT ETA BAT EZ DA BETI BI

Lerro edo ilara bakoitzean, bi erantzunen anagrama duzu hirugarren definizioaren emaitza.
Anagrama: Hitz baten letrak lekuz aldatzean sortzen den hitz berria (ABEGI - BEGIA)

1																								
2																								
3																								
4																								
5																								
6																								
7																								
8																								
9																								
10																								
11																								
12																								

- Metal oso erradioaktibo + Bizkaiko ibai = Hitzarmena
- Eskrimako modalitate + Euskaltegi sarea = Lapurrak, ohoinak
- Gorputz osoko eskultura + Sarrera = Eraikin baten estalkia
- Itsasontzi batek uretan uzten duen arrastoa + Galdetzale bat = Zuberoako euskalkia
- Sotoak + Pinu = Xake jokalaria
- Bere eginbideak txukun egiten ez dituen + Juntagailua = Ortua
- Babes, geriza + Eguzki = Abertzale
- Olatuak, uhinak + Jardun = Pluralean, ugaztun haragijale txikia
- Andre itzaltsuak + Zangoaren muturrean = Ganbarak, aletegiak
- Mozkortuta + Tente = Ahaztua, ahantzia
- Gertakari edo prozesu baten aldia + Du, baina hari = Erronka, aupada
- Zerbait egiteko behar diren gauzak + Presio itate = Gauzaki astunak altxatzeko eta higitzeko makina besodunak

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira, eta euskal atsotzibat azalduko zaizu.

1. Zuria nahiz beltza, gaixotasun kutsakorra da	20	9	22	40	28	5
2. Ergel, ganoragabe	33	8	25	10	4	23
3. Erlearen antzeko intsektu, hura baino lirainago	29	42	15	3	32	39
4. Goitzen, gaitzitzen, izengoiti	44	2	34	45	18	12
5. Belardi, belaze	31	1	24	7	14	27
6. Benetan, zinez	36	13	6	37	19	
7. Ahul	30	41	35	16	17	
8. Ernaltzeko ahalmena duen sexuok	21	38	25	11	43	

1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30	
31	32	33	34	35	36	
37	38	39	40	41	42	43
44	45					

SUDOKU ZAILA

			2	1		
5	3	9		7		4
			4	6		5
	6			3		
	8		4			
					5	3
2	9					7
			1	6		
6						2

AURREKO ERANTZUNAK

A	B	A	N	G	O	A	R	D	I	A
H	A	R	E	A	U	G	A	T	Z	
A	S	O	T	S	A	K	D	O	K	
L	O	T	A	R	E	X	O	L	A	
B	I	Z	I	K	A	R	I	A	R	
T	L	A	R	Z	A	M	A	R		
D	A	K	A	R	T	U	R	R	E	
E	R	G	A	U	E	R	D	I	A	
R	I	A	D	A	R	R	A	T		
G	A	S	N	A	L	A	I	T	S	A
A	K	U	A	R	I	O	Z	E	R	

1	9	8	4	7	2	6	3	5
5	4	6	3	8	9	7	1	2
7	2	3	6	1	5	8	4	9
6	3	9	5	4	7	2	8	1
4	7	2	8	6	1	5	9	3
8	1	5	9	2	3	4	6	7
9	5	4	7	3	6	1	2	8
2	6	7	1	9	8	3	5	4
3	8	1	2	5	4	9	7	6

2	4	7	8	6	3	5	9	1
9	8	3	5	2	1	6	7	4
6	1	5	7	9	4	2	3	8
7	2	1	4	5	6	9	8	3
8	5	9	2	3	7	1	4	6
4	3	6	1	8	9	7	2	5
5	6	8	9	4	2	3	1	7
3	7	2	6	1	8	4	5	9
1	9	4	3	7	5	8	6	2

ANTILLOPE									
LETONIA									
LETOIA									
LEIOA									
LEIA									
LEIA									
ALIA									
KALEIA									
LESIAKA									
SAKELAK									
IKASLEAK									

BADOK

BERRIA-REN EUSKAL MUSIKAREN ATARIA

Emaguzu zure jardunaren berri: hantemanak@badok.eus

Ekarpen oro da taupada, aukeratu eta eman zurea badok.eus-en

- 5€
- 15€
- 30€
- berri! aguna
- 100€

aldi hau kontatzeko berria

twitter.com/badokeus

facebook.com/BadokAtaria

«Jaio naizen etxeko fruitu bat naiz: euskaltzalea izan behar nuen»

Koro Zumalabe Goenaga • Euskaltzalea

Zumalabe matematika irakaslea eta itzultzailea izan da ofizioz; Donostian, Zaragozan eta Parisen bizi izan da; eta euskaltzalea da. Haren bizitza goitik behera kontatu du, jaio zen etxean.

Mikel Elkoroberezibar Beloki
Donostia

Donostiako Urbieta kaleko etxe handi batean jaiozen Koro Zumalabe (Donostia, 1947), eta etxe horretan bertan bizi da egun. Haren aitak –Joxe Migel Zumalabek– egindako koadroek apaintzen dituzte etxeko txoko ugari, baita haren senarra zenaren –Patxi Lirizarren–, alabaren eta bilobaren argazkiek ere. Beheko suaren ondoko mahaiari, BERRIAREN ale batzuk daude –haren anaia Joxemi izan zen *Euskaldunon Egunkaria*-ren sustatzaile nagusia–, eta amarenak izandako katilu batzuk, kafez betetzeko prest; agian, inoiz hortik edango zuten Carlos Santamariak, Elbira Zipitriak, Txillardegik edo Koldo Mitxelena.

Koro Zumalabe bakarrik bizi da jaio zen etxean. Alaba, arreba, emaztea, ama eta amona da, baina ez hori bakarrik: matematika irakaslea eta itzultzailea izan da ofizioz; Donostian, Zaragozan (Espainia) eta Parisen bizi izan da; eta euskaltzalea da. «Bizitza ederra da. Ederra da... batzuetan. Zortea izan dut», aitortu du.

Euskaltzale jaio zinen?

Baldintza guztiak betetzen nituen. Jaio naizen etxeko fruitu bat naiz, besterik gabe. Beste batzuk esanguratsua izan dira; nire anaia eta aita, adibidez. Nik, berriz, naizen modukoa izan behar nuen. Etxe hau amaren familiarena zen: Goenaga familia oso euskalduna izan da eta da. Zumalabek, ez hainbeste: nahasketa gehiago dago. Ni hemen jaio nintzen, oso toki euskaldunean.

Horrelako etxe asko ez zeuden Donostian, jaio zinenean.

Gerra ondoren jaio nintzen ni, eta etxe euskaldun asko zeuden; euskara etxe barruan egoten zen. Euskaltzaleak ez ziren hainbeste. Gu Elbira Zipitria irakaslearekin ibili ginen, eta horrelako familiak bazeuden Donostian; asko, ez.

Elbira Zipitriaren ikaslea izan zinen, beraz.

5 urterekin joan ginen Elbira Zipitriarengana. Eskola bere etxean jarri aurretik, etxe honetan eman zituen klaseak. Lau urte egin genituen harekin. Nik uste dut oso irakasle ona zela, eta oso zorrotza.



5 urterekin joan ginen Elbira Zipitriarengana. Eskola bere etxean jarri aurretik, etxe honetan eman zituen klaseak»

«Zuzendariari esan gabe, ikasleei esan genien ea nahi zuten klaseak euskaraz ere ematea. Berehala, baietz»

«Txepetx oso irakurria izan zen euskaltzaleen mugimenduan, baina gero ez zaio segitu. Haren analisiak ari dira betetzen»

Pedagogikoki oso berritzaileak izan. Garai hartan, irakasle batek legez eman zitzakeen klaseak bere etxean, hamar ikasle edo gutxiago baldin baziren. 9 urterekin batxilera aurreko ikasturtea egiten genuen; nik, San Bartolomen.

Aldaketa nabaritu zenuen?

Ikaragarria. Elbirarekin egunean bi ordu egoten ginen, eta azken urtean ordubate gehiago egoten


ginen erdaraz ikasteko. Gelan hamar ginen. Kolegioan, masifikazioa zen shock handiena: gela handiak ziren, bakoitzean berrogei, denak uniforme jantzita, denak berdin, dena erdaraz. Nik ulertzen nuen, ikasi nuelako: ondo prestatuta joaten ginen ikasketak egiteko, baina elkarrizketak egiteko ez. Zumalabe nintzen, eta azken lerroan egon behar izaten nuen: urtebete isilik egin nuen.

Santo Tomas lizeoa sortu gabe zegoen artean.

Gure aita irakasle izana zen –garai hartan eraikuntzan zebilen–, eta gaztetatik izan zen Carlos Santamariaren oso laguna. Bai bata eta bai bestea ez zeuden gustura fraideen irakaskuntzarekin, eta Koldo Mitxelenaarekin elkartu ziren, hura ere irakaslea, eta pentsatu zuten sortu behar zela toki bat euskaraz irakasteko, eta irekia. 1960an sortu zuten Santo Tomas lizeoa, eta hori egin zuten batxilergoa nire anaia, Antton Santamariak eta Itziar Mitxelena.

Unibertsitatean zein ikasketak egin zenituen?

Matematika ikasi nuen. Niri hizkuntza gustatzen zitzaidan, baina orduan ezin zen Euskal Filologiarik egin; klasikoa edo hispanikoa egin behar zen. Horiek alboratu nituen, eta iruditu zitzaidan Matematikak bide ona zela; aitaren alorra ere bazen. Gainera, ez zeukan inplikazio linguistikorik eta politikorik. Oso aseptikoa zen.



Non ikasi zenuen?

Zaragozan. Orduan hemen ez zegoen unibertsiterik. Karrera ikasten genuen guztiok kanpora joaten ginen.

Nolakoa izan zen Zaragozako aldia?

Ona. 1965etik 1970era egin nituen ikasketak...

1968ko maiatzaren garaian.

Hori da! Hor, bete-betean, lehenengo esloganak... Niretzat, dena berria zen. «Johnson, criminal. Deja en paz al Vietnam» [Johnson kriminala, utz ezazu bakean Vietnam], zen eslogan bat. Euskaldun asko geunden Zaragozan, denak erdaraz ikasten. Bazegoen euskaraz ez zekien euskal herritarrik ere. Coro Vasco deitutako abesbatza elkartzan ginen asko: kantatu egiten genuen. Horren inguruan, hasi ginen batzuk besteei

euskara klaseak ematen. Aldizkariak ateratzen genituen, eta artikulatu batzuk euskaraz idazten genituen.

Garai berezia izan zen, beraz.

Oso. Urte horiek ere frankismo berantiar samarreen zeuden, eta nabaritzen zen. ETA ja sortuta zegoen. Ez zen armatua, baina bazegoen. Ikasleen artean egiten zuten kanpaina. Ez haiek bakarrik: PCEkoek, eta besteek, eta besteek.

Matematika ikasten, gehienak mutilak ziren?

Neskak hirutik bat ginen. Hala ere, gogoratzen dut kolegioan izan genuela emakumeen kontzientzia; denak neskak ginen. Nire lehengusina batek ikasi zuen, banketxe batean lan egin zuen, 24 urterekin ezkondu zen, eta lana utzi zuen; hori asko egi-

«Dena» ematen zuenaren arreba nagusia

+ Zumalabe Goenaga sendiko alaba zaharrena zen Koro Zumalabe; haren anaia Joxemi baino hiru urte zaharragoa. «Oso harreman ona» zutela nabarmendu du euskalgintzako eta herrigintzako eragile funtsezkoenetako bat izan zenaren arreba nagusia. «Oso entusiasta zen, ez zen erresebatzen. Dena ematen zuen. Leher eginda egoten zen, orduak eta orduak lanean, kobratu gabe... Behar zena ematen zuen! Hala-koa zen, eta kutsatzen zuen». Horrela deskribatu du *Euskaldunon Egunkaria*-ren bultzatzaile eta eragile nagusia. «Nire anaia oso maitatua zen», nabarmendu du. **Duela 30 urte hil zen Joxemi Zumalabe.**



ANDONI CANELLADA/FOKU

ten zen. Guk oso garbi eduki genuen ikasi egingo genuela, eta umeak izaten bagenituen ere, lan egin behar genuela.

Donostiara itzultzean, laster hasiko zinen lanean.

Hasieran Villabonan [Gipuzkoa] eta Zabalegin [Hernani, Gipuzkoa] egon nintzen, eta, geroago, Beasainen [Gipuzkoa].

Matematika irakasle.

Bai. 1973tik 1977ra egon nintzen han; orduan hil zen Franco. Institutuko ikasle asko euskaldunak ziren, eta euskal kontzientzia piztuta geneukan. Etorri zen zuzendari bat, oso demokrata, bere esanetan. Irakasle batzuek esan genuen: «Bai? Hasi behar dugu klaseak euskaraz ematen». Klase guztiak erdaraz ematen ziren. Berari esan gabe, ikasleei esan genien ea nahi zuten klaseak euska-

raz ere ematea. Berehala, baietz. Klaseak ematen hasi ginen, euskaraz eta erdaraz.

Zuzendariak zer esan zizuten?

Haserretu egin zen, eta esan genion demokrazia zela: ez zuen lortu atzera egitea. Hasi ginenean, materialik ez genuen. Andoni Sagarra, Pedro Migel Etxenike eta beste batzuk Ingeniaritza ikasten ari ziren Donostian, eta taldetxo bat zeukaten. Haiekin hasi ginen ikasmaterialak euskaraz sortzen. Haiiek gero Elhuyar sortu zuten.

Donostiako Itzultzaile Eskola zer izan zen zuretzat?

Nire bizibidea aldatzeko modu bat ikusi nuen; gainera, euskarari helduta. Irunen nenbilen lanean, eta nire bizitza pertsonala zaildu zen. Eskatu nuen eszedentzia, eta Parisera joan nintzen, gauza guzti-ekin mozteko, baita irakaskun-

tzarekin ere. Neguko hilabeteak egin nituen Parisen. Orduan hasi nuen Informatika, eta izena eman nuen. Proba bat izan zen; gero ez nuen jarraitu.

Frantsesez bazenekien?

Bai, eta han gehiago ikasi nuen. Elbirarengana joaten ginenean, klaseen aurretik Iparraldeko emakume batengana joaten ginen; Felitxu Eraso izena zuen. Hark frantsesez erakusten zigun.

Parisko egonaldia, beraz, eten bat izan zen?

Bai, bidegurutze bat. **Zer bide aukeratu zenuen?** Itzultzaile eskolan jarraitu nuen. Garai horretan sortu zen ETB. Itzultzaile eskolara joan ginen euskara ikasketarik ez zuten jende euskalduna, eta hortik batzuk ETBra joan ziren. Paristik bueltatu nintzenean, astelehenetik osti-

ralera joaten nintzen eskolara. Zuzendaria Xabier Mendiguren zen, hil berri dena. ETBrako filmak itzultzen eta egokitzen hasi nintzen, etxetik. Orduan eduki nuen alaba. Etxean lan egiten nuenez, eromena zen. Orduan, ikusi nuen Zarauzko Udalean euskara teknikari izateko postu bat eskaintzen zutela, eta hartu ninduten urtebeterako.

Zer urtetan?

1988an. Oñatin bizi ginen orduan. Senarra hangoa nuen; liburu denda bat izan zuen, eta ezagutu nuenean Elkarrekoekin liburuak saltzen ibiltzen zen azoketan. Alaba jaiotzean, Donostiara etorri ginen bizitzera. Artean sortu gabe zuten *Egunkaria*, eta *Argia* merkeago ateratzeko kalkuluak egiten ibiltzen zen beti nire anaia. Antza inprimategia sortu zuten. Jendea behar zuten, eta nire senarra hartu zuten.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuan itzultzaile lanetan hasi zinen zu.

Postua aterata, 1991n hasi nintzen hor lanean, eta han jubilatuko nintzen, 2011n. Lehen, inprimakiak gaztelera baino ez zeuden, eta horiek euskalduntzen joan ginen, besteak beste.

Joseba Barriola joan zen behin zuengana.

Egia! Bagera elkarte sortzeko. Josebak Arrasateko AED [Arrasate Euskaldun Dezagun] ezagutu zuen. Gotzon Egia, zerbitzuburua, eta Joxean Amundarain lan-kideak ziren, eta haiei asmoak azaldu zizkien: haren asmoa zela euskara bultzatzeko herritar elkarte bat sortzea. Ni gertu nengoen, eta entzun nuen. Joxean eta ni berotu ginen, eta Bagera sortzen hasi ginen.

Jose Maria Sanchez Carrion Txepetx-en teoriaren zaleak zintzen.

Txepetx, garai hartan, oso estimatua eta irakurria izan zen euskaltzaleen mugimenduan, baina gero ez zaio jarraitu, nire ustez. Egiten zituen analisiak eta aurreikuspenak ari dira betetzen.

Adibidez?

Haren teoriaren muina da motibazioak eramaten duela jendea ikastera, eta, behin ikasita, berriz ere motibazioa behar dela erabiltzeko. Euskara ikasi duenak erabili ahal izan dezan, baldintza batzuk behar ditu: inguruan erabiltzea, adibidez. Erabileraz ez baldin badago, berak bilatu egin behar du, eta Ruper Ordorikak esaten duen bezala: «Ze nekeza dan euskaldun izatia». Motibazio handia behar da erabiltzeko. Erabilerak berak kultura ematen badizu eta bere adierazpen eder hori

baldin badauka, motibatuta zaudete gehiago ikasteko eta euskaldun oso bihurtzeko.

Motibazioa nabaritzen duzu?

Behera eta behera joan da, eta besteek eremua daukate oldartzeko. Orain ari dira erabilera piztu nahian, baina motibazioa behar da. Oldarraldia –eta hezkuntza legearekin gerta daitekeena– faena bat da, baina euskalgintzari esker, eta erreazioz, ematen du pixka bat pizten eta konpaktatzen ari direla euskaldunak. Trinkotzea da Txepetx beste konzeptu bat. Euskal hiztunek trinkotu behar dutela dio: gorpuztu behar dute hizkuntza eta kultura, herria. Horrela barruko indarra sortuko da, motibazioa.

Nolakoa da zure bizitza erretiroa hartu zenuenetik?

Nire senarra gaixotu egin zen. Iaz hil zen, baina aurreko urteak hari begira pasatu ditut.

Zure aitaren lana zabaltzeaz ere arduratu zara.

Bai. Gure aitarentzat pintura gartzetatik izan zen bere gauzarik gustukoena. Bere amak esaten omen zion: «Nik badakit zein den zure kuttuna: pintura». Hain gizon euskaltzale eta burutsu haren pinturak ekarpen bat da euskal kulturarako, nire ustez.

Etorkizunari zer opa diozu?

Bizitzeko gogoia izatea. Zereginak dauzkate, asko artatzen nauden alaba bat, hark bi urteko alabatxo zoragarri bat dauka – txoratuta nago berekin –, lagunak ditut, eta ez naiz geldirik egoten. Ondo kokatuta nago, baina ez daukat nire senarra zenak, Patxi, zeukan indar hura, eta falta zait. Hala ere, tokatu zaidan lekuan egon naiz, eta gustura nago horrekin.



Nerbioiko ur jauziko amildegia alderik alde gurutzatu du orekari kuadrilla batek hainbat bider. Orain arte Euskal Herrian gurutzatu den distantziarik luzeena izan da.

Mugarri bat soka gainean

Unai Etxenautia Amurrio

Orekarientzat ez dago ezer parekorik. Aitor Sorrarain astiro doa 900 metro luze neurtzen dituen sokaren gainean. Zerua konkistatu du, 300 metro amildegi baititu oinpean. Bisitariek etengabe argazkiak ateratzen dizkiote, mugarri berri bat baita Euskal Herriko orekarientzat. Nerbioiko ur jauziko labarra alderik alde zeharkatzeko aukera duen pribilegiatu bakarenetakoa da Sorrarain.

Nerbioiko ur jauzia zeharkatzeko egin behar izan zituzten urratsak kontatuko dituen dokumental bat egiteko 10.000 euroko beka eman diote Daniel Cascales zuzendariari Mendi Film mendi eta abentura zinemaldiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ternua jantzi markak. Zuzendariak kon-

Hainbat hilabete eman dituzte proiektuaren logistikaz arduratzen, erronkaren xehetasun guztiak antolatzen

tatu duenez, «hiru egun kostatu» zaie soka muntatzea: «Ur jauzia muturretik muturrera zeharkatu ahal izateko eman beharreko pausoak kontatzen dira dokumentalean. Horrez gain, orekariaren sokaren gaineko irudi ikusgarriak grabatu ditugu».

Dena ondo bidean, datorren urteko Mendi Film jaialdian estreinatuko dute Cascalesen dokumentala.

«Animo!», «Ahal duzu!»... Oihu artean egiten ari da bidea Sorrarain. Ehun pertsona inguru bildu dira orekariaren balentria ikusteko irrikan. Mario Hidalgo da Sorraraini erreleboa hartuko diona. Horma bertikaleko arroila handiari begiratzen dio sokara igotzeko prestatzen den bitartean. Baldintza paregabeak ditu amildegia gurutzatzeko: ez dago haizerik, eta gogoz jotzen du eguzkiak. «Mundialak dira horrelako parajeak soka gainean ibiltzeko; zaila izan da hau dena egiteko aukera izatea. Egia esan, zoriontsu nago proiektuaren in-paktuaz».

Izan ere, lehenago egin ez den Euskal Herriko mugarri baten parte izateko aukeraz gozatzen ari da Hidalgo. Orain arteko erreferentzia handiena aise gaindituko du: 500 metro luzeko lerro bat, Igeldoko Tximistarri kalaren gainean muntatu eta osatua, Donostian.

Sorrarain helmugara iristen ari da pixkanaka-pixkanaka. Zuzendariak argazkiak hurbiletik ateratzeko aprobetxatu du orduan. «Sekulako esperientzia da goian egotea». Cascalesek ere izan du sokara igotzeko aukera: «Leku

★ ATZEKOZ AURRERA



Aitor Sorrarain, helmugara iristen. UNAI ETXENAUSIA



Soka prest, Nerbioiko ur jauziko labarraren bi aldeak lotuz. MIKEL BEREZIARTUA

hau izugarri polita da horrelako gauzak egiteko. Infitura begira zaudela sentitzen duzu. Hor zaudenean ikusten duzu ur jauzia zein erraldoia den».

«Bai, zein ona!» Lortu du gurutzatzea Sorrarainek. Hidalgo-ren txanda da orain, «aukera bakarrak» gozatzeko prest. Urduri eta gogotsu dago, ez bakarrik soka gurutzatuko duelako, baizik eta proiektua jendeari aurkezteko: «Apustu bat izan da hau, eta ondo atera zaigu dena». Arbolara igo eta hasi du beste alderako bidea.

Hainbat hilabete eman dituzte proiektuaren logistikaz arduratzen, erronkaren xehetasun guztiak antolatzen. Zuzendariak azaldu du «pazientzia handiz» egin dutela lan: «Orain hemen gaude, paraje eder honetan. Baina oso gogorak izan dira aurretik izan ditugun lau egunak. Gainera, atzeratu egin behar izan genuen guztiak, eguraldiak ez baitzigun ezer lagundu».